# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-04-27
EGUBAKOITZA
506. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM




XABI URTZELAI

## Udanako igoera, aurten seguruago

Zapatuan 74 pilotu izango dira lehian 15:00etan hasiko den lasterketan | 30

Aukeratu dituzte Huhezinema film laburren lehiaketako finalistak | 33



Bingoa eta DJ festa, jaietako nobedadeak Bergaran | 16



Maiatzaren 4tik 6ra asteburu magikoa izango dute Elgetan | 32



**Maite eta Alain ekoizleak kontsumo taldeetako kideei otarreak ematen.**

# BASERRIEK GERO ETA BERGARAR GEHIAGO ELIKATZEN DITUZTE

Baserriko produktuak kontsumitzeko taldeak indartzen dabiltza Bergaran; orain, hirugarrena sendotu gura dute | 12

UBANE MADERA

# Askori ematen diote jaten, baina gehiagori ere eman nahi liokete

Urtebete daroa lanean Bergarako Elikagaien Bankuak, eta, epe horretan, milaka laguni egunero jaten eman diete. Goiz baten, 1.000 kilo elikagai sartu eta irteten dira Bergarako Bankutik. Hala ere, premia duen jende asko Bankuaren babesetik kanpo dagoela konturatu dira. | 2

## SINADURAK


IÑAKI PEÑA | 6
6 | EDU MENDIBIL
MAIALEN MADARIAGA | 17
24 | MARIJO PAGALDAI
IDOIA ETXEBERRIA | 40

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 | IRITZIA 6
ELKARRIZKETA 10 | HERRIAK 12 | KIROLA 30
|KULTURA 32 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36
EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38


## Babes ofizialeko azken etxeak banatu dituzte Oñatiko San Martin auzoan

127 eskatzaileren artean banatu dituzte 39 etxebizitza | 20

HARIRA SAIOA | GOIENA TELEBISTA

## "Zaborren kudeaketaren gainean Debagoieneko Mankomunitateak ze asmo daukan jakin gura dugu"

OXEL EROSTARBE
Elgetako alkatea | 26




SEAT ALHAMBRA

Gozatzeko teknologia




Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

SEAT

# Askori ematen diete jaten, eta gehiagori ere eman nahi diote

- Urtebete daroa Bergaran Elikagaien Bankuak
- Eguneko janaria batu eta erakundeei ematen die


Asteleheneko boluntarioen taldea. Egunetik egunera aldatu egiten dira taldeak.

LEIRE KORTABARRIA | BERGARA

Urtebete daroa lanean Bergarako Elikagaien Bankuak, eta, epe horretan, milaka laguni egunero-egunero jaten eman diete. Baina jatekoen premia duen jende asko Bankuaren babesetik kanpo dagoela ere konturatu dira. Bereziki horiei dei egiten diete arduradunek: Elikagaien Bankua jatekoen beharra duten denondako da.

Elikagaien Bankuak hauxe egiten du: salmenta-leku handiek, banatzaile handiek... baztertutako janariak, ondo daudenak, identifikatu, jaso eta gizarte arloko erakundeen artean banatu, haiek beharra dutenei eman diezaieten.

Bada, Elikagaien Bankuaren inguruko uste batzuk daudela esaten du Pili Arinek; tartean, hango elikagaiak "bakarrik atzerritarrek" hartzen dituztela: "Egia da, baina hemengo jendea, larri dagoena, gehienetan familiaren babesa du, etorkinek ez dutena; bestalde, gaizki pasatzen ari direla onartzea oso gogorra da, baina premia baldin badute, prest gaude edozeini laguntzeko".

Norbanakoak ezin dira Elikagaien Bankura janari eske zuzenean joan. Laguntza hori jaso gura duenak herriko Gobernuz Kanpoko Erakundeetara, Udalera, Caritasera... jo behar du, eta han egin eskaera.

**Janari ona da**

Gipuzkoako Elikagaien Bankua 1997an sortu zen, baina Debagoienean ez zen iaz arte ezarri. Gaur egun, egunero-egunero dihardute han hainbat boluntariok, eta egunero sei bat erakunderi ematen diete janaria, haiek banatu dezaten.

Egunero-egunero, saltzaile handiek kiloka janari baztertzen dituzte, ez jateko txarrak direlako, baizik eta beste arrazoi batzuengatik: ontzia matxuratu edo poltsa apurtu egin delako, iraungitze edo kaduzitate-data gertu dagoelako eta jendeak ez dituelako gura, etiketa galdu dutelako... Bergarako boluntario taldeko Pili Arinek dioen bezala, "helburua da ezer ez dadila galdu, ezer ez dadila bota". Izan ere, "janari hori guztia, lehen, zabortegietara eroaten zen".

Leku askotan frogatu da saltzeko ez apropos gisa jotzen den janari guztiarekin jende askori jaten eman dakiokeela. Gipuzkoan, Foru Aldundiaren Garapen Iraunkor departamentuak eta Mondragon Unibertsitateak halako plan pilotu bat egin zuten orain urte batzuk, eta hortik irten zen Gipuzkoako Elikagaien Bankuarekiko elkarlana; eta 2009ko egun baten, Londresen, Tristram Stuart-ek 5.000 laguni jaten eman zion bestela zaborrean bukatu izango zukeen janaria bakarrik erabilita. Stuart janaria botatzearen arazo larriaz kontzientziatzeko lanetan dabil eta, bere esanetan, Erresuma Batuan egun bakarrean botatzen den janariarekin 60.000.000 lagun elikatu daitezke. Are gehiago: munduko gosea bukatzeko adina janari alperrik galtzen uzten edo bota egiten dela salatzen du aktibista horrek.

**Furgonetaren erronda**

Gero eta jende gehiagori jaten ematen dio egunero Elikagaien Bankuak, eta ez bakarrik Debagoienean: Debabarreneko eta Goierriko erakundeak etortzen dira Bergarara jatekoen bila. Pili Arinek esaten duenez, gurean nahi baino erakunde gutxiago daude larri daudenei jaten ematen: "Arrasatetik erakunde bakarra etortzen da. Gehiago beharko lirateke", esaten du.

Janari freskoa da jasotzen dutena; egunekoa. Horretarako, Azken Minutua izeneko lan egiteko modua dute.

Hala, lanaldia 09:00etan hasten da. Elikagaien Bankuaren furgonetak janaria batzeko erronda hasten du. "Lehenengo, Eroski Arrasatera doa. 10:00ak inguruan etortzen da, elikagai galkorrak, agudo alperrik galtzen direnak ekartzen: barazkiak, frutak, esnekiak... Sartzen denean, deskargatu eta dena sailkatu eta pisatu egiten dugu. Gero, furgoneta Eibarko Eroskira doa; gero, Olaberriko Carrefourrera...". Hori, egunero; Carrefourrera, zapatuetan ere bai.

**Umeendako jogurtak**

Goiza da lan handieneko momentua Bergarako Elikagaien Bankuan. Merkantzia jaso eta gero, ale txarrak bota, janari ona pisatu, erregistratu, dagokiona hozkailuan edo izozkailuan sartu eta, segidan, loteak prestatu behar dituzte. Hori nekeza izaten da batzuetan, izan ere, jaso behar dutenendako ahalik eta janari egokiena izan dadin ahalegintzen dira. Euren esanetan, urtebete honetan "asko ikasi" dute, eta ikasten jarraitzen dute. Honela diosku Arinek: "Jende nagusiarendako baldin bada, askotan, tipula asko baldin badator, eurendako prestatzen ditugu. Beste adibide bat: barazki asko poltsa txikitan datoz, eta horiek oso aproposak dira familiendako; bada, horiek Caritasi ematen dizkiogu askotan; umeak dituzten familiak badira, umeendako moduko esnekiak-eta... Hego Ameriketako jendeari talo antzeko ogi batzuk ematen dizkiogu; edo, kus-kusa daukagunean, aljeriarrei eta marokoarrei".

Arazoak edo ezustekoak ere izan dituzte: "Musulmanek ez dute

## 'Azken minutua', goizeko lan nagusia


1

**JASO** Elikagaien bankuaren furgoneta goiz osoan dabil janaria jasotzen eta Bergarara ekartzen. Ailegatzen denean, boluntarioek deskargatu egiten dute eta paletarekin garraiatu.


2

**SARRERA EMAN** Jateko balio ez duen –usteldut...– janaria bota ondoren, dena pisatu eta elikagai mota bakoitzari erregistroan sarrera ematen diote, zenbat kilo jaso diren ipinita.


3

**PRESTATU** Azken onuradunari ahalik eta gehien egokitutako janari-loteak prestatzen dituzte. Gero, erakunde bakoitzarendako karga aparte uzten dute, erakundeak gertu izan dezan.


4

ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

**EROAN** Erakundeei deitu egiten diete haien loteak gertu daudela abisatzen, eta goizean zehar etortzen joaten dira. Askotan, boluntarioak izaten dira batzera datozenak ere.



| LEIRE KORTABARRIA

alkoholik hartzen, eta ardo-ozpina duten produktuak, maionesa, ozpinetakoak... ezin dizkiegu eman. Ezta txerri-koipea duten produktuak ere. Bestalde, Hego Ameriketako askok ez dakite babarrunak, garbantzuak... prestatzen, eta ez dituzte nahi izaten".

**Patata mordoa**

Azken Minutuaren bidez, denetariko elikagaiak biltzen dituzte Bergarako egoitzan: barazkiak, frutak, janari-poteak eta kontserbak, jogurtak, esnea, ogia eta haren eratorriak... edozein supermerkatuko apaletan egoten diren produktuak. Horiek egunean jasotzen dituzte Elikagaien Bankua erabiltzen duten erakundeek.

Eguneko produktuez gain, hilean behin, luzaroan irauten duten produktuen lotea jasotzen dute erakunde horiek. Jateko horiek Bergarako egoitzan izaten dituzte pilatuta: lekaleak, arroza, pasta, olioa, iraungitze edo kaduzitate-epe luzea duten esnekiak, patatak... Eta horiek ez dizkiete salmenta-lekuek bakarrik ematen; baita norbanakoek ere. Hala, baserritar askok uztaren zati bat ematen diete. Orain, adibidez, patata kilo mordoa dute. "Hori dena, bestela, zabortegira zihoan", esaten du Pili Arinek.

**Lote txikiagoak**

Krisiak ez die eragin jasotzen duten janari kantitatean; baina bai, ordea, lotearen tamainan: gero eta jende gehiagori jaten eman behar zaionez, gero eta lote txikiagoak egin behar dituzte. "Lehen kilo bat dilista, babarrun eta garbantzu baldin bazen, orain hirutik bi. Edo pasta, bi kilo beharrean, kilo bat da onuradun bakoitzarendako", esaten dute boluntarioek.

Hala ere, erakunde eta enpresa askoren laguntza dute, eta hori bereziki eskertzen dute Bergarako Elikagaien Bankuko ordezkariek: hala, Fagorrek bi izozkailu oparitu zizkien; inguruko merkataritza-gune eta supermerkatukate handienen elkarlana dute, eta baita baserritarrena ere.

**ESANAK**

## "Helburua da janaririk ez dadila bota, ez dadila ezer gal"

## "Guk jasotzen dugun janaria zabortegira joaten zen"

**PILI ARIN** | BOLUNTARIOA

**DATUAK**

## 1.000

KILO JANARI

Goiz baten, 1.000 kilo elikagai sartu eta irteten dira Bergarako bankutik.

## 2

ALDIZ JENDE GEHIAGO

Azkoitiko Caritasek 100 familiatik gora atenditzen ditu; hilabete gutxian, bikoiztu egin da kopurua.

## Kaduzitate-data ez da legea

- Iraungitze-datak (kaduzitatea) ez du esan nahi janaria txartu egiten denik, baizik eta bere ezaugarri batzuk galtzen hasten dela: kolorea edo usaina alda dakioke, baina jateko ondo dago. Salbuespena okela eta horren eratorriak dira, oso agudo alperrik galtzen direlako.
- Jogurtak 28 egun irauten du jateko moduan; pasta freskoak, hozkailuan, hiru aste; galletek, urte erditik gora. Kontsumitzaileen elkarte OCUren ondorioak dira.
- Europako Legebiltzarrak eztabaidatu zuen produktuen iraungitze-dataren inguruko legea aldatzea, data horiek luzeagoak izateko.
- Produktuak hiru hilabetera arte irauten badu, kadukatzen duen egun zehatza agertu behar da; 3 eta 18 hilabete arte, urtea eta hilabetea; 18 hilabetetik gora, bakarrik urtea.




# Sindikatuek dei egin dute Maiatzaren 1eko mobilizazioetan parte hartzeko

- Gobernuaren murrizketa politika salatuko dute, besteak beste
- Manifestazio eta martxak antolatu dituzte, nork bere aldetik

**MONIKA BELASTEGI** | ARRASATE

Datorren martitzenean izango da Maiatzaren 1a, Langileen Nazioarteko Eguna, eta sindikatuek dagoeneko egin dituzte egun hori aldarrikatzeko deialdiak. LABek bailarako manifestazioa deitu du, ohi bezala, Eibarren, eta 12:00etan abiatuko da Untzaga plazatik. Hain justu, eguaztenean Arrasaten egindako prentsaurrekoan egin zuen deialdi hori. *Maiatzaren lehena, lotu borrokari* lelopean "inposizio, murrizketa eta erreforma gehiagorik ez" aldarrikatuko dute egun horretan, eta azpimarratu zuten Maiatzaren 1a jaieguna izanda ere, "aldarrikapen eta borroka egun gisa" ulertzen dutela. LABeko ordezkarien esanetan, martxoaren 29ko greba orokorraren ondoren, euskal langileria osoak "bestelako Euskal Herria eraiki nahi" duela adierazi du, eta azaldu zuten "sartu nahi gaituzten zulotik irteteko bide bakarra" dagoela: "Euskal Herria eta euskal herritarrak burujabeak izatea". Hori horrela, "bestelako Euskal Herria eraikitzeko momentua" dela azpimarratu zuten eta gaineratu zuten: "Patronalak eta bankariek, besteak beste, ez dute sekula lortuko euskal langileria burumakur eta etsitua ikustea".

Bihar, zapatua, Lan Osasunaren Nazioarteko Eguna dela ere ekarri zuten gogora eta osasun arloan egon diren murrizketak salatzeko gaur, egubakoitza, hiriburuetan egingo diren manifestazioetan parte hartzeko dei egin zuten.

### Sindikatua indartu behar da

ELAk *Ezinbestez, sindikatua* leloa aukeratu du Maiatzaren 1erako. Izan ere, "datozen urteetan izango ditugun erronkei aurre egiteko sindikatua indartu beharra" dutela uste dute eta horretarako bide bakarrak "antolakuntza, lan kolektiboa eta ekintza sindikala" direla diote. Horrekin batera, Rajoyren murrizketak langabezia eta txirotasuna handituko dutela ere uste du ELAk, eta "Jaurlaritzak zein Nafarroako gobernuak aurrez ere Espainiako Gobernuak ezarritako murrizketak aplikatu" dituela ekarri du gogora. Hala, gehitu du "greba orokorreko aldarrikapenak premia biziagoak bihurtu" direla eta "orduko aliantza sozialak mantentzeko ahalegin guztia" egingo dutela. ELAk mitina deitu du Bilbon, 11:30ean, Jesusen Bihotzean eta handik manifestazioa abiatuko da Plaza Biribilera.

### Etsipena garaitzeko deia

ESK sindikatuari dagokionez, *Borroka ala esklabutza, gizarte matxinada* leloarekin aldarrikatuko dute Maiatzaren lehena. ESK sindikatuak, "saihestezintzat azaltzen diguten egoera latzaren aurrean etsipena gainditzeko deia" plazaratu nahi du egun horretan. Eta uste du, "bakoitzaren beldurrak atzean utziz, antolatuz eta borrokarako indarrak metatuz geldiarazi" dezakegula.

ESKren ustez, martxoaren 29ko greba orokorrak jarraitu beharreko ildo bat adierazi du, "antolatzearena eta indar gehiago metatzearena, gizartearen gehiengo zabalarena, hain justu. Era berean, lantegietan indarrak metatu behar direla ere uste dute eta "erreformak bertan behera bota" behar direla eguneroko egitateekin eta modu kolektiboan". "Beste gizarte eredu bateranzko urratsak" egin behar direla ere uste dute; beste eredu sozio-ekonomiko baten beharra dagoela, azken batean.

Hori guztia aldarrikatzeko, Errenteriatik Donostiarako martxa deitu du egun horretarako. Zumarditik abiatuko da, 10:00etan.

### CCOO eta UGT elkarrekin

CCOOk eta UGT elkarrekin aldarrikatuko dute Maiatzaren Lehena. Hiriburuetan deitu dituzte manifestazioak, eta bailarako ordezkariak Donostiakora joango direla aurreratu dute UGT sindikatutik. Hain justu ere, Alderdi Edertik abiatuko da, 12:00etan. Sindikatu horiendako datorren Maiatzaren 1a "ez da egun horren ospakizun bat gehiago". Uste dute Gobernuak baliatzen duela "herritarrek langabeziaren aurrean duten beldurra haiek deuseztatzen saiatzeko".

## Botikak berrordaintzeko sistema salatu dute



LAB Helduen ordezkarietako lau batzarraren une batean. | AMAIA TXINTXURRETA

LAB Helduak botikak berrordaintzeko sistema berriaren kontra agertu dira. Salatu dute erabaki hori onartezina dela eta ondorio "larriak" ekarriko dituela. Horren aurrean "altxatu" beharra dagoela gaineratu dute, eta dei egin dute gaur, egubakoitza, hiriburuetan egingo diren kontzentrazioetara joateko. Antzuolan elkartu ziren, martitzenean, Euskal Herri osoko LAB Helduen ordezkariak batzarra egiteko. Horren ostean, elkarretaratzea egin zuten plazan.

Ordezkarietako batek, Itziar Usandizagak, azaldu zuen erretiratu askok "miraraiak" egin behar izaten dituztela hilaren azkenera iristeko, eta orain, gainera, murrizketa gehiagorekin, oso egoera larrietara eta gorrietara heltzen ari direla gaineratu zuen.

**ULMA** ULMA Forja, S. Coop. Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIA**

**Eguna:** 2012ko maiatzaren 4a
**Ordua:** 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena
**Tokia:** ULMA Taldeko auditoriuma – Oñati (Gipuzkoa)

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea batzar honetako akta onartzeko.
2. 2011ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2012ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2011ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea.
5. 2011ko ekitaldiko emaitzak banatzea.
6. Heziketa eta kooperatiba sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK).
7. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak.
8. POGU III eta ULMA Forja, S. Coop. eko Barne Araudi Kooperatiboko 42., 43. eta 46. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
9. ULMA Forja, S. Coop. eko Barne Araudi Kooperatiboko 27. eta 28. artikuluak aldatzea, hala badagokio.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Menpeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
15. Ahalmenak eskuordetzea.
16. Galde-eskeak.

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan ditzaten.
Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Forja, S. Coop. eko helbide sozialean, proposatutako Barne Araudiaren eta POGU IIIaren aldaketen testu osoa aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2012ko apirilaren 20a



Aldundiko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak Garaian. | TXOMIN MADINA

## Aldundiko helburuen artean tokiko ekonomia bultzatzea dagoela esan du Garitanok Arrasaten

**M.B.** | ARRASATE

Martin Garitano ahaldun nagusia eta Jon Uriguen diputatua Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean egon ziren martitzenean, Aldundiak enpresei laguntzeko dituen planak azaltzen. Gainditu programaren barruan, 20 milioi euro izango dira helburu horretara bideratuko direnak. Horietatik sei Ekonomia Berraktibatzeko Planera bideratuko dira, eta, onartu berri dutenaren arabera, 2,4 milioi euro eskualdeen garapenera. Horren harira, ahaldun nagusiak azaldu zuen euren helburu estrategikoen arabera tokian tokiko ekonomia bultzatu gura dutela eta garrantzitsuak direla tokiko garapen agentziak.

Bestetik, beste eredu ekonomiko baten beharra ere azpimarratu zuen.

## Urte "zail-zaila" izango dela iragarri du Aldekoak

**M.B.** | ARRASATE

Mondragon Taldeak eguaztenean egin zuen kongresuan esan zuen hori Jose Maria Aldekoa korporazioko lehendakariak. Urte zaila iragarri zuen, "batik bat merkatu estatalean zentratuta eta gutxi nazioartekotuta dauden jardueretarako", eta "zuhurtzia, konpromisoa eta gestioaren tentsioa mantentzea" gomendatu zuen. Krisiari aurre egiteko eta indartuta ateratzeko funtsezko elementuak jarrera, gestioa eta jabetza direla esan zuen. Agur hitzak egiteko ere aprobetxatu zuen, ekainaren 3an erretiroa hartuko du-eta; Txema Gisasolak ordezkatuko du. ULMA Packaging taldean sartzea ere erabaki zuten.




Elgetako eta inguruetako herritarrak eta ordezkari politikoak batu ziren plazan egindako elkarretaratzean. | L.Z.

# Armadaren maniobrak probokazio eta errespetu faltatzat jo dituzte

Agintari eta herritarrek protesta–bilkura egin zuten eguaztenean Elgetan

**MONIKA BELASTEGI** | ELGETA

Espainiako armadak martitzen goizean, hilaren 24an, Elgetan egindako maniobra militarrek erreakzio ugari eragin dituzte. Egun hartan 75 urte bete ziren tropa frankistek eta haien aliatuek Elgeta bonbardatu zutela, eta, ondorioz, armadaren maniobrak probokaziotzat, iraintzat eta errespetu faltatzat jo dituzte elgetarrek eta hainbat erakunde, alderdi politiko eta elkartek. Hori guztia salatzeko, gainera, elkarretaratzea egin zuten eguazten iluntzean Elgetan, Elgetako eta inguruko herrietako herritar eta ordezkari politikoek, baita Foru Aldundikoek ere. Besteak beste, Marina Bidasoro Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren zuzendaria, Oxel Erostarbe Elgetako alkatea eta hango zinegotziak izan ziren.

*Egia, justizia eta kalte-ordaina, zauriak ixteko askatasunez bizitzeko* zioen pankartaren atzean ordu laurdeneko bilkura egin zuten.

**Erreakzio ugari**

Martitzeneko maniobrek erreakzio ugari eragin zituzten egunean bertan eta hurrengoetan. Elgetako Udalak eta Intxorta 1937 kultura elkarteak, esaterako, prentsaurrekoa egin zuten martitzenean. "Espainiako Estatuko armadak gaurko eguna aukeratu izana Elgetan maniobrak egiteko onartezina da, probokazio hutsa!", esan zuten, besteak beste. Oxel Erostarbe Elgetako alkateak, bestalde, hauxe gehitu zuen: "Militarrek Elgetan eta inguruetan egin beharko luketen gauza bakarra da barkamena eskatu eta alde egin.

Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak lotsagarri eta iraingarritzat jo zituen maniobrak, eta ardurak eskatuko dituztela iragarri.

EBBko presidente Iñigo Urkulluk "mentalitate gerrazalea eta probokatzailea" izatea egotzi zien, eta euskaldunek "biolentzia eta izua atzean utzi" gura dituztela gogora ekarri.




Maribi Ugarteburu Bergarako Irizar jauregian. | TXOMIN MADINA

# Konponbiderako urratsak azaldu zituen Ugarteburuk

**M.B.** | BERGARA

Ezker abertzaleko bozeramaile Maribi Ugarteburu Bergaran izan da asteon hitzaldia ematen. Herritarrei ezker abertzaleak otsailean Donostian aurkeztu zuen *Konponbide haizea dabil* izeneko adierazpena aurkeztu zien. Adierazpen horretan jasotzen dira Aieteko Bake Konferentzian konponbide batera heltzeko markatutako bide-orriari ezker abertzaleak egindako hainbat zehaztapen, eta horiek izan ziren Bergaran azaldu zituenak: indarkeria eszenatokia gainditzearen inguruan, biktimen gainean, egiaren bilaketa beharrari buruz eta akordio demokratiko bat bilatu beharrari buruz ezker abertzaleak duen ikuspuntua izan zituen hizpide Ugarteburuk, beste gauza batzuen artean.

# Adingabeen etxea itxi dutela salatu du ELAk

Aldundiak Arrasaten duen adingabeendako etxe bat da, eta zazpi langile kalean geratuko direla salatu dute elkarretaratzean. Bide Barri enpresak kudeatzen zuen, eta haren gestio txarra eta Aldundiaren kontrolik eza salatu dute.




ANDER MONEDERO

# Kolon minbiziari aurre hartzeko beste kanpaina bat abian da Oñatin

**M.B.** | OÑATI

Kolon eta ondeste minbizia goiz detektatzeko kanpaina abiarazi dute Oñatiko anbulatorioan, eta dagoeneko hasi dira etxera gutun pertsonalizatuak bidaltzen parte hartuko duten 2.327 oñatiarrei. Aurkezpen gutun horrekin batera, kaka-lagina hartzeko kita ere jasoko dute etxean. Lagina hartu eta hiru eguneko epean eraman behar da anbulatoriora, eta han horretarako propio egokitu duten hozkailuan laga, aurrez hitzordurik egin barik. Horren ondoren, hamabost bat egunen buruan bidaliko du Osakidetzak probaren emaitza etxera, gutun baten bidez.

Oñatiko anbulatorioko zuzendari Santiago Aietxuk azaldu duenez, emaitza positiboak ez du esan nahi minbizia denik. Kasu horretan, familiako medikuak kolonoskopia egiteko aukera emango dio pazienteari, tratamendurik behar duen arazorik dagoen edo ez erabakitzeko.

Kanpainaren helburua prebentzioa da, eta, horregatik, proba egitearen garrantzia azpimarratu du Santiago Aietxuk. Kanpainaren lehen fasean, duela bi urte, 119 kasu detektatu ziren etxean egin daitekeen proba oso erraz horren bitartez, eta zegokien moduan tratatu ahal izan ziren.

## Debagunek Herri Urratsera joateko autobusak antolatu ditu, eta txartelak eskuragarri daude

Autobusak maiatzaren 13an, domeka, 08:45ean, abiatuko dira Aretxabaletatik. 09:00etan Arrasaten geratuko da; eta, azkenik, 09:15ean bergararrak jasoko ditu. Itzulerako ordua 19:00etan izango da, Senperen. Txartelak 12 eurotan eskura daitezke –bazkideek 10 euro ordainduko dituzte– maiatzaren 10era arte, AED, Jardun eta Loramendi elkarteen bulegoetan.

## Aldundiak bere gain hartuko ditu udalek kudeatzen dituzten eguneko zentro eta zaharren egoitzak

Gipuzkoako 16 zentro eta egoitzari eragingo die aldaketak, eta Gizarte Politikako Departamentuak hiru hileko epean aurkeztuko die proposamena Batzar Nagusiei eta udalei. Eskualdatzea prozesu konplexua izango dela esan du Ander Rodriguezek, Gizarte Politikako diputatuak, eta apurka egingo dutela. Asmoa da zaharren egoitzetatik hastea, horiek kudeatzeak kostu ekonomiko handia du-eta.

## Afrika ikusarazi eta gizarteari gerturatzeko Afrikaren gaineko jardunaldia bihar Arantzazun

Arantzazu, Afrikarekiko Topaleku 2012 izeneko jardunaldia Arantzazuk, TAU Fundazioak, Prolasusek eta Baketik-ek antolatu dute eta helburua da, besteak beste, Europa eta Afrika artean dagoen ezberdintasun egoera hori trasnformatu nahi duen kontzientzia soziala handitzea. Zinemaz, argazkigintzaz eta musikaz baliatuko dira horretarako, 10:30ean.

Irakurle, astelehenean ez da zenbakirik egongo

**Datorren astelehenean, hilaren 30ean, ez da *Asteleheneko Goiena* paperik izango. Hurrengo zenbakia maiatzaren 7an kaleratuko dugu. Ordura arte, irakurle.**



## ZABALIK



**IÑAKI PEÑA**
http://goiena.net/iritzia/

# Dissidenten

Ez, ez dot ezer idatziko Ezenarro, Erostarbe eta Basabe kritikoei buruz, ez naz sartuko politikaren ur handietan… are ur handiagoetan murgilduko naz, ordea! GOIENAren 504. zenbakiak Eutsi Berrituz talde gipuzkoar matxinoaren barri ekarri eban, eta Elexaren esparru ez ofizial horreri buruz ariko naz hain zuzen be (glups!).

Lelengo disidenteak orain dela 500 urte agertu ziren Alemanian (Martin Luther), Holandan (Erasmus), Suitzan (Jean Calvin) eta Eskozian (John Knox), besteak beste, Inkisizinoa eta Elexaren beste gehiegikerien aurka, Humanismoaren alde, apaizen ezkontzen alde edo latinaren ordez lurralde bakoitzeko hizkuntzen alde. Euskal Herrian, adibidez, Joanes Leizarraga kalbinistak Itun Barria euskaratu eban 1571n.

**"Hondamendiruntz eroaten dauan jarrera itxia da buruzagiena"**

XX. mendeko "protestanteak" Elexa Katolikoaren barruan, neurri handi batean, 1970eko hamarkadan eta nagusiki Latinoamerikan piztutako Askapenaren Teologiaren eskutik datoz, tartean Helder Camara, Oscar Romero, Samuel Ruiz, Ernesto Cardenal, Pere Casaldaliga, Hans Küng, Leonardo Boff, Ignacio Ellacuria eta Jon Sobrino.

Gaur egun be ez da falta hierarkiaren aurkako errebelderik, Michele Birch-Conery eta beste 9 andra iparamerikarrek Vaticanori desafiatu eutsien 2005ean eta abadetu ziren Kanadako paraje zoragarri batean.

Jose Antonio Pagola eta Joxe Arregiren ibilbideak be nahikoa ezagunak dira geurean. Eta Pello Zabala ikusi zenduten Xabier Euzkitzegaz ETB1en? Interneten ikus/entzungai dago, saio ederra da. "Eliza Gara", "Kristau Sarea, "Iglesia 2.0", "Justícia i Pau", "Col·lectiu de Dones en l'Església"… Matxino ugari bai, baina gitxiengoan. Buruzagiak bitartean gor eta burugogor, hondamendiruntz eroaten dauan jarrera itxia da eurena, jendarteko gehiengoagaz sekula bat egingo ez dauana. (Oharra: Koldo R Bengoa, Felix Askasibar eta Loli Puenteri dedikauta).

## USTEAK USTE

**EDU MENDIBIL** | emendibil@goiena.com

# Itsasoak badu esperantzarik

Betitik erakarri naute ur azpiko sekretuek, eta ez naiz kazetaritzaz ari, itsas hondoko misterioez baizik. Txikitatik txunditu naute Calypsoren urperaketek, piratek galdutako altxorrek edo Titanicen misterioak. Itsasoarekin lotutako bi istorio harrigarri iritsi zaizkit egunotan, ez itsasora jaurtitako botila baten bitartez, saretik baino: Titaniceko lehen aurkikuntza galiziar marinel batek ohiko sarean harrapatu zuen 1972an, Irlanda inguruan, eta plater harengatik dirutza ona eskaini diote marinelaren familiari; Misaki gaztetxoaren baloiak ere merezi du ondo gordetzea: Japoniako tsunamiaren ondorioz Alaskaraino joan eta orain jabearen eskuetara itzuli dute; hori bai jokaldia!

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | http://goiena.net/iritzia/




## HANDIK ETA HEMENDIK

# Futbolaren argi-ilunak

**Joxe Aranzabal**
http://goiena.net/blogak/faroa/

Aste Santuko oporretan nintzela, *Messi* izeneko liburua irakurri dut, Leonardo Faccio kazetari argentinarrak idatzia.

Gustura irakurri ere, argitu egiten du-eta, dezente, gaur egungo futbol izarrik distiratsuenaren nondik norakoak, nahiz eta Messik 24 urte baino ez dituen.

Horrezaz gain, liburua irakurtzen hainbat datuk eman didate arreta, erakusten baitute futbolaren neurria, onerako eta txarrerako.

Hona hemen zenbait datu, liburutik aterata:

-Munduko hogeita bost herrialdek bakarrik dute futbolaren industriak baino BPG handiagoa (15. or.) [...]

-2010ean lehen aldiz historian, futbol talde bateko jokalariek diru gehiago irabazi dute New York Yankees beisbol taldeak baino, eta Messi da talde horretan gehien kobratzen duena: irabazi zituen hogeita hamahiru milioi euro, horietatik herena soilik futbol jokalari moduan zegokion soldata. (55. or.) [...]

-"Gizakiaren jatorria eta futbolaren etorkizuna Afrikan dago", dio Juan Villorok *Dios es redondo* liburuan, eta Masian gaur badirudi etorkizunean bizi direla. Atzerritar gehienak Kamerungoak dira. (85. or.)

-Masiatik pasatzen diren nerabeen %30ek soilik lortzen dute kirolaren esparruan lan egitea: entrenatzaileak eta fisioterapeutak dira, eta zuzendari tekniko izan nahi dute. Oinarrizko futboleko hamar jokalaritik bi bakarrik iritsiko dira lehen taldera, eta gutxiengo bat iritsiko da futbol jokalari izatera. (86. or.) [...]

-UEFAren arabera, bost mila gazte atzerritarrek amaitu dute Italiako kaleetan noraezean, futbol jokalari izateko itxaropenarekin etorri ondoren, eta urtero Brasil nahiz Argentinatik iritsitako mila bat mutil gaitasun handikoek galdu egiten dute harremana beren gurasoekin Europara joanda kontratu bat izateko promesapean. (114)

-Bartzelonan Messi ikusi izan dute bakarrik eta bermudatan dirua ateratzen kutxazain automatiko batean. Rosarion, berriz, Messi beti da balizko biktima bat. (174. or.)

# Jendaila

**Anjel Lertxundi Esnal**
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Munduko ordularirik onenak ere ezin du historiaren benetako denbora markatu: asmatuko dugu ordularirik garestiena, sofistikatuena, zehatzena, baina trepetak ezin digu esan zein den munduaren ordua, bizitzea egokitu zaigun sasoiaren *sprit* partikular hori. Begiratu Sarkozyri: kanpainaren bete-betean, herriarengandik zein hurbil dagoen erakusteko, irribarrerik gozoena erakutsi eta bostekoak oparitzen hasi zen jendeari. *Bravo, courage, vive la France!* Halako batean, ordea, burutazioren batek kopeta belztu zion, zalantzaren batek begirada ilundu. Bi pauso atzera eman, eskumuturrean zeraman Rolex garestia kendu eta patrikan gorde zuen, bateon batek lapurtuko zion beldurrez. Gero, bostekoak partitzen segitu zuen lapur potentzialez osatutako jendailari.

Sarkozyren Rolexak aparta behar du, bozek berek baino irakasbide semiotiko gardenagoa oparitu baitigu: hautagaiaren ordua eta hautesle gehienena ez datoz batere bat.

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EEGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

# GUTUNAK

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak dira: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak dira: Otalora Lizentziaduna, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

## Zaborraz

**Iulen Romaratezabala**
(Oñati Zero Zabor)
Oñati

Zaborraren inguruko eztabaidak eztanda egin du, eta abisatu ziguten moduan *kartitisa* iritsi da. Ia egunero daukagu hondakinen inguruko albiste, iritzi edo kartaren bat.

"Zikina da", "ezerosoa", "usaintsua", "intimitatea urratzen du"… gisako esaldiak entzun eta irakurri ditugu atez atekoaren aurkakoen aldetik.

Firmak batzen ere hasi dira. Herritar soilak omen, gaikako bilketaren aldekoak. Eta errauskailuaren aldekoak ere bai? Ala uste dute batak ez duela bestearekin zerikusirik? Zein da beraien alternatiba? Bosgarren edukiontzia? Eta honek dakarren errauskailua non? Begi bistatik urrun? Gure zaborrarekin usurbildarrak kutsatzen?

Makina bat herritatik pasa da errauskailuaren mamua (Amasa-Villabona, Urnieta, Txingudi–Irun, Hondarribia… Zestoa …) eta herri horietan guztietan aurkako iritzia azaldu eta lekuz aldatu zuten. Orduan aurkako masa hori lasaitu egiten zen. Baina Usurbilen zezenari adarretatik heldu zioten, beraiek nahi ez zutena besteek ere ez zutela nahi pentsatuz, alternatiba bila hasi ziren. Eta frogatu dute atez atekoarekin posible dela errauskailurik behar ez izatea, ez Usurbilen, ez Oñatin.

Bada bitxia egiten den kontu bat. Atez atekoaren aldekoek behin eta berriz errepikatzen dute atez atekoa bertatik bertara ezagutzeko, jarrita dagoen herrietara joateko, bertako herritarrekin hitz egiteko.

"Zikina, usaintsua, ezerosoa…" argudioen jabeen ahotik, berriz, inoiz ez dugu horrelakorik entzun. Zergatik ote? Zergatik baretu dira urak Usurbil, Hernani, Oiartzun eta Antzuolan sistema hain txarra bada? Ze, jarri aurretik txarra bada, ondoren ere hala izango da, ala? Zergatik PSEk panfletoak banatu zituenean Antzuolan ez zituen banatu? Zaborra murrizteagatik?

Europara begiratzeko esaten digute. 80 kilometroren barruan dauzkagu lau herri, begiratzeko ez, bertatik bertara ezagutzeko.

Ez da gure komodidadeari begiratzeko momentua, zaborraren arazoari behin betiko irtenbidea ematekoa baizik, murriztu, berrerabili eta birziklatuz. Eta birziklatu ezin den hori birziklagarri nola bihurtu aztertu behar da. Hori da zero zabor. Eta esan beharra dago Europa hainbeste aipatzen duten horiei ahaztu egiten zaiela eurek aipatzen dituzten herri horietan organikoa "behartuta" jasotzen dutela.

Eta bukatzeko, esan, Lemoiz gabe azak jaten eta kandelekin biziko ginela esaten zuten berberak direla orain errauskailurik gabe zaborrak jango gaituela dioskutenak.

Orduko sinesgarritasun bera merezi dute.

## Benetan pozgarria denontzat

**Miren Laborda**
(Bergarako San Martin Agirre Herri Eskolako irakaslea)
Bergara

Ikastolak badauka bere tokia eta eskola publikoak berreskuratuko du berea den eraikuntza. Azkenean denok pozik. Ez da nire asmoa berriz ere eztabaidan sartzea, baina nik ere gure eskolako errealitatea islatzen duten datu batzuk eskaini nahiko nituzke.

Aurreko astean ateratako artikuluan esaten da ikastolako obrek irauten duten bitartean ikasleek ez dutela teknologia tailerrik izango, ezta gimnasiorik ere. Gainera, gehitzen da ikasturte zati batean laborategirik ez dela izango eta 750 ikaslerentzat bi informatika gela izango dutela. Benetan penagarria da egoera hori jasan behar izatea; izan ere, guk geuk oso ondo ezagutzen dugun egoera da. Gure eskolak urteak darama toki arazo larriekin, azken urte hauetan Martinez de Iralan dauden hiru gela erabiltzen ditugu gure ikasleak kokatzeko, eraikuntza nagusian kabitzen ez direlako. Horri guztiari beste hainbat arazo gehitu behar zaio: 500 ikasle baino gehiago ditugu eta azken hamarkadan ez daukagu ingeleseko gelarik, ez eta musikako gelarik ere; Irakasle gela bakarra daukagu 50 irakasle baino gehiagok osatutako plantilarentzat; 500 ikasle baino gehiagorentzat informatika gela bakarra daukagu eta Martinez de Iralako gimnasioa konpartitu izan dugu orain arte; ikastolakoek 225 ikaslerentzat goiz guztiak erabiliz (4 ordu), herriko eskolakoek 500 ikasle baino gehiagorentzat arratsaldeak erabiliz (ordu eta erdi).

Penagarria bai azken urteetan jasan izan dugun egoera; hala ere, gure komunitateko partaide guztiek egindako lanari esker gure eskola kalitatearen eredua bihurtu da herriko guraso talde handi baten konfiantza jasoz.

Gu ere irrikatzen gaude gure ikasle guztiek eraikin egokia izateko, gure ikasleek gutxienez ingeleseko gela bat izateko, gure ikasleek musika gela izateko, gure ikasleek laborategiren bat izateko, fisioterapeutak bere lana egin behar duenean tokia izateko, gurasoekin bilerak ditugunean toki egokia izateko, eskolako bizitzan ikasleen partaidetza bultzatzeko egiten ditugun bilerak burutzeko tokia izateko, etab., etab., etab. Eta nola ez, gimnasioa eskolako edozein ordutan erabili ahal izateko, eguraldiaren menpe egoteke.

Horrela ba, hemendik aurrera denok pozik biziko gara; denok izango baitugu aukera gure ikasleei merezi duten duintasuna eskaintzeko.

## Uda bat hamaika irri, euskara giltzarri

**Oier Peñagarikano eta Idoia Ramirez**
(Euskal Udalekuak)
Antzuola

Nork ez du ezagutzen Euskal Udalekuetan umetan ibili den lagunik? Edo nork ez dauka bere denbora librea Euskal Udalekuei eskaini dion ezagunik? Nork ez du noizbait Goñiko Dorrekoako katutxoarekin amets egin? Nor ez da ibili Bernedoko landetan ero-ero? Nor ez da Urdirotzeko errekan bainatu? Edo Abaigarreko askara sartu?

Nik badaukat lagun bat umetan Euskal Udalekuetako txanda guztietan ibili zena: Urdirotzen, Goñin, Bernedon eta Abaigarren egon zen. Berarentzat uda heltzea eta Euskal Udalekuetara joatea bat zetozen; ez zegoen Euskal Udalekurik gabeko udarik. Handi egin zenean, begirale lanetan hasi zen; non eta Euskal Udalekuetan. Ez zuen sosik kobratzen, baina ez zitzaion inporta; berak txikitan jaso zuena bueltatu nahi zuen, umeei sentiarazi nahi baitzien berak txikitan bizi izan zuena.

Aurtengo uda ere heltzear dago eta, 1965. urtean lehenengoz egin zen moduan, dagoeneko bagabiltza udaldia ilusioz prestatzen. Aurten ere, Abaigarren, Bernedon eta Goñin uda ahaztezina biziko dugu *euskaratik eta euskaraz*.

Guk badakigu zer sentitzen eta bizitzen den gure udalekuetan. Ondo pasatzea, maitatzea, ikastea, laguntzea… dira urte hauetan guztietan jaso dugun ordaina. Inolako interes ekonomikorik gabe, lan egiteko prest dagoen lantalde paregabea gara. Ordainetan, Euskal Udalekuen magia jasotzen dugu; norberaren azalean sentitu gabe, kontatu edo deskribatu ezin daitekeena. Eta, zuk, probatu nahi duzu Euskal Udalekuen magia?

## Intxorta, 75 urte

**Juan Ramon Garai**
(Intxorta 1937 kultur elkartea)
Arrasate

Orain 75 urte, elgetarrek eta Intxortaren magalera borrokatzera etorritako milaka miliziano eta gudariek, zazpi hilabetez, 1936ko irailetik 1937ko apirilera arte gerra guztien aurpegi bortitzena jasan zuten: ankerkeria. atxiloketak, fusilamenduak, sorgin ehiza, emakumeekiko errepresio basatia, bortxaketak, behartutako lanak…

Bonba tona ugarirekin Elgeta suntsitu, eta bederatzi urte geroago konpondu zuten udaletxearen eraikina, etxean berriz, askoz ere geroago.

Baina gogorrena, 75 urte pasatu eta gero, oraindik inork barkamenik eskatu ez izana da.

Elgeta eta bere inguruak Euskal Erresistentziaren eredu izan ziren. Matxinatuek eta bere aliatuek, alemaniar, italiar eta mairuekin ezin izan zituzten hemengo lubakiak gainditu.

Mola eta Camilo Alonso Vegaren tropek beraien erasoaldietan behin eta berriro jasan behar izan zuten porrota.

Militar profesionalen aurrean, gudari eta milizianoen buruzagiak zibilak ziren: Felipe Bediaga, Pablo Ugarte, Segundo Olazagoitia, Patxo Gorritxo, Felix Casero, Pablo Beldarrain… gudari eta milizianoen armarik onena Askatasunaren Irrintzian sinestea izan zen.

Horrenbestez, apirilaren 22an Intxortako Atean omenaldia egin zitzaien gerran zehar hildakoen senideei eta hain era heroikoan Elgetako sektorean aritutakoei honako batailoi hauetan:

Euskal miliziak, Euskal Milizia Antifaxistak, Milicias Populares, Amuategi, ANV I Olabarri, Arana Goiri, Regimientos Vascos de Artilleria (artileria astun eta arina, 2. eta 3. erregimentuak), Azaña, Castilla, Compañia Roja Alza, Dragones, Ibaizabal, Brigada Internazionalistak, Itxasalde, Kirikiño, Larrañaga, Loiola, MAI IRRINTZI, Martiartu, Muñatones, Otxandiano, Pablo Iglesias, Rusia, Saseta (metrailadoreen konpainia), UHP, Zabalbide, UGT13 Martinez Aragón edo Barakaldo, CNTren 1. zulatzaile-minatzaileen batailoia, CNT-8 babeslekuen ingeniariak, Eusko Gudarostearen 2. zulatzaile minatzaile batailoia, Zulatzaile-minatzaileen Matxin konpainia, 15. zulatzaile-minatzaile batailoia, Intendentziaren Delegaritza, Osasungile eta gasaren kontrako gudaren delegaritza, guda garraioaren delegaritza, arma eta munizio delegaritza.

Ezinbestekoa da iraganaren berri izatea, oraina ulertu eta etorkizuna eraikitzeko.

## Kazetaria eta kritikak

**Aitor Ugalde**
Oñati

Badira egun batzuk aurtengo Euskal Herriko Itzulia Oñatin amaitu zenetik.

Itzulia Oñatin izan zen bi egunetan izandakoaren balorazioak ere egin dira, positiboak orokorrean. Oñatiko antolatzaile batzuk, ordea, kexatu egin dira ETBko kazetari batek erlojupekoaren zuzeneko emanaldian esandakoengatik eta kritikatu egin dute kazetari horren jarduna. Aipatu kazetariak kritikatu egin zuen erlojupekoa egiteko aukeratutako zirkuitua; ez zen bakarra izan kritika hori egiten, baina bai, ziurrenik, oihartzun handiena izandakoa.

Antolatzaileek zilegitasun osoa daukate kazetari hori edo beste edozein kritikatzeko, baina kazetari honi buruz esan diren hainbat gauzarekin nire desadostasuna azaldu nahi dut.

Esan da kazetariak bere iritziekin Oñatiko herria kritikatu zuela eta ez zuela aintzat hartu egun horretan lanean aritu zirenen ahalegina, baina ez dut uste, inolaz ere, hori horrela denik.

Zirkuitua kritikatzerakoan erlojupekoa zirkuitu horretan egitea erabaki zutenak kritikatzen dira (Organizaciones Ciclistas Euskadi elkartea) eta ez Oñatiko herria, inondik ere ez lanean aritutako boluntarioak eta ezta Oñatiko talde antolatzailea ere (lan bikaina egin zuena, esan behar da), zirkuituari buruzko azken hitza Itzulia antolatzen duen OCE elkartearen zuzendaritza teknikoarena baita.

Uste dut kazetari honen profesionaltasuna ez dagoela zalantzan jartzerik, bizitzan sortzen diren aldapa gogorrak ausardiaz gainditzuz urteak daramatzalako bere lana zuzentasunez eginez, eta are

>

gehiago txirrindularitzaren munduan, nahiz eta hainbatetan bere iritziak ez izan askoren gustukoak.

## Aintzane Oiarbideri erantzuna

**Ander Lizarralde Lizarralde**
Oñati

Aurreko ostiraleko GOIENAn, nik idatzitako gutunari buruz esaten zenituenei erantzun nahi nieke.

Nik idatzi nizun eskutitzaren harira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala aipatzen duzu: "Adierazpen askatasuna oinarrizko giza eskubidea da", idatzi duzu. Lehenik eta behin esan nahi nizuke nik nire eskutitza idaztean Giza Eskubideen Adierazpen hori aplikatu besterik ez nuela egin. Ala zure iritziak "bihotzetik ateratzen zaizkizun sentimenduak" dira eta nireak "erantzun gogorrak"? Horrez gain, gogorarazi nahi dizut 2012ko urtarrilaren 30ean Bergarako Udaleko plenoan herritar batzuek pankarta bat atera zutela *PNV diruzaliak, PNV txikitzaile* zioena eta horren aurrean, zuk, Aintzane, zera esan zenuela Bergarako alkateaz: "… ez luke karguan jarraitu behar horrelako gertakariak onartzen baditu". Azkenik, komeniko litzateke bereiztea alde batetik adierazpen askatasuna eta bestetik, zuek (PNV eta PSOE batez ere) *Diario Vasco* egunkarian (batez ere) eguna joan eta eguna etorri atez atekoaren gaiarekin bultzatzen ari zareten kanpaina bortitza, manipulazio eta intoxikazio mediatiko hutsean oinarritzen dena eta ez duena, nik dakidala, inolako zerikusirik Rousseauk eta Voltairek aldarrikatzen zuten adierazpen askatasunaren printzipioarekin.

## Isilik ez

**Pedro Sologaistoa, Jose Antonio Amundarain, Jabi Altube eta Jabier Arana**
(Oñatiko LAB Erretiratuak)
Oñati

Berriz ere jubilatu eta langileen bizkargainera datoz kapitalismoaren basakeriak. Lehen PSOEren gobernua zen eta orain PPrena da Europako eta Espainiako kapitalisten interesak zaintzeko asmoz dekretazoz dekretazo eta gupidarik gabe behartsuenak itolarrian uzten ari direnak.

Bizimoduari aurre egiteko gure pentsioak gero eta gutxiago balio dutenean eta osasunez ondo egoteko edade txarrenean sartu garenean, botikak gure poltsikotik ordaintzera behartu nahi gaituzte madarikatu hauek, eta ondoren kabezerako mediku eta espezialistaren kontsulta eta ospitaleko ingresoa ere bide beretik ei datoz, zerbitzu horiek ordaindu egin beharko ditugula alegia.

Edadearen eraginez gaixotasunak ugaritzen hasten direnean eta osasun zerbitzuetara gazteagoak izan ginenean baino sarriago joan beharra daukagunean, lehen estututa zegoen gerrikoa gehiago estutzeko neurriekin datoz PP eta orokorrean sistema kapitalista defendatu eta haren babesean eroso bizi den jendilaje guztia.

Hemen, gurean, hiru probintzietako Jaurlaritza Nafarroako Gobernuarekin batera ez ei dauka zereginik botikak ordainarazi nahi dizkigun dekretuaren aurrean eta Lopez-Barcina bikotea Euskal Herriko langile eta pentsionisten borrero izango da oraingoan ere.

Askotan eskatu dugu LABetik hemen bertan erabaki behar direla osasun arloko eta gainontzeko politikak, eta ez Madrildik. Lan egin dezagun Euskal Herriko pentsionista guztiok gure bizi-baldintzak ez daitezen ondoratu eta esna gaitezen jubilatu-etxeetako lozorrotik eta atera dezagun kanpora, plaza-erdira, gure haserrea. Demostra dezagun ez gaudela isilik geratzeko asmotan.

## Murrizketen aurka burujabetza, ostiralean ere kalera

**Ibai Redondo**
(Bergarako Ezker Abertzalea)
Bergara

Murrizketen sokak ez du etenik. PSOE eta PNVk pentsioen erreforma eta lan erreforma burutu zuten orain hilabete batzuk. PPk Madrilgo gobernua lortu ondoren murrizketa hauetan sakondu eta eskubide sozialen zapalketa inoiz ezagutu dugun handiena izaten ari da: lan baldintzak; administrazio publikoa; pentsioak; laguntza sozialak; fiskalitatea eta amnistia fiskala dirudunentzat;… eta orain hezkuntza eta osasun publikorik gabe utzi nahi gaitutze!

Argi dago, planto esateko garaia da Bergaran eta Euskal Herri osoan. Badirudi greba orokor bat ez dela nahikoa; bada, jakin dezatela herria aurrez aurre izango dutela… egunero!

Alternatiben garaia da. Gaur egun euskal herritarrok inoiz eta inon onartu ez ditugun instituzioetatik gauzak egin daitezke eta zenbait instituziotatik horretan ahalegintzen ari gara: fiskalitatean aldatu dezakeguna aldatu, dirudunek gehiago ordaindu dezaten eta aberastasuna banatzeko; aurrekontuak makroproiektu txikitzaileetara (AHT, erraustegia, super portua) bideratu beharrean proiektu sozialetara eta ekonomia produktibora bideratuz (Gipuzkoa Saretzen); etab. Baina egoera honi buelta emateko burujabetza osoa behar dugu, erabakitzeko eskubidea behar dugu. Nazio bat gara, hemen bizi gara eta bertan erabakitzeko eskubidea behar dugu: ekonomia herritarren zerbitzura eta ez multinazional eta banketxeen zerbitzura antolatzeko; Euskal Herriko aberastasuna euskal herritarren artean banatzeko; gizon eta emakumeen aukera berdintasuna lortzeko; garapena natura errespetatuz egiteko; etxebizitza eta lan eskubideak bermatzeko; osasuna eta hezkuntza benetan publikoak eta euskaldunak izan daitezen;…Ametsak? Bai, zera! Euskal Herria oso aberatsa da (*renta per capita* Europako altuenen parekoa da), baina aberastasuna banatu eta ongi administratu beharra dago (horretan azkenengoak gara).

Horregatik, Bergarako gazteek aste honetarako eta bereziki ostiralerako deitu dituzten mobilizazioekin bat egiten dugu. Gazteen eta beste guztion etorkizuna dago jokoan. Murrizketei indar guztiz erantzuteko garaia da, mobilizatzeko garaia da, independentzia lortzeko garaia da. Ezker Abertzalearen konpromisoa da etengabeko mobilizazioa, herritarrekin batera alternatibak aurkitzea eta praktikara eramatea. Ostiralean, 7etan, denok plazara.

## Maiatzaren Lehena: krisia emakumeengan

**Maipi Urteaga**
(Andraitz)
Oñati

Maiatzaren Lehena oso testuinguru berezian dator, krisi ekonomiko bete-betean, astetik astera erabaki eta murrizketa berriak inposatzen ari zaizkigu; azkenak, osasungintzan eta hezkuntzan.

Hartzen ari diren erabakiak politikoak dira eta ez ekonomikoak, gezurra da politika hauek direnik egin daitezkeen bakarrak, ez da egia gobernuak derrigortuak daudenik, eta, are gutxiago, horrela krisitik noizbait aterako garenik.

Egia da erasoaldi hau langile guztion kontrakoa dela, baina emakumeon kasuan bereziki da lazgarria.

Enplegurik prekarioenak emakumeoi zuzendu ohi dizkigute, soldata baxuen eta lan baldintza kaxkarrenekin. Gizon eta emakumeen arteko soldata desberdintasuna %22koa da Hego Euskal Herrian, kontratu partzialen %85 emakumeok betetzen ditugu.

Emakumeen langabezia tasa gizonena baino handiagoa da; emakume asko prestazio sozialen jasotzaileak dira, instituzioek murriztu duten lehenbiziko gauza; bankuek euren etxeetatik botatzen dituztenen artean, kopuru oso altua emakumeak dira, asko seme-alabadunak…

Zerbitzu publikoen pribatizazioak emakumeoi bereziki kaltetuko gaitu, alde batetik eskuratzea lortu dugun enplegu duin bakarrenetakoa sektore publikoan izan delako, osasungintzan, administrazioan edota irakaskuntzan. Sektore publikoan enplegu suntsitzeak emakume askoren kaleratzea suposatzen du, honen pribatizazioarekin familian hainbat premia sustengatuko dira, hala nola zaintza lanak, hauek emakumeon bizkar geldituko dira.

Emakumeok eredu berri bat behar dugu, emakumeon egoerari erantzuteko modu bakarra emakumeon eskakizunak jasotzea da eta, horretarako, emakumeok parte hartu behar dugu. Eraiki behar dugun alternatiba politiko eta sozialean gure ahotsak eta gure erabakiak presente egon behar du eta errespetatua izan behar da.

Emakumeok jendartearen erdia izateaz gain, jendarteak aurrera egiteko behar-beharrezkoak gara.

## Maiatzaren Lehena: lotu borrokari!

**Ana Sebal, Jose Ramon Kortabarria eta Ander Gallego**
(LAB sindikatua)
Bergara

Martxoaren 29an Euskal Herri osoa irten zen kalera. Gure herriak hiru urtetan burutu duen laugarren greba orokorra izan da. Eta orain zer? Euskal langileria osoa antolatu egin gara, elkarrekin borrokatu gara eta erabaki egin dugu: inposaketa gehiagorik ez! Murrizketa gehiagorik ez! Orain errespeta dezatela argi eta ozen aldarrikatu duguna.

Bestelako Euskal Herria eraiki nahi dugula adierazi dugu: aberastasunaren eta lanaren banaketa justuan oinarrituta, kalitateko enpleguaz, sektore publiko sendo eta eraginkorraz, osasun eta hezkuntza unibertsalaz, babes sozialaz, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasunaz... eta, denaren gainetik, erabakiak herritarrok hartu behar ditugula aldarrikatu dugu. Orain errespeta dezatela.

Bide bakarra dago sartu nahi gaituzten zulo honetatik irteteko: Euskal Herria eta euskal herritarrak burujabeak izatea, burujabeak merkatuen diktaduraren aurrean, burujabeak estatuen inposaketen aurrean. Galdutako boterea berreskuratu behar dugu, botere politikoa eta botere ekonomikoa, herritarrok erabakitzeko boterea, hain zuzen. Baina boterea berreskuratzeko borrokatu egin behar da, esparru guztietan eta egoerari buelta eman nahi dioten guztiekin batera, gehiengoa garelako aldaketa nahi dugun herritarrak. Gure eskubideak errespeta ditzatela.

Momentua da bestelako Euskal Herria erabakitzeko. Patronalaren asmoak lantokiz lantoki eta sektorez sektore gelditzeko, bankari gure bizitzekin ez dela jolasten argi uzteko, instituzioak herritarron zerbitzura eta ez kapitalaren mesedeetan kokatzera behartzeko, Iruñeko eta Gasteizko gobernuak sukurtsal espainol hutsak izateari uztera behartzeko. Ez dute sekula lortuko euskal langileria burumakur eta etsituta ikustea. Gure erabakia errespeta dezatela.

Aurtengo Maiatzaren Lehena oso testuinguru berezian dator, krisi ekonomiko bete-betean, astetik astera erabaki eta murrizketa berriak inposatzen ari zaizkigunean; azkenak egunotan, osasungintza eta hezkuntzan. Hau dela eta, LAB sindikatuak aurten manifestazioak eskualdeka burutuko ditu, gobernuetatik ezartzen ari diren neurri eta erabakiak pairatzen eta borrokatzen dituzten herritarrak bizi diren tokietan, hain zuzen ere. Maiatzaren Lehena, jaieguna izanda ere, aldarrikapen eta borroka egun bezala ere ulertzen dugu; beraz, eguerdiko 12etan Eibarko Untzaga plazatik irtengo den manifestazioan parte hartzeko deia luzatzen dizuegu. Langileok Euskal Herria eraikiko dugu!

## Autobus egokituak

**Aitor Biain Umerez**
Oñati

Angel Garitanori eta Mikel Biaini eskaera. Oñatiko gutxituen kolektiboko kidea naiz eta eskaera honekin natorkizue. 18 gutxituk osatzen dugu taldea eta aspaldidanik ari gara Pesa Garraioak enpresarekin borroklan autobus egokitua lortzeko, 18 horietatik 10 oso urrituak baitira; hori dela-eta jotzen dut zuengana. Hori gutxi balitz, Lanbusa zegoenean, Ulmari eta Fagorri garraio egokitua jartzen zitzaien, eta zergatik jarri behar zaie autobus egokitua ahalmen guztiak ondo dituztenei, ezinduak baztertuta utziz? Hori berriz pasa ez dadin zerbait egitea exijitzen diet erakunde publiko guztiei.


TORRA+PORTELLA
Zure Tekno sofa baino leku hoberik ez duzu interneten ibiltzeko. Bere eserleku irristagarriekin, eta sofak berak duen argindar-hartunearekin, bateriarik gabe gera ez zaitezen, erosotasun guztia ematen dizu. Izan ere, Kibuc-en altzariak eta osagarriak zure bizitzeko moduaren neurrira egindako konponbide moduan ulertzen baititugu. Zuk egiten duzu Kibuc.
ZU on-line zaude
zuk egiten duzu kibuc
Zuri bizitza errazteko aukerak
gutxieneko prezioa bermatuta
1.369 €
114,10 € x 12 hilabete interesik gabe*
Irristagarria
Bizkar etzangarria
KIBUC Gure Ametsa
Landeta Hiribidea 1, Azpeitia Tel. 943 15 16 81 gureametsa@kibuc.com
www.kibuc.com
Proiektu eta eraberritze integralak
KIBUC
altzariak eta osagarriak
Azkenean etxean
Tekno sofa Erosotasun eta teknologia proposamena. 3 lagunentzako sofa eta chaiselonguea Claudia 9 ehun grisean. Neurriak: 270/165 zm. Eskuz mugi daitezkeen eserlekuak eta buruko etzangarriak ditu. Motorrak jartzeko aukera dago (2 eserlekurentzat, 240 euro).
Adierazitako akabera eta neurrietarako balio duen prezioa. Ehun eta kolore aukera handiagoa ere badago (Brontzea eta Sustapena serieak). BEZ barne. *Finantza-erakundeak ontzat emateari baldintzatua.

**Zigor Etxeburua** | Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskara zuzendaria

# "Foru Aldundiarekin harremanak euskaraz izan nahi duten herritarren errolda egin nahi dugu"

- Errenta aitorpena egiteko sasoia aprobetxatuz, kanpaina berezia abiatu du Diputazioak
- Galdetuko diete 400.000 zergaduni ze hizkuntzatan egin nahi duten errenta aitorpena

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Errenta aitorpena egiteko sasoian gaudenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak kanpaina bat abiarazi du herritarrek Diputazioarekin harremanak euskaraz izan ditzaten. Kanpainaren gaineko azalpenak eman ditu *Goiena magazinea*-n Zigor Etxeburuak, Foru Aldundiko Euskara zuzendariak. Kanpainaren gaineko zehaztasunez gain, euskararekin lotutako beste kontu batzuk ere jorratu ditu.

**Foru administrazioarekin harremanak euskaraz egitea planteatzen duzue. Orain hori ez da posible?**

Bai, posible da eta edonork egin dezake eskaria, orain abiatu dugun kanpainari itxoin barik. Baina bai esan nahi dut orain sistematizatu egin dugula, eskari gehiago izan ditzagun.

**Errolda bat osatzen ari zarete, ezta?**

Bai; azken finean, zerrenda bat behar dugu. Lagunen arteko afaria egiten dugunean eta kafea hartu behar dugunean, zerrenda egiten dugu, bakoitzak zelakoa nahi duen jakiteko. Bada, hemen berdin. *Zerrenda, errolda* edo nahi den moduan deitu, baina herritarrek egin duten hizkuntzaren hautua datu base batean biltzea ezinbestekoa da; ondoren, harremanak haiekin aukeratutako hizkuntzan egiteko.

**Errenta aitorpena izango da hasierako bidea?**

Foru Ogasunetik galdetuko die, ia 400.000 zergaduni, ze hizkuntzatan egin nahi duten errenta aitorpena. Eta guk baliatu nahi dugu hori, herritarrek harremanak Ogasunarekin ez ezik, Foru Aldundiko departamentu guztiekin ere egin ahal izateko.

**Autolikidazioa jasotzen dutenei ez die eragingo kanpaina honek?**

Ez. 160.000 lagunengana helduko gara zuzenean, eta galdera zuzena egingo diegu haiei. Baina autolikidazioak etxera ailegatzen direnean, etxeko zergadunen batek erantzuten du. Kontua da datua baliatu ahal izateko ezin dezakegula ziurtatu erantzuna eman duena zergaduna bera denik, Datuen Babeserako Legearengatik.

**Errentarik egiten ez dutenek eta autolikidazioa jasotzen dutenek Foru Aldundira joan beharko dute?**

Dagoeneko egin dezakete eskaria, bai. Pertsona orok egin dezake hori. Baita enpresek ere. Arrasateko Udalak, esaterako, urteak daramatza eskatzen harremanak euskaraz egitea Foru Aldundiarekin. Eta dagoeneko bide eman diogu horri.



Zigor Etxeburua, martitzenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

**Jendaurrean lan egiten duten Aldundiko langile guztiekin izan ditzakegu harremanak euskaraz?**

Gaur egun, gutzi-guztiekin, ez. Hori hala da, baina aldatzeko bidean da. Aldundiaren konpromisoa da 2015erako gurekiko harremanak norberak nahi duen hizkuntzan egin ahal izatea. Sail guztietan. Jendaurreko lanpostu erdaldunak euskalduntzeko bidean ari gara.

> "Arrasateko Udalak, esaterako, harreman guztiak euskaraz ditu Aldundiarekin"

> "Jendaurreko lanpostu erdaldunak euskalduntzeko bidean ari gara"

**Euskara hutsezko harremana aipatzen denean, askotan, beldurtu ere egiten gara.**

Ausartzera gonbidatuko nituzke gipuzkoarrak. Erronkari eustea. Bestalde, nahiko nuke kendu susmo edo uste hori. Baditugu urteetako esperientziak. Gure gurasoek ikastolak sortu zituztenean, ikasi, gaztelaniaz egiten zen, eta hasi ziren euskaraz ikasten, gurasoekin batera, eta gurasoak ohitu ziren euskara beste esparru batean ere erabiltzen. Eta orain ere egingo dugu. Gainera, erakundeetan ahalegin berezia egin da hizkuntza, teknikoa izanda ere, ulergarriagoa izan dadin. Gaur egungo testuek ez dute zerikusirik lehenagoko testu korapilatsu haiekin. Are, gehiago, batzuetan, euskarazko testua ulergarriagoa da gaztelaniazkoa baino.

**Aldundia euskaratzeko ere balioko du plan horrek, ezta?**

Bai, zalantzarik gabe. Herritar askok aukeratzen badu harremanak euskaraz egitea Aldundiarekin, erakundeak berak ere bere ekipoa, bere lan jardunak… prestatu beharko ditu eskari horiei erantzuteko. Ez da bakarrik norberaren erronka, baizik eta Aldundiari egiten diogun zirikada ere bai.

> "Egungo testuek ez dute zerikusirik lehenagoko testu korapilatsuekin"

> "Euskarazko hedabide eraginkorrak behar ditugu"

**Kritikak jaso ditu planak, sozialisten eta popularren aldetik batik bat. Baztertzailea adela diote.**

Bi alderdi horietatik bultzatu den asmo txarreko kanpaina horrek haserrarazi gaitu. Gauza itsusiak esan dira, nazismoarekin eta faxismoarekin lerratu nahi izan gaituzte, eta hori ez dugu inolaz ere onartuko, eta jakinarazi diegu haiei, gainera. Urteetan herritarrek, erakundeek, egin duten lana eta normalizazioaren gainean lortu dugun adostasun soziala pitzatu nahian dabiltza. Ez dakit nahita edo oharkabean egin duten. Oharkabean egin badute, kezkagarria da; nahita egin badute, larria.

**Bestalde, Euskararen Plan Estrategikoa egin du Aldundiak. Zertarako?**

Lehendik egina zen plana berritzea izan da helburua. Herritarrei zabaldu eta eguneratu egin dugu. Emaitzak ez dauzkagu esku artean oraindik. Emaitzen berri eman nahi diegu herritarrei. Eta, gero, gogoeta edo aholku emaile lantalde bat sortzea da asmoa, gure lanaren jarraipena egiteko.

**Euskarazko hedabideak ere ari dira gogoeta egiten, Aldundiarekin batera. Ze lortu nahi da?**

Eraginkortasuna. Behar ditugu euskarazko hedabide eraginkorrak. Agian, kopurua baino gehiago, behar dugu eraginkortasuna, funtzionatzeko moduak… Ez beti baliabide eskasekin aritzea. Garaiari erantzuten dioten hedabideak behar ditugu. Ahalmenak konpartitzea da helburua, eraginkorragoak izateko. Uste dut bide horretatik ari zaretela, eta pozten naiz, gainera.

**Euskarazko tokiko telebistei dagokienez ere badituzue esku artean asmo berriak, ezta?**

Bai. Tokiko telebistak elkarrekin aritzeko eta produktu komunak egiteko, egitasmoak, laguntzak, bideratu ditugu. Horretara gonbidatu nahi ditugu lurraldeko euskarazko tokiko telebistak. Eta, hasteko, Gipuzkoako berrien albistegi bat egitea da helburua. Gipuzkoa Donostia baino gehiago dela islatu nahi dugu. Gure asmoa da herrialdeari ematea daukan pisua eta hori euskaraz egitea Hiribururik euskaldunena da gurea, baina herriek egiten dute euskaldun lurraldea.

# Muruamendiaraz, Debagoieneko ospakizunak eztitzen

## Bailarako Ogiberri okindegietan Muruamendiarazen produktuak saltzen dituzte | JOSE BERNAOLA DOISTUA

Muruamendiarazek urte asko daramatza Debagoienean kalitatezko produktuak eskaintzen. Sorreratik hona, Policarpo Muruamendiaraz, andrea eta seme-alabak pastelak, pastak, opilak eta tartak eskaintzen ahalegindu dira beti, produktu horiek guztiak ohiko errezetan eta sekulako kalitatean oinarrituta.

Gaur egun, Ogiberrirekin sortutako integrazioagatik, hau da, 75 urte baino gehiago duen okin eta gozogile ohituragatik, Muruamendiarazen produktu gozo-gozoak zuen artera eramatea lortu dugu, bai Muruamendiarazeko gozotegietan, bai Debagoieneko Ogiberri okindegietan: Arrasate, Oñatin, Bergaran, Aretxabaletan eta Eskoriatzan, eta baita Eibarren eta Elgoibarren ere.

Gure maisu pastelgileak eta gure produktu guztietan erabilitako osagarriak dira gure oinarrizko bi zutabe. Haiei esker, edozein ospakizunetan egundoko gozamena sortzen dugu tarta baten edo beste produktu baten bitartez.

Ohiturari eusteak, prozesuetatik begiratzeak eta gure produktu guztietan jartzen ditugun mimoek bermatzen dute gozogintzatik ateratzen denak gure bezero guztiak beteko dituela. Muruamendiarazek eta Ogiberrik topagune bat izan nahi dugu auzoko bakoitzaren lagun guztientzat, gure bezero guztiek tratu berezia har dezaten eta etxean bezala senti daitezen. Gure pastelak, pastak eta tartak betikoak baitira, Debagoieneko etxe eta ospakizun guztietan urteak daramatenak.







Juan Juarez, Muruamendiarazeko maisu pastelgilea. | JOSE BERNAOLA DOISTUA





Bestalde, Muruamendiarazen ezaugarri berezia aipatu nahi dugu. Debagoien osoan gure pastelek, pastek eta tartek, edozein Muruamendiaraz edo Ogiberriren dendatatik aterata, etxe eta laneko ospakizun eta gertaera apartekoetan parte hartu dute betidanik, eta ospakizunen partaide bilakatu. Hori dela eta, ospakizun baterako gure produktuak prestatzen ditugun bakoitzean, produktu soila baino gehiago dela badakigu. Gakoa da produktua, ospakizuna arrakasta bihurtzea duen elementua, eta horregatik ematen diogu horrenbesteko garrantzia elaborazioari. Azken finean, pastela saltzen dugun guztietan gu geu gara zerbait garrantzitsuagoren partaide, eta, gure ekarpen apalarekin, edozein ospakizun gozatzen lagundu nahi dugu.

**Muruamendiarazek urte asko darama Debagoienean produktu gozoak eskaintzen**

**Gure maisu pastelgileak eta gure osagarriak dira gure bi zutabe nagusiak**

**Jaunartze eta ezkontza tartak, artisauak, pertsonalak eta apartak ditugu**

Adibide moduan, hor dauzkagu jaunartze eta ezkontza tartak, artisauak, pertsonalak eta apartak. Gure pasteletako batekin, seme-alaben, andrearen edo senidearen egun berezi hori gero eta apartekoagoa izango da. Horregatik, gure pastelak, nornahi bezala, berdingabeak dira, eta ospakizun bakoitza ere bai.

Kontu txiki guztiok dira egungo lanean bultzatzen gaituztenak, ahaleginak egiten eta gure nortasuna mantentzen ziurtatuz. Gure bezeroen neurrira dauden produktuak eskaintzeko, gure seme-alabei, senideei eta lagunei barre eginarazteko haien ospakizunetan edo oparitxoa baino gehiago izan daitezen pastak eta pastelak ateratzen.



# HERRIAK

BERGARA

# Bergarako kontsumo taldeak: barazkiak, baserritik kalera

## Hiru kontsumo taldek dihardute lanean, garaian garaiko produktu ekologikoak banatzen

**MIREIA BIKUÑA** | BERGARA

Gipuzkoako EHNEk eta Biolurrek bultzatutako ekimenaren haritik sortu zituzten Bergarako kontsumo taldeak, eta egun, hiru kontsumo talde dituzte herrian: Alain Etxeberriarena, Loidi baserrikoa eta Gaizka Olabarrietarena. Azken hori taldea sendotu guran dabil. "Arrasaten talde bat daukat. Orain, Angiozarko Zuloeta baserriko ekoizlearekin batera, taldea errotu gura dut Bergaran. Proiektua sendotzeko kontsumitzaileen parte-hartzea ezinbestekoa da. Eguazten arratsaldeetan banatzen ditugu otarreak azokan", esan digu Olabarrietak.

Bada, nola funtzionatzen dute kontsumo taldeek? Herritarren eta baserritarren arteko hartu-emana bi aldeen beharrak asetzen dituen elkar-trukean gauzatzen da: baserritarrak, astero, berak ekoitzitako barazkiz eta bestelako produktuz osaturiko otarre bat prestatzen du eta toki eta ordu zehatz batean taldeko kideei eramaten dizkie. Bergarakoen kasuan, azokan izaten dute topaleku, martitzen, eguazten, eguen eta egubakoitzetan. Kontsumo taldeekin hartu-emanetan ipintzeko, mezua bidal daiteke *bergarako@gmail.com* helbidera.




Bergarako kontsumo taldeetako kideak azokaren kanpoaldean. | BASHERRI

**Bertakoak eta ekologikoak**

Hasieratik dago kontsumo taldean Alain Etxebarria ekoizlea. "Guregana etorri ziren ekoizle izan gura genuen galdetzera, eta animatu egin ginen. Hasierako ekimena EHNErena eta Biolurrena izan zen", esan digu.

Behin taldean sartuta, gustura dihardutela esan digu, nahiz eta "lan gogorra" dela esan. "Gogorra dela diot, ortuko lana gogorra delako. Zortzi orduko lan jarduna baino askoz gehiago delako. Baina, egia esan, gustura gaude. Esperientzia ikaragarria da bezeroekin eta beste taldeetako kideekin hartu-emana egin dugulako. Gainera, etxean egindako produktu ekologikoei irtenbidea emateko aukera daukagu. Gure sektorean bizirik irautea oso zaila da, eta halako taldeek aukera hori ematen digute.", esan digu.

ESANAK

> **"Etxean produktu ekologikoei irtenbidea ematen diegu"**
>
> ALAIN ETXEBARRIA | EKOIZLEA

> **"Taldeko kide izatea ez da astero otar bat jasotzea bakarrik"**
>
> LANDER JUARISTI | KONTSUMITZAILEA



Gaizka Olabarrieta, Zuloeta baserriko otarrekin. | GAIZKA OLABARRIETA

**Otarre bat baino gehiago**

Kontsumo taldeen bigarren zutabe nagusia kontsumitzaileak dira. Loidi baserriko otarre erdi hartzen du astero Lander Juaristik. "Behar pertsonaletatik abiatuta konturatu ginen aukera gutxi genuela bertako produktuak kontsumitzeko. Ezaguna den ekoizle baten ortuko garaian garaiko produktu ekologikoak kontsumitzeko aukera aztertu, eta animatu egin ginen", esan digu.

Kontsumo taldeko kide izateak onura asko dituela azpimarratu digu. "Alde batetik, jateko era aldatu dugu. Badakigu zer jaten dugun eta nondik datorren produktu hori. Egun, Loidi baserriko intxaurrak jaten ditugu, eta orain arte, Frantziatik ekarritakoak. Beste alde batetik, ekoizleen errealitatea ezagutzeko aukera izan dugu. Gainera, gure ekoizleekin hartu-eman zuzena daukagu. Kontsumo taldeko kide izatea ez da astero otarre bat jasotzea bakarrik. Hartu-eman sendoa sortzen da. Kontsumitzaile moduan ez ditugu bakarrik barazkiak jasotzen. Beste produktu batzuk eskaintzen dizkigute: haragia, ogia, fruituak...", dio Juaristik




BEDOÑABE HAURRESKOLA (0-2 urte)

**Matrikulazio epea zabalik: Maiatzaren 2tik 11ra**

**NON:** Bedoñabe Haurreskola • Alfonso VIII, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 76 86
*bedonabe.arrasate@haurreskolak.net*

**NORENTZAT:** 2011-12an jaiotakoentzat.

Haurreskolak

# Hondakinen kudeaketa lantzeko herri-kontseilua

## Eragileen eta herritarren kontseilua sortu gura du Udalak, iritzi eta proposamenak jasotzeko

UBANE MADERA | ARRASATE
"Eragileek iritzia ematea eta proposamenak egitea" helburu duen kontseilua sortu gura du Udalak, hondakinen kudeaketa aztertzeko.

Eragileei dagoeneko egin diete parte hartzeko gonbita. Eta herritarren zerrenda ere zabalduko dute. Edozeinek parte har dezake, maiatzaren 3a baino lehen izena emanda (BAZen 943 25 20 00). Gero, horien artean zozketa egingo dute: "Sei zonatan banatu da herria eta auzo bakoitzeko bi ordezkari aukeratuko dira adina, generoa eta beste ezaugarri batzuk kontuan edukita", adierazi dute Udaletik.

**Merkatariak, politikariak...**
Eragileei dagokienez, parte hartuko dutenen behin-behineko zerrenda arloz arlo egin dute: hezkuntzan Arizmendi Ikastola, Arrasate Herri Eskola eta Mondragon Unibertsitatea. Elkarteen artean, Besaide, Corazon de Encina, Ekologistak Martxan, Emakume Txokoa, Gaztetxea, Abaroa eta Al-Andalus, batzuk aipatzearren. Merkataritza-Industrian, Ibai Arte, Eroski, BM, Fagor, Ausolan, Altuna, Ospitalea… Auzo alkate eta hiri-alkate guztiak ere gonbidatuta daude, alderdi politiko eta sindikatuak ere bai, eta, zela ez, Zero Zabor taldea eta atez atekoaren aurkako plataformak.

**Lau saio iragarri dituzte**
Kontseilua osatuta lau saio egingo dituzte: maiatzaren 8an aurkezpena; maiatzaren 15ean, Europako legediaren azterketa: "Murrizketa, berrerabilpena, birziklapena, balorazio energetikoa eta eliminazioa". (…). Prozesuaren gakoa hementxe dagoela iruditzen zaigu". Maiatzaren 22an, eragileen proposamenak aurkeztu eta analisia egiten hasiko dira, Eta maiatzaren 29an, analisiarekin segitu eta proposamenetatik sistemarik "eraginkorrena" aukeratuko dute.


ARIZMENDI IKASTOLA

## Bisitari bretoiak gurean

Bretainiako 22 bisitari Arrasaten eta inguruan ibili dira asteon. Arizmendi Ikastolarekin trukea eginda etorri dira, domekara arte. Ikastola bisitatu dute, baita Alecop, Gernika, Bilbo eta Donostia ere, besteak beste. Arizmendiko ikasleak Aste Santu aurretik izan ziren han. Elkartrukea egiten duten hamabigarren aldia da aurtengoa.

## OHARRAK

**MAKATZENA ITXITA GAUR**
Gaur, egubakoitza, 08:00-11:00etara itxiko dute Makatzena. Lurperatutako edukiontziak garbitu behar dituzte.

**OSOKO BILKURARAKO DEIA**
Maiatzaren 2an mozioa aurkeztuko dute Josu Uribetxeberria eta gaixo dauden beste 13 euskal presoren alde. Herritarrei osokora joateko dei egiten diete.

**OTARREAREN IRABAZLEA**
Eneko Urrizalkik irabazi du baserritarren azokako produktu sorta, Mendibitzu baserriko Gorka Letek prestatutakoa.

**ERRETZEN UZTEKO**
Lekuak daude erretzen uzteko ikastarorako. Maiatzaren 2an, hitzaldi informatiboa antolatu dute, 17:30ean, Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

# Datorren astean has daiteke udal laguntzak eskatzen

## 697.650 euro banatuko ditu Udalak 2012an herriko elkarte, enpresa eta bestelakoen artean

U.M. | ARRASATE
Oraingo astean onartu du Gobernu batzarrak 2012ko dirulaguntzen programa. Baina datorren astera arte ezin da eskatzen hasi, hain zuzen, programa buletinean argitaratu behar da-eta aurretik.

**Eskaerak BAZen, zeinek?**
Behin epea zabalduta, dirulaguntza eskaera Biztanleen Arreta Zerbitzuan egin behar da, laguntza jasotzeko Udalaren baldintzak edo arauak betetzen badira, jakina.

Hamar arlotan jarduten duten pertsona, enpresa, elkarte edo bestelakoek eska ditzakete udal laguntzok.

**Kultura, euskara eta hezkuntza**
Xehetasunetan sartuta, kultura entitateen ekintzak finantzatzeko eska daitezke laguntzok. Euskararekin lotuta, berriz, euskaltegietan euskara ikasteko; enpresa edo komertzioetan errotuluak euskaratzeko, edo enpresaren irudia edo web orria euskaratzeko; helduak euskalduntzeko; euskararen erabilera bultzatzen duten elkarte edo entitateendako edo UEUra joateko.

Eta hezkuntzan, irakaskuntza arautuko irabazteko asmorik gabeko ikastetxe, ikasleen guraso edo elkarte eta pertsona fisikoendako bideratuko dituzte udal laguntzak. .

**Gizarte laguntzak eta beste**
Gizarte laguntzei dagokienez, berriz, udal tasak ordaintzeko; garapenaren aldeko programak lantzeko; gizarte zerbitzuen eremuan jarduera garatzeko, droga mendekotasunak eta beste mendekotasun psikologiko batzuk tratatzeko eta erretiratuen elkarteendako bideratuko dira.

Eta beste batzuk aipatzearren, igogailuak jartzeko; presoen senideen garraiorako; berdintasuna bultzatzeko, musika taldeen grabazioetarako; aisialdiko begiraleak prestatzeko; lanpostuak sortzeko eta kirol elkarteendako laguntzak ere bideratuko dituzte.

# Urkulu ile apaindegia: krisiaren aurkako prezioak eta kalitatea lehentasun

Ile apaindegia ireki berria izan arren, esperientzia handikoa da Urkulu ile apaindegia osatzen duen lantaldea. Prezio merkeek erakarrita, hainbat bisita izan dituztela diote


Urkulu ile apaindegiko lantaldea, lanerako gertu.

> Egoera nola dagoen ikusita prezio merkeen aldeko apustua egin dugu. Baina noski, kalitatea eta profesionaltasuna ahaztu barik. Horiek dira gure lehentasunak

Urkulu ile apaindegia martxo erdialdean ireki zuen Ahmed Elajbarik. Duela 12 urte heldu zen gurera eta bailararen edertasunaz maiteminduta dagoela dio. "Edertasun horren adibide gertukoena Urkulu da eta horregatik jarri diogu izen hori", dio.

Ile apaindegia aurten ireki dute, martxo erdialdean. Proiektuarekin hasiberriak diren arren, Urkulu ile apaindegiko lantaldeak eskarmentu handia du mundu horretan. Orain arte Eli Carvallares eta Omar Taoui aritu dira. Lehenak zortzi urte daramatza emakumezkoekin ile apaintzaile lanetan eta emakumeekin. Taouik, ordea, 16 urte baino gehiago daramatza gizonezkoen ilea txukuntzen. Ile apaindegi mistoa da, beraz. Gainera, orain Marian Abizena batu da taldera.

**Kalitatea, prezio onean**
Krisiari egokitutako prezioak jarri dituzte hasieratik: "Egoera nola dagoen ikusita zerbitzua prezio merkean eskaintzea erabaki genuen eta oraingoz erantzun ona izan dugula esan dezakegu. Herritar bat baino gehiago etorri zaigu probatu, galdetu eta prezioez informatzera. Hori, hasiberria den denda batendako, oso garrantzitsua da", adierazi du Carvallaresek. Eta noski, merkea izateak ez du txarra denik esan nahi: "Kalitatea eta profesionaltasuna dira gure lehentasunak".

Ile apaindegi zerbitzuaz gain, makillaje eta estetika zerbitzua ere eskaintzen dute, beti ere produktu naturalekin.

URKULU
ILE APAINDEGI MISTOA
Zabaldu berria!

ESKAINTZA BEREZIAK:

| | |
|---|---|
| Orraztea | 10 € |
| Moztea | 10 € |
| Kolorea ematea | 11,50 € |
| Tratamendua ematea | 3 € |
| Gizonentzako ile-moztea | 8 € |
| Umeentzako ile-moztea (10 urtez beherakoak) | 5 € |

Zerrajera 1, behea 3 • Arrasate • 698 72 44 71

# Berdura Plaza eredugarri eta erakargarri izan zenekoa

▶ Joan diren bi mendeetan Arrasateko azokak erakarri egiten zuen jendea bertara

▶ Aisialdirako izaera ere eman gura diote orain; bada, 40ko hamarkadan bazuen izaera hori

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Azoka biziberritzeko ekimenak maiatzean dauka hurrengo hitzordua: joan den martxoa ezkero lanean diharduten lau taldeen hausnarketen bateratze-saioa. Horrekin batera, beste bi prozesu ere abiaraziko dituzte: haurrekin eta etorkinekin azokaren gaia lantzen hasiko dira.

Izan ere, hilabeteotan gauzatzen joango da Bagara elkarteak, Arrasateko Udalarekin elkarlanean, Arrasateko azoka birpentsatzeko egiten dihard没 parte -hartze prozesua.

Behin bukatuta, prozesutik ondorioztatutako emaitzen bideragarritasuna aztertuko dute. Hau da, ikustea ea posible den emaitzak Arrasateko azokan aplikatzea, eta, hala azokari bultzada eta indarra ematea.



Arrasateko Berdura Plaza (Berdury Dance zenekoa), jatorrizko egituraz baliatuta jasotakoa. | ANA ISABEL UGALDE

**Hasieran, harresiaren ondoan**

Izan ere, Arrasateko azokak gaur egun inportantzia eta pisua galdu duen arren, iraganean, bertakoak eta kanpotarrak erakartzen zituen. Ana Isabel Ugalde historialariak nabarmentzen duenez, "salmenta beti egin da Arrasaten, Arrasate herri urbanoa izan delako. Kaletarrak jatea behar zuen".

Historia errepasatzen badugu, duela bi mende amaierako dokumentazioa esku artean, 15 egunean behin egiten zen azoka. "Azoka, edo trukea, hala esan izan zaio-eta beti: trukea. 1898ko urtarrilaren 21eko agiri bati esker, badakigu harresiaren ondoan egiten zela, egungo Portaloiaren alde banatan. Egun hartan, Udalak erabaki zuen Beheko Portaletik (gaurko Portaloia) Olarterako bidea libratzeko asmoz, merkatuko postuak berrantolatu egin behar zirela. Horrela izango zen aurrerantzean: abarkagileak: Beheko Portaletik, Jose Maria Mendizabalen etxeraino; errondan: berdura saltzaileak, Barrenaren etxe aurrean (Zerkaosteta); idi pareak, pilotalekua izandakoa (BAZ izandakoa) eta bestelako animaliak, San Frantziskoko plazatxoan", kontatu du Ugalde historialari arrasatearrak.

**Bakarra inguruan, modernoena**

Hori da, beraz, Arrasateko azokaren abiapuntua.

Baina Berdura Plazak salto garrantzitsua eman zuen 1901ean: "Mondragoek izan zuen ongile aparta etorri zen herrira, Pedro Biteri jauna, Europan zehar egiten zirenak ikusita. Hartara, 1900eko maiatzaren 18ko udal bilkuran azaldu zuten Biteriren aspaldiko asmoa zela herriari merkaturako plaza estali bat ematea. Leku aproposena irizten zion, Udalak kontrakorik esaten ez bazuen behintzat, San Frantzisko aurreko plazari. 1901eko abuztuaren 5ean, Biterik Berdura Plaza dohain gisa eman zion Mondragoeko herriari. Burdinazko eta kristalezko eraikina, gaur egun Seber Altube deitzen dugun plazan zegoena. Portaloitik pasatzea estalitako leku batera, urarekin, gero argia ipini zen... baldintzak ikaragarri desberdinak dira. Azokari berari beste izaera bat eman zion, eta saltzaileei beste duintasun bat. Inguruan bakarra zen, halakoak bakarrik hiriburuetan zeuden. Bestelako eragina ere izan zuen: hortxe kontzentratu zen produktu freskoen salmenta. Eta herrian ohitura sortu zuen bertara joateko. Gaur egungo pentsamenduarekin, oraingo bulebarra izango litzateke".

Ez hori bakarrik, eraikina ere bazen azpimarratzeko modukoa: "Ereduak Eiffel dorrea, Parisko *halles*-ak... izan ziren. Parisen, Biarritzen... zeuden bakarrik halakoak. Izan ere, Biteri Paristik Biarritzera joan zen bizi izatera. Eta hark ekarri zuen orduko Europako gauzarik modernoena Arrasatera", kontatu du Ana Isabel Ugaldek.

Eta hala, plaza inportante bilakatu zen Arrasate. Bertako eta urrunagoko saltzaileak etortzen ziren. Urtetan gorde zuen izan handi hori, baita eraldatu ostean ere.

1940an jasan zuen aurreneko eraldaketa: "Eraikina txikia zela -eta, egin zena izan zen desmantelatu eta bertako burdinak aprobetxatuz pisu bat gehiago jaso. Beheko pisuan arrainduna zegoen eta goiko pisuan egoten ziren baserritarrak",

## Biziberritzea zertan den

- Elikadura eta lehen sektorea: Ekainera arte jardungo dute, bi fasetan: diagnosia (hutsuneak identifikatu eta proposamenak egin); gainerako lan-taldeen proposamenak aintzat hartu.
- Herrigintzarako plaza: zelan indartu azoka eragileen partetik. Bi fase: eragileen beharrak aztertu eta aukerak identifikatu eta azokarako proposamenak landu.
- Kontsumo arduratsua eta produktu eraldatuak: bidezko merkataritza, bigarren eskuko produktuak, eraldatuak, zero zabor filosofia oinarri, moneta oinarri ez duten ereduak, herri eragileen topagune edo izatea... aztertu, hutsune eta aukerak identifikatu eta proposamenak egin.
- Aisialdia eta jolasa: Arrasateko jolasaren diagnostikoa eta azokaren azterketa haurren ikuspegitik.

**ESANAK**

**"Biteriren Berdura Plazaren ereduak Parisko Eiffel dorrea eta halles-ak ziren"**

**"Berdura Plaza dantza-lokal (Berdury Dance) eta gimnasio moduan ere erabili zen"**

**ANA ISABEL UGALDE** | HISTORIALARIA

**Berdury Dance eta gimnasioa**

Bestalde, oraingo Berdura Plaza biziberritzeko egitasmoan azoka aisialdirako esparru izatea ere egoki ikusten duten neurrian, 40ko hamarkadako azokak bazuen ezaugarri hori: "Hortik dator Berdury Dance. Lokal moduan erabiltzeko leku bakarra zen Arrasaten; izan ere, orduan leku handi bakarrak Elizak izaten zituen. Gure aita zenak esaten zuen han *jazzband*-a egiten zutela... Domeka arratsaldeetan egiten zuten. Nik entzunda dut plazako dantza zela gauza bat eta Berdury horrek... bekaturako bide handiagoa ematen zuela. Bestalde, gimnasia leku moduan ere erabiltzen zuten Mesedeetako mojen ikasleek goiko eraikina inauguratu arte, 60ko hamarkadan edo geroago. Hori bota egin zuten 1976an, Seber Altube plaza sortu zutenean. Ferixalekua urbanizatzean, hara pasa zuten Berdura Plaza. Egungo lekura".

Han hasi zen Berdura Plazaren gainbehera, 80ko hamarkadaren amaiera inguruan. "Ez da lekurik aproposena. Ez da erakargarria. Paso-lekuan ez dago, apropos joan behar da hara. Horrek izan du eragina azokaren gainbeheran. Ez zen pentsatu Berdura Plaza batek jokatu ahal zuen papera. Frantzian, adibidez, paper garrantzitsua jokatu dute, oso bizirik daude, eta asko 1800-1900-ean egin zirenak, hiri-sare barruan kokatuta egindakoak dira".

**LETICIA DOMENECH PEREZ DOKTOREA**

**Psikologia kliniko hezitzailea**

Palacio Mendia zentro medikoa
Erdiko kalea 22 • Arrasate
Tel.: **943 79 72 16**

Gurasoentzako programa hezitzaileak • Ikasketen planifikazioa
Hiperaktibitatea / Arreta defizita • Jarrera aldakuntza
Dislexia • Ez-hitzezko ikasketen gorabeherak
Autismoa • Asperger sindromea • Estutasuna - agresibitatea
Haurren beldurrak • Nerabezaroa eta depresioa
Eskola-jazarpena...

# Egitarau zabal eta freskoarekin datoz AEDren Literaturjauziak

## Aurtengoa hirugarren edizioa izango da, maiatzaren 5etik 13ra

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

AEDk aurkeztu du Literaturjauziak ekimenaren hirugarren edizioa. Euskarazko literaturari bultzada ematea helburu, aurten ere maiatzean egitea erabaki dute, iazko parte-hartze handia mantentze aldera. Maiatzaren 5etik 13ra izango dira aurten, eta, aurreko bi edizioetan moduan, antolatzaileek egitaraua zabala eta freskoa antolatu dute.

AEDko egoitza, gaztetxea eta Kulturate izango dira gune nagusiak. Hala ere, maiatzaren 7an herri osoa hartuko du ekimenak, *Bookcrossing* deritzon ekintzaren bidez hainbat liburu askatuko dituzte-eta. Halaxe azaldu du ekintza Maite Agirre AEDko kideak: "Herriko txoko ezberdinetan hainbat liburu utziko ditugu, irakurtzeko errazak direnak. Behin irakurrita, liburu hori beste leku baten utzi beharko da beste batek irakurtzeko aukera izan dezan. Liburua aurkitzen dutenei ekimenarekin jarraitzea eskatzen diogu". Parte hartzeko gonbita egin die Agirrek herritar guztiei.



Maite Agirre eta Iñaki Telleria ekimenaren berri ematen. | JOKIN BEREZIARTUA

**Arrasate Literatur Lehiaketak**

Egitarauko lehen ekintza, baina, maiatzaren 5etik 12ra iraungo duen sorkuntza eta komiki tailerra izango da. AEDn egingo da, 10:00etatik 14:00etara, Aiert Zubigarai komiki egilearen eskutik. Maiatzaren 3a izango da izena emateko eguna eta parte hartzaileek bost euro ordaindu beharko dute. Maiatzaren 6an, berriz, *Gaztetxeak eta literatura* izeneko solasaldia eskainiko du Juan Luis Zabala *Galdu arte* liburuaren egileak. Gaztetxeen eta literaturaren arteko lotura aztertuko du Zabalak; gaztetxean izango da, 18:00etan. Hilaren 7an, *Bookcrossing* ekimenaren bigarren edizioa.

Maiatzaren 10ean, berriz, Arrasate Literatur Lehiaketen 25. edizioaren sari banaketa egingo dute Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan, 18:30ean. Jasone Osoro idazlea gonbidatu dute, gaztetxoei literaturaren eta idazketaren munduan nola sartu azaltzeko. Urteurren berezia izateaz gain, AEDkoak pozik daude aurten 138 idazlan jaso dituzte -eta. Hilaren 11n, Txillardegiren omenezko irakurraldi kolektiboa egingo dute euskalgintzako eta udal bibliotekako literatur solasaldietako kideek; 19:00etan, Kulturateko areto nagusian. Hilaren 13an, amaitzeko, *Euslandia* ikuskizuna Kulturaten (19:00): antzerkia, musika, filosofia, poesia eta pintura uztartzen ditu.

# Asteburuan hiru kontzertu, Udaberriko Musikaldian

J.B. | ARRASATE

Udaberriko VIII. Musikaldiaren barruan, asteburua saioz josita dator. Gaur bertan Arrasate Musikaleko Orkestra Sinfonikoak eta Goikobalu abesbatzak kontzertua eskainiko dute San Frantzisko elizan, 20:00etan. Urtero moduan, eliza txiki geratzea espero dute antolatzaileek. Bihar Ekimende laukoteak kontzertua eskainiko du Kulturateko areto nagusian (20:00). Bi euskaldunek –Igor Egidon biolontxelo arrasatearra tartean–, madrildar batek eta ukrainar batek osatzen dute taldea, eta sokak izango dira protagonista. Eta domekan, Alberto Urretxo Arrasateko tronboi jole ospetsuenak kontzertua emango du Marion Desjaques-Huguel harpa jole paristarrarekin batera; Kulturaten, 20:00etan.

## 'Musikal', Mont Blanceraino

**Montblanceko Josep Porte i Rovira musika eskolarekin egindako elkartrukearen barruan, joan den asteburuan Katalunia aldean ibili ziren Arrasate Musikalekoak. "Esperientzia hunkigarria izan da", adierazi du Arantzazu Idigorasek. Kataluniako musika eskolakoak martxoaren 16an izan ziren gurean.**


ARANTZAZU IDIGORAS

## 'Otto' haurrendako dantza saioa domekan Amaia antzokian

Iparraldeko Erilare taldeak *Otto* dantza ikuskizuna eskainiko du domekan Amaian. 1 eta 6 urte arteko haurrei zuzendutako ikuskizuna da eta bi saio egingo dituzte: 17:00etan eta 18:00etan. Ordu erdi inguru iraungo du. "Bidaia bat da umeen egunerokotasunean barrena, ametsaldi bat", diote konpainiako kideek.

# Erakusketa berezia Kajoin, 25. urteurrena dela-eta

## Jose Luis Tabueñaren argazkiak ikusgai; tartean, Maialen Fernandez de Arroiabe arrasatearrarenak

J.B. | ARRASATE

Maiatzaren Lehena aukeratu dute Kajoi tabernan 25. urteurreneko ospakizunen barruan Jose Luis Tabueña argazkilari ezagunaren erakusketa irekitzeko. Urteurren borobila aitzakia –lehenago Urizar taberna zegoen egun Kajoi dagoen lekuan–, erakusketa berezia antolatu dute eta argazkietako protagonisten artean izango da Maialen Fernandez de Arroiabe modelo arrasatearra. Tabueñaren neskalaguna da Fernandez de Arroiabe, eta, erlazio horri esker, arrasatearrek goi mailako argazkiez gozatzeko aukera izango dute.

**Aurpegi ezagunak argazkietan**

Inaugurazioa 19:00etan izango da eta hil osoan zehar egongo da zabalik. 26 argazki egongo dira ikusgai eta argazkiotan Espainian ezagunak diren hainbat aurpegi ikusi ahalko dira, baita horren ezagunak ez diren modeloen erretratuak ere. Kajoi tabernako arduradunen arabera, Tabueña "maisua" da argia erabiltzen.

**Moda argazkilaritzan aditu**

Hainbat erakusketa egin zituen 1991 eta 1998 artean, Espainian eta Frantziako hegoaldean, eta Aragoiko Artista Gazteen lehiaketako lehen saria jaso zuen. Hala ere, 1998an hasi zen moda eta publizitaterako argazkilaritza egiten, Madrilen. 14 urteotan etxe handiendako egin du lan eta hainbat artista ezagun jarri dira bere kameraren aurrean; esaterako, Alejandro Amenabar, Marta Sanchez, Alaska eta Melendi.


Fernandez de Arroiabe. | JOSE LUIS TABUEÑA

## Joan den asteburuan eskaini ez zen filma asteon, 3D formatuan

Joan den zapatu eta domekan *Viaje al centro de la tierra 2: La isla misteriosa* izeneko filma ez zen eskaini, Udaleko Kultura Sailaren arabera, euren eskumenekoak ez ziren arrazoiengatik. Hala, bihar eta etzi emango dute film hori 3D formatuan, baina bi dimentsioko filmen prezioan; hau da, lau eurotan.

PATXI CASTRO
Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
943 78 71 65
639 01 69 69

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**Leire Iruin** | Ingurumen zinegotzia

# "Udala konpostagailu komunitarioen alde dago"

Labegaraietako auzotar talde batek konpostagailu komunitarioa eskatu du

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Konpostagailu komunitarioa ipintzeko eskaria jaso berri du Udalak Labegaraietako auzotar talde baten eskutik. Bizilagunen artean batutako hondakin organikoa konpost bihurtu eta auzolanean duten ortuan erabiltzea litzateke helburua. Bergarako Udalak begi onez ikusi du eskaria. Ingurumen zinegotziarekin hitz egin dugu gai horren inguruan.

**Nola hartu duzue Labergaraietako bizilagunen eskaria?**

12 familia batu eta konpostagailu komunitarioa ipintzeko ideia izan dute. Oso pozik hartu dugu eskaria, argi eta garbi bat egiten duelako Udalaren filosofiarekin. Gainera, Labegaraietako konpostagailua lehenbailehen martxan ipintzea da asmoa. Horrela, gainontzeko herritarrek ere esperientzia hori ezagutzeko aukera izango dute, eta hortik ikasi.

**Labegaraietakoa da, oraingoz, jaso duzuen eskari bakarra.**

Bai. Halaxe da, baina, esan bezala, Udalak bat egiten du filosofia horrekin, konpostagailu komunitarioen alde dago; beraz, herritarrak animatu nahi ditugu interesa izanez gero gurekin harremanetan ipintzera.

**Labegaraietako bizilagunek lursail bat daukate etxebizitzen aldamenean, baina zer egin dezakete lursailik ez daukaten bizilagunek?**

Askotan, horixe da kalean bizi diren herritarrengandik jaso dugun kexa. Askok esaten digute: "Konpostagailuaren kontua ondo dago auzoetarako eta baserrietarako, baina kalean ezin dugu horrelakorik egin". Bada, hori horrela izan ez dadin Udala aztertzen ari da publikoak diren lursailetan edo lorategietan konpostagailu komunitarioak ipintzea. Esaterako, aukera bat izan daiteke herriaren erdigunean konpostagailu bat ipintzea, eta horrela ez litzateke beharrezkoa lursail bat izatea konposta egin ahal izateko.



Bergarako Ingurumen zinegotzi Leire Iruin. | A.B.

**"Lorategietan konpostagailuak ipintzeko aukera aztertzen ari gara"**

**Dena dela, konposta egin ahal izateko ezinbestekoa da formazioa jasotzea. Nola egingo duzue?**

Debagoieneko Mankomunitateak konpostagailua ipintzea erabakitzen duten herritarrendako ikastaroak eskaintzen ditu urtero, eta formazio saio horietara bideratuko ditugu interesa duten herritarrak. Horrez gain, Udaleko langileak –lorazainak, garbitzaileak eta abar– formatu egingo ditugu herritarrei lagundu ahal diezaieten. Bergararrei esan nahi diet lasai egoteko, interesa izanez gero erraz egingo dugula, erraz ikasiko dugula guztion artean.

# Bingoa Muniben eta DJ festa zezen-plazan, jaietako nobedadeak

Udalak 112.000 euro gastatuko ditu aurten Mendekoste jaietan; iaz baino %20 gutxiago

A.B. | BERGARA

Mendekoste jaiak gain-gainean ditugu eta Udala egitarauari azken ukituak ematen dabil. Aurten, gainera, jaiak herritarrekin batera antolatzeko bilera irekiak egin dituzte.

Jaiak antolatzeko orduan Udalak aurten izan duen zailtasunetako bat aurrekontua izan da. Iazkoarekin alderatuta nabarmen jaitsi da. Aurten 112.000 euro gastatuko ditu Udalak jaietan; iaz baino %20 gutxiago. "Aurrekontua txikiagoa izango den arren, egitarauari eusteko saiakera egin dugu. Diru gutxiagorekin baina beste urte batzuetan bezain jai alaiak eta ekintzaz beteak antolatu ditugu", azaldu dute Kultura Saileko ordezkariek.

**Bingoa eta DJ festa**

Aurtengo nobedadeen artean dago jaietako martitzenean egingo duten bingoa. Munibe plazan izango da, 18:30ean, eta bertan banatutako sariak Bergarako dendetan erabiltzeko izango dira.

Gaztetxoendako ere badira nobedadeak. Zapatu gauean DJ festa egingo dute zezen-plazan, DJ Jon Urrutiarekin.

Bestelakoan, mantendu egingo dira jaietako hitzordu garrantzitsuenak: herri bazkaria astelehenean, Euskadiko dantza suelto txapelketa, jaioberriei zapia jartzea eta martitzeneko umeendako jolasak; aurten *Whaterball* izenekoak ipiniko dituzte, umeak baloi erraldoietan sartu eta ur gainean ibiltzeko jolasa.

**26 kartel lehiaketara**

Martitzenean amaitu zen kartel lehiaketara aurkezteko epea. Aurten 26 lan aurkeztu dira eta epaimahaiak azaldu du "kalitate handiko" lanak izan direla. Aitor Lagomak irabazi du eta 400 euroko saria lortu du. Kartel guztiekin erakusketa ipiniko dute jaietan, osoko bilkuren aretoan, honako ordutegian: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00.




Aurtengo kartel irabazlea. | A. LAGOMA

**DATUA**

**125**

JAIOBERRI

2011ko maiatzetik jaiak bitartean jaiotakoei zapia ipiniko diete. Aurten 125 ume inguru izango dira.

## Elorregin festa giroan ibiliko dira aste bukaeran

A.B. | BERGARA

Makal jasotzearekin gaur bertan hasiko dituzte San Prudentzio jaiak Elorregin. Auzoko jaiak afari eder batekin hasiko dituzte.

Bihar, zapatua, meza nagusiaren ostean bazkaria egingo dute eta bertsolari eta trikitilariek girotuko dute bazkalostea. Gauean, berriz, erromeria egingo dute.

Jaiak amaitzeko, domekan, Alai Taldearen bisita izango dute auzoan. Arratsaldean pilota partiduak egongo dira. Gazta, salda eta txorizoa banatuko dituzte.

**SAN PRUDENTZIO JAIAK**

**APIRILAK 27**

**16:00** Makal jasotzea eta ondoren afaria elkartean.

**APIRILAK 28**

**13:00** Meza nagusia.

**14:00** Auzo bazkaria bertsolari eta trikitilariekin.

**22:30** Erromeria.

**APIRILAK 29**

**10:30** Meza Alai Taldearekin. Ondoren saioa eskainiko dute pilotalekuan.

**12:30** Pilota partiduak.

## Labegaraietako jaiak bueltan datoz egitarau potoloarekin, bihar hasita

A.B. | BERGARA

Garai batean auzoetako jai ezagunetakoak eta jendetsuenak izaten ziren Labegaraietako jaiak, eta horixe berreskuratu nahi dute auzotarrek. Hori horrela, auzoko jai batzordeak hiru eguneko egitarau potoloa antolatu du aurtengo.

Bihar, zapatua, hasiko dituzte jaiak etxafuego jaurtiketarekin, eta ondoren mus eta tute txapelketak egingo dituzte Agirrebeña eta Zabala jatetxeetan, hurrenez hurren. "Jaietako ekintzak auzoko txoko ezberdinetan banatu nahi izan ditugu, jaiek iraun bitartean auzo guztia girotzeko", azaldu du batzordeak.

Eguzkia ezkutatzen denean, Jose Luis Feok argazki proiekzio berezia egingo du, hiru dimentsiokoa [ikus 40. orria].

Zapatuan berriz, Lokatzak urtero antolatzen duen txirrindulari lasterketarekin hasiko dute eguna eta eguerdi partean herri poteoa egingo dute. Festa jarraitzeko, auzotarrek bazkaria egingo dute; eguraldi ona egiten badu, kiroldegi kanpoan elkartuko dira; bestela, tenis pistan.

Jaiak martitzenean amaituko dira. Urteroko meza nagusiaren ostean salda eta txorizoa banatuko dituzte eta arratsaldean, berriz, umeendako jolasak egingo dituzte.

**EGITARAUA**

**APIRILAK 28**

**16:00** Etxafuego jaurtiketa.

**16:30** Mus eta tute txapelketak.

**21:00** 3D argazki proiekzioa.

**APIRILAK 29**

**11:00** Txirrindulari lasterketa.

**12:00** Herri poteoa.

**14:30** Auzo bazkaria.

**MAIATZAK 1**

**11:00** Meza nagusia.

**14:00** Herri poteoa.

**17:00** Umeendako jolasak eta ondoren jaiei amaiera etxafuegoarekin.



Arcelorreko langile talde bat izan zen osoko bilkura jarraitzen. | E.M.

# Udalbatzak babesa adierazi die Arcelor Mittaleko langileei

## Langileak kezkatuta daude bideragarritasunaren aitzakiarekian azkenaldian hartutako erabakiekin

**EDU MENDIBIL** | BERGARA

Bergarako Arcelor Mittaleko enpresako batzordeak aurkeztutako mozioa onartu zuten aho batez alderdi guztiek astelehenoko osoko bilkuran. Arcelorreko langileek kezka azaldu dute azkenaldian bideragarritasunarekin lotuta enpresan hartutako erabakiekin.

Enpresako komiteak zera adierazi du idatzi baten bidez: "Merkatuan ongi kokatutako eta emaitza ekonomiko onarekin lantegia, emaitza ekonomiko onarekin, baina altzairutegiaren behin behineko itxierarekin eta lana taldeko beste lantegi batzuetara eramanik, konpetibitatea galdu du eta gainera beste lantegiak gure merkatuan sartu dira. Gertaera honen aurrean, Bergarako enpresa batzordeak proiektuan inplikaturik, bideragarritasun plana aurkeztu zuen, zuzendaritzak inolako alternatibarik eman gabe bazter batera utzi zutelarik".

**Bideragarritasun plana**

Erabakian gero eta urrunago hartzen direla salatu dute langileek: "Egoera honen aurrean ezinbestekoa da euskal lantegi bakoitzaren espezializazioa eta konpetibitatea mantentzea taldearen barruan, baita ere etorkizunera begira, enpresa, langileak, administrazioak eta herria, guztiak inplikaturik, oraindik are gehiago sendotzea gure lantegiak".

Udalbatzak aho batez onartutako mozioan zera jasotzen da: "Arcelor Mittaleko zuzendaritzaren aurrean behar diren gestioak egitea Udalak, bideragarritasun plan bat martxan jartzeko eskatuz, Bergarako lantegian siderurgi lan integrala izango duelarik". Era berean Diputazioari eta Jaurlaritzari ere deia egiten zaie, "instituzio horiek ere gure lantegietako erabateko produkzio ahalmenak erabiltzearen aldeko eskaera egin dezaten, horrela lanpostuak eta euskal lantegien konpetibitatea mantenduz". Jaurlaritzari siderurgia sektoreko bideragarritasun plan bat eskatzea adostu zuten udal gobernuak eta oposizioak eta, azkenik, akordioen kopia Gipuzkoako Batzar Orokorretara eta Lege Biltzarrera bidaltzea.

Boto esplikazioan, Aintzane Oiarbidek (EAJ) eredugarritzat jo zuen langileen jarrera eraikitzailea eta zailtasunen aurrean irtenbideak topatzeko orduan eramandako bidea. Langileen izenean Jose Luis Loidi Rosli-k hartu zuen hitza alderdien jarrera eta emandako laguntasuna eskertzeko guztiei.

**'Udal Euskaltegien afera'**

Bestalde, *Udal Euskaltegien afera* izenburuko mozioa onartu zuen udalbatzak, Udal Gobernuaren eta EAJren aldeko botoekin. PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen. Onartutako testuan zera jasotzen da: "Udal euskaltegien inguruan sortu den auzo honen erantzule eta arduradun politikoak Jaurlaritza eta HABE dira. Urteetan zehar udal euskaltegiek egindako lana kontuan izanik, hauen etorkizuna arriskuan jartzerik ezin dugu onartu. Zama ekonomikoa udalen gain ez uzteko eskatzen dugu eta euskararen aurkako erasoei aurre egiteko deia luzatu nahi dugu. Bergarako Udalak udal euskaltegien auziari ardura politiko osoz eta herritarrekin batera erantzuteko konpromisoa hartzen du, helduen euskalduntze alfabetatzearenb mugimenduak atzerapenik izan ez dezan behar diren neurriak hartuz".

Zerrendatik kanpo zegoen Naturtzaindiaren mozioa, biodibertsitatearen gainekoa ere aztergai izan zuten baina mahai gainean uztea eta hirigintza batzordean aztertzea adostu zuten.

# Murrizketen aurkako manifestazioa gaur

## "Borrokara lotzeko" dei egin dute hainbat taldek murrizketa sozialak salatzeko helburuarekin

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Bergarako hainbat taldek eta eragilek, sindikatuk eta abarrek, "borrokarako" dei egin dute, azkenaldiko murrizketa sozialak salatzeko eta Maiatzaren Lehena bertan dela gogorarazteko. Elkarretaratzeak kalean, geldialdiak ikastetxeetan eta manifestazioa deitu dituzte. LAB eta ESK sindikatuek, Ezker abertzaleak, AHT Gelditu Elkarlanak!, eta Bergarako Gazte Independentistek, Ikasle Abertzaleek eta Gazte Asanbladak egin dute bat "lotu borrokara" mobilizazioekin. Gaur, egubakoitza, manifestazioa aterako da 19:00etan Bergarako plazatik.

**Maiatzaren Lehena**

Egunotarako kaleratutako testuan zera diote: "Krisia gure aho eta belarrietan etengabeko sartu irtenean dabil, krisi ekonomikoaz hitz egiten da,badirudi krisi ekonomikoa gainditua gero hauekin gure problemak ere gaindituko direla. Kontua zera da ordea, ez dela soilik krisi ekonomikoa. Neoliberalismoa finantza zorrean eta zor ekologikoan oinarritutako sistema izan da beti. Finantza zorrean kreditua izan da jaun eta jabe, soldaten merkealdian bankuei kreditua eskatu kontsumoa ahalbideratuz. Bestalde enpresa eta instituzioek hartutako bidea bizi osorako hipotekatzea izan da. Zor ekologikoari dagokionean produkzioa dago, lurrari kentzen dizkiogun lehengaiak beharrezkoak dira produkziorako. Hego Euskal Herrian egungo produkzio eta kontsumo beharrak asetzeko lurra bezalako hiru planeta beharko genituzke. Zor ekologiko hau, gure ondorengoek ordaindu beharko dute". Maiatzaren Lehena langileen borrokalarien eguna izatea nahi dute, "gure eskubideen alde altxa gaitezen, bizi baldintza duin eta aberastasunaren banaketa justu baten alde borrokatzeko".

## NIRE USTEZ

**MAIALEN MADARIAGA**



# Katez katekoa

Azken aldian behin baino gehiagotan lotsarazi izan naute Pantoja eta *Paquirrin*-en artean zein lotura dagoen ezagutu ez, edo Belen Estebani azken operazioa egin dion medikuaren izena ez jakiteagatik.

Barre eta harridurazko aurpegiek lagunduta entzun behar izaten dut telebista kate gehientsuetako lehiaketa eta eztabaidetan era honetako gai "kulturalak" lantzen dituztela. Okerrena da, elkarrizketa hau "telebistarik ez al duzu ikusten?" batekin amaitzen dela.

Badakit ezjakintasuna ez dela harro egoteko moduko kontu bat, baina onartuko didazue kate hauetatik berrerabilgarria den eduki gutxi atera daitekeela. Kultura eta errefusa ontzi berean sartzen ditugun bitartean, aprobetxagarriak diren beste zenbait gertakizun errausten uzten dugunaren susmoa daukat.

Izan ere, atez ate galdezka hasiko bagina, gutxik asmatuko luke Itxaro Borda zein edukirekin lotu, edo Txomin Artola zein ontzitan sartu. Horrek pentsarazten dit katez katekoan zerbait gaizki egiten ari dela.

Geroz eta argiago ikusten dut gauza bakoitza dagokion lekuan sartu behar genukeela, eta soilik balio duena birziklatu, daukagunari etekinik handiena atera nahi badiogu behintzat. Baina badirudi, azken aldian beste kezkaren bat badugula, zaborrak estalitakoa ikusten uzten ez diguna.

**"Gutxik asmatuko lukete Itxaro Borda zein edukirekin lotu"**

## OHARRAK

**1937AN JAIOTAKOEN BAZKARIA ZAPATUAN**

1937an jaiotakoen bazkaria apirilaren 28an Zumelaga jatetxean. Txartelak (20 eurotan) Yoar oinetako dendan eskuragarri.

**HITZALDIAK MARIAREN LAGUNDIAN**

Guraso Elkartearekin elkarlanean antolatutako hitzaldi sortarekin jarraituz, maiatzaren 2an Maite Goñiren txanda izango da. Haurrak, nerabeak eta teknologiak jorratuko ditu Goñil. Azkenik, maiatzaren 9an Joxe Amiama izango da Mariaren Lagundia Ikastolan, *Nola landu diziplina seme-alabak arduratsu izateko* gaiaren gainean jardutek. Bi hitzaldiok 18:00etan izango dira eta herritarrei parte hartzeko gonbidapena egin diete Mariaren Lagundiatik.

**TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN ZERGA**

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 31ra arte dago zabalik. Egun horretatik aurrera errekarguarekin eskatuko da. Udaletik jakitera eman dutenez, helbideratutako erreziboak maiatzaren 31n kargatuko dira kontu korrontean. Argibideak kontuhartzailetzako 943 77 91 64 telefonoan.

**'ORAINARI BEGIRATU BAT, ETORKIZUNARI AUKERA BAT' JARDUNALDIAK**

Maiatzaren 4an eta 11n jardunaldi bereziak izango dira osoko bilkuren aretoan, 18:30ean. Gizarte eredua, deshazkundea eta iraunkortasuna izango dituzte hizpide, besteak beste.

**SAN MARTZIALGO KANTINARAKO ESKAERAK**

Uztailaren 1ean San Martzialgo kanpan irekiko den kantina eta txosnaren esplotazioa adjudikatuko ditu Udalak. Irabazi asmorik gabeko elkarteek eta talde herrikoiek maiatzaren 30era arte daukate eskaerak aurkezteko epea zabalik. Argibide gehiago udaletxean.

UGARTE
AROZTEGIA - ALTZARIAK
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30
BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09


Mireia Gabilondo zuzendari bergararra. | GOIENA

# Mireia Gabilondo, presoen gaineko film kolektiboan

'Barrura begiratzeko leihoak' filmaren zati bat aurreratu zuten martitzenean Donostian

EDU MENDIBIL | BERGARA

*Barrura begiratzeko leihoak* filmaren trailerra erakutsi zuten martitzenean Donostian, Giza Eskubideen 10. Zinemaldiaren barruan. Bost zuzendari dihardute lanean aipatutako filmean, tartean Mireia Gabilondo bergararra. Harekin batera, Josu Martinez, Eneko Olasagasti, Txaber Larreategi eta Enara Goikoetxea dira egileak. Martitzenean aurreratu zutenez lanak oso aurreratuta daude, eta estreinaldia aurtengo irailean egitea aurreikusi dute.

### Trilogiaren amaiera

Trilogia baten amaiera gisa uler daiteke *Barrura begiratzeko leihoak*, *Itsasoaren alaba* eta *Sagarren denbora* filmeen jarraipen eta amaiera gisa. Euskal preso politikoen egoera aztergai izango du filmak.

Egitasmo honetarako Zinez Elkartea sortu dute, ekoiztetxe lanak egiteko, betiere zinemagintza ulertu eta egiteko forma jakin bat bultzatzeko: "Zinemagintza apala, benekotasuna, gertutasuna eta gizatasuna dira gure ikuspegiaren gakoak. Hortik ere izena, zinez" diote proiektuko arduradunek.

### Laguntza kanpaina

Aipatutako egitasmoak baliabideak lortzeko kanpaina abiarazi du: *www.zinez.net/babes-kanpaina*. Arduradunen arabera, ez dugu ahalegin hori diru-bilketara mugatu: "Guretako dirua bezain garrantzitsua da emanaldiak antolatzea eta emanaldi horietan zerbait kontatzea, filma emateaz gainera. Horregatik, gure emanaldietan zuzendariak edo protagonistak ere egoten dira, honetaz eta hartaz hitz egiteko emanaldira hurbiltzen den jendearekin".

Esandako moduan, egitasmoa diruz laguntzeko aukera nadago eta horretarako 20 euroko bonoak jarri dituzte salgai. Bonoarekin batera, filma ikusteko txartela eta DVDa eskuratuko dituzte laguntzaileek. Trailerrari dagokionez, webgunean ikus dezakezue: *www.zinez.net*. Bi minutuko inguruko aurrerapena ikusgai dago bertan.

## Aloñako igoeran

Aloñako igoeran (15,5 km) bikain ibili ziren bergararrak. Andoni Gomez izan zen lehena 79. postuan (1:42:36), Etor Larrañaga (1:45:04), Xabier Lijo (1:45:36), Fernando Cobos (1:45:56), Ruben Sanchez (1:56:18), Aitor Gartzia (1:56:40), Jose Mari Urtzelai (2:01:55) eta Anselmo Gomez (2:02:45) beteranoaren aurretik. Zorionak, guztiei!


BASQUE ADVENTURE

## OHARRAK

### BERGARA HIRIA ARGAZKI LEHIAKETA DEITU DUTE

Bergarako Udalak Arizondo argazki taldearen laguntzarekin antolatu du eta Argizaiola lehiaketako sailkapenerako baliagarria da. Edozein afizionatuk har dezake parte. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 16an bukatuko da eta erabakia maiataren 19an emango dute jakitera. Sariak, berriz, maiatzaren 25ean banatuko dituzte. Argibideak kultura etxean, 943 77 91 58 telefonoan.

### APIRILEAN MUSIKA: EMANALDIA GAUR

*Buxtehuderen bustialdia* organo emanaldia gaur, egubakoitza, Santa Marinako sakristau etxean, 18:00etan. Jarraian, 18:30ean, txistu eta trikiti ikasleen emanaldia.

### ANTZERKI EMANALDIAK BIHAR ETA MAIATZAREN 4AN

Bihar, zapatua, Ahatetxo itsusia haurrendako emanaldia Zabalotegin, 18:00etan. Jardun elkartearen eskutik, Unai Iturriaga eta Jon Zubiagaren *Buah txabal* antzerki emanaldia izango da maiatzaren 4an Zabalotegin bertan, 19:00etan.

### AURKEZPENA: NDANK NDANK ELKARTEA

Ndank ndank elkarteko aurkezpena eta hitzaldia egingo dute hurrengo egubakoitzean, maiatzaren 4an, Irizarren, 18:30ean. Senegaleko hezkuntza eta osasun egoerari buruzko hitzaldia ere izango da.

### JAIETAKO ZAPIRAKO MARRAZKI LEHIAKETA

Edonork har dezake parte eta nahi beste marrazki aurkez daitezke. Lanak maiatzaren 11ra arte jasoko dituzte eta irabazlearendako 60 euroko saria izango da. Egilearen datuak (izen abizenak, adina, telefonoa eta helbidea) kartazal itxi batean sartuko dira eta kartazal hori eta marrazkia, beste kartazal handiago batean. Lanak Jarduneko bulegora (Errotalde jauregia z/g – kultur etxea, 20570 Bergara) edo *jardun@topagunea.com* helbidera bidali daitezke. E-mailez, bi fitxategitan bereiztu behar dira: marrazkia batetik eta egilearen datuak bestetik.

### KOPAKO FINALERAKO AUTOBUSA ETA ZOZKETA

Peña Athletic Bergarak autobusa antolatu du maiatzaren 25ean Madrilera joateko. Egun horretan Athletic eta Barcelona aurrez aurre izango dira Kopako finalean. Autobusa egunean bertan aterako da Bergaratik, 06:30ean, eta itzulerakoa maiatzaren 26an izango da, 01:30ean Madriletik. Toki Ona bodegoian daude autobuserako txartelak salgai, 40 eurotan bazkideendako eta 50 euro gainerakoendako. Era berean, finalarekin lotutako zozketa antolatu du Bergara KEk. Finalerako bi sarrera eta 400 euro zozketatzen dituzte. Txartelak euro baten truke daude salgai ohiko tokietan.

### POL-POLEKO BULEGO BERRIA UDAL PILOTALEKUAN

Pol-Polek Udal Pilotalekuan izango du bulegoa aurrerantzean. Apirilaren 30etik maiatzaren 4ra bulegoa itxita egongo da leku aldaketa egiteko. Telefono zenbakia berdina mantenduko dute: 943 76 48 51.

### UDABERRI ETA BERGARA HIRIA PILOTA TXAPELKETAK

Martitzenean, 19:30ean, bi partidu jokatuko dira Udal Pilotalekuan: Beñat Rezusta bergararrak eta Yurgi Larrañagak Yoldi-Arratibel bikotearen aurka jokatuko dute. Gazte mailan berriz Agirre-Alduntzin eta Larrañaga-Agirre izango dira aurrez aurre. Gaur, egubakoitza, berriz, Udaberri Txapelketako sei partidu jokatuko dira Udal Pilotalekuan, infantil, kadete, gazte eta senior mailetan, 19:00etan hasita.



# 350 ume eta 34 begirale izango dira udalekuetan

## Uztailaren 2tik 27ra egingo dituzte ETEO zaharrean

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI
4 eta 10 urte arteko 350 ume inguru eta 34 begirale izango dira uztailean egingo dituzten aurtengo udaleku irekietan. Umeen kopurua handiagoa izan daiteke, hala ere. "330 umek eman dute izena, baina uda Oñatin pasatzen duten ume ukrainarrendako beti gordetzen dugu tokia. Oraindik ez dakigu zenbat etorriko diren, baina kopurua 350en bueltan ibiliko dela aurreikusten dugu", azaldu du Lukene Astigarragak, Udalarekin batera udalekuak antolatu dituen AHK Kooperatibako kideak. Eta ume horien ardura 34 begiralek izango dute. "78 lagunek eman dute izena begirale izateko. Asko Oñatikoak dira, baina bailara osotik jaso ditugu eskaerak. Orain, curriculumak aztertu eta 34 aukeratu behar ditugu", gehitu du Lukene Astigarragak.

### Adinkako banaketa
Uztaileko udalekuetarako izena eman duten umeak adinka sailkatu dituzte. 34 talde izango dira guztira, begirale bakoitzeko talde bat. Eta hiru multzo nagusitan banatu dituzte umeak: 4-5 urte dituztenak, 6-7 urte dituztenak eta 8-9-10 urte dituztenak. Programak ere adinaren araberakoak prestatuko dituzte. "Txikienak ETEO zaharreko eraikinaren bueltan ibiliko dira: San Lorentzoko plaza txikietan, Ugarkalde auzoko parkean, Olara auzoko jolaslekuan ... Eta nagusiak herriko beste toki batzuetara ere helduko dira, San Martin auzora eta Etxaluzera, adibidez. Sanferminetako entzierroa, dena dela, plazan egingo dugu eta txikienak ere joango dira", zehaztu du Astigarragak.

Entzierroaz gainera, ur jolasak, eskulanak eta talde-jolasak ere egongo direla aurreratu du udalekuetako koordinatzaileak, baita berrikuntzak ere: "Horiek, baina, geroago zehaztuko ditugu".

### Gurasoendako bilera
Aukeratutako begiraleek bi bilera egingo dituzte maiatzean programazioa erabat lotzeko, alternatiba izan daitezkeen aukerak aztertzeko eta elkar ezagutzeko. Eta ekainaren 30ean eguneratzeko bilera izango dute. "Maiatzeko bilerak Txaloka ludotekan egingo ditugu, eta ekainekoa ETEOko eraikin zaharrean. Han ikusiko ditugu gelak eta biltegia, besteak beste, eta azken errepasoa egingo diogu programari", azaldu du Astigarragak. Baina begiraleendako ez ezik, gurasoendako bilera ere deituko dute. "Ekaineko bigarren hamabostaldian egingo dugu bilera hori. Informazio orokorra emateko eta, batez ere, gurasoek izan ditzaketen zalantzak argitzeko izango da bilera hori. Komunikabideen eta ikastetxeen bitartez jakinaraziko diegu eguna, ordua eta tokia". Udaleku irekiak uztailaren 2tik 27ra egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara, eta ETEOko eraikin zaharra izango da abiapuntua, bigarren urtez.


Iazko udalekuetan jolasean. | GOIENA

**HIRU MULTZO**

| JAIOTURTEAK | TALDEAK | UMEAK |
|---|---|---|
| **A MULTZOA** | | |
| 2008-2007 | 13 | 126 |
| **B MULTZOA** | | |
| 2006-2005 | 12 | 117 |
| **C MULTZOA** | | |
| 2004-2002 | 9 | 86 |


Mendiko kalearen paralelo jaisten den kalean egingo dituzte lanak. | MIREIA BIKUÑA

# Abuzturako bukatuko dituzte Errekaldeko aurtengo lanak

**O.E.** | OÑATI
Abuzturako bukatuta egongo da Errekalde auzoaren hirugarren fasea, errepidea berdindu, aparkalekuak antolatu eta bidegorria jartzeko fasea, alegia. Bergarako Artzamendi enpresak ekin die hirugarren faseko lanei, eta udarako bukatuko ditu.

### Aparkalekuak alde bietan
Hirugarren fase horretan, Errekalde barreneko kalean egingo dituzte lanak, Mendiko kalearen paralelo jaisten den kalean. Errepide zati horretako zorua berdindu, bidegorria markatu eta aparkaleku gehiago jarriko dituzte. Izan ere, orain arte kale horretako alde baten bakarrik aparkatu ahal zen, baina udatik aurrera alde bietan aparkatu ahal izango da.

### Fase gehiago
Orain hasitako lan horiek Errekalde eraberritzeko planaren barruan dauden aurtengo azken lanak dira. Lan gehiago ere egingo dituzte; esaterako, garajeetako sarrerak egokitu, baina ez aurten. Aurtengo aurrekontuetan hirugarren fasera arteko lanak jaso zituen Udalak. Gelditzen diren faseak datozen urteetako aurrekontuetan jasoko dituzte, momentuko lehentasunen arabera.



## Auzoetako jaiak hasteko, Olabarrietakoak

M.B. | OÑATI

Olabarrietako jaiak ospatuko dituzte aste bukaeran, auzoetako lehenak. Gaur, egubakoitza, kontzertua egingo dute Ez!, Gas eta Zuen Azkena taldeek, 23:00etan. Ondoren erromeria egingo du Aire aire! taldeak. Zapatuan ere musika izango da nagusi: Obaneuke taldeak erromeria egingo du 23:30ean.

Domekan Josu Zubia izango da protagonista: 18:00etan magia ikuskizuna egingo du eta 19:00etan kontzertua. Maiatzaren 1ean mus txapelketa izango da, 17:00etan, elkartean.

### OHARRAK

**DEIALDIA**
Txiki-Txoko haurreskolan (943 71 64 05) matrikulazio epea zabalik izango dute maiatzaren 2tik 11ra, 09:00etatik 11:30era eta 14:30etik 17:00etara. 2011 eta 2012ko umeendako matrikulazio epea izango da.

**GARBIGUNEA**
Urrutxuko garbigunea zabalik dago astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; zapatuetan 09:00etatik 13:30era.

**BILKETA**
Etxeko trasteak eguenetan batzen dituzte. Aldez aurretik 943 71 19 38 telefonora deitu.


San Martingo babes ofizialeko etxeen zozketa. | MIREIA BIKUÑA

# Babes ofizialeko azken etxeak banatu dituzte

137 eskatzaileren artean San Martingo 39 etxebizitza zozketatu zituzten

**SAN MARTIN 6, 7 ETA 8KO ETXEAK**

| ADJUDIKAZIODUNAK | ETXEBIZITZAK | ADJUDIKAZIODUNAK | ETXEBIZITZAK | ADJUDIKAZIODUNAK | ETXEBIZITZAK |
|---|---|---|---|---|---|
| Mikel Intxausti Arregi | 6-1-B | Maite Anton Leno | 7-1-A | Nerea Gonzalez Bengoa | 8-behea-E |
| Andoni Iglesias Martin | 6-1-D | Josu Porcel Matilla | 7-1-B | Nerea Matilla Zubia | 8-1-A |
| Aritz Garmendia Gonzalez | 6-1-E | Agotz Iturbe Murgiondo | 7-1-C | Angel Biain Zubiagirre | 8-1-B |
| Iker Etxezarreta Olariaga | 6-2-A | Leire Irizar Urzelai | 7-1-D | Zuriñe Rodriguez Zabaleta | 8-1-C |
| Iñigo Arregi Mendiola | 6-2-B | Nagore Inda Goikolea | 7-2-A | Oihana Ruiz Ormazabal | 8-1-C |
| Mikel Martinez de Zuazo | 6-2-C | Asier Larrañaga Sarasola | 7-2-B | Andoni Galdos Zubizarreta | 8-1-D |
| Iñaki Laka Aiastui | 6-2-E | Izaskun Nazabal | 7-2-C | Concepcion Castro | 8-2-A |
| Iker Zurutuza Anton | 6-2-D | Amaia Corrales Alonso | 7-2-D | Iñaki Larrea Elkorobarrutia | 8-2-B |
| Miguel Angel Sedano | 7-behea-A | Onintza Olabarria Ugarte | 7-2-E | Naiara Jimenez Letamendi | 8-2-C |
| Iker Larral Arenaza | 7-behea-B | Jose Luis Etxeberriarteun | 8-behea-A | Sonia Ayechu Muruzabal | 8-2-D |
| Ainhoa Urkia Agirre | 7-behea-C | Joseba Lazkanoiturburu | 8-behea-B | Miren Arregi Amasorrain | 8-2-E |
| Aitziber Mugartza Urkia | 7-behea-D | Edurne Arkauz Larrañaga | 8-behea-C | Sonsoles Gartzia | – |
| Maria Isabel Martin | 7-behea-E | Ion Lopez Santamaria | 8-behea-D | | |

ITURRIA: OÑATIKO UDALA

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Arazo barik, baina herritarren ikusminarekin egin zuten San Martingo babes ofizialeko azken etxeen zozketa eguaztenean. 137 eskatzaileren artean 39 etxebizitza zozketatu zituzten. Hain justu ere, San Martingo 6., 7. eta 8. bebarruetako etxeak banatu zituzten.

Zozketa bukatu ondoren, etxea egokitu zitzaienek etxearen gaineko informazioa jaso zuten eraikitzaileen eskutik: solairua, atea, metro karratuak, etxearen planoa, etxea erosteko jarraitu beharreko pausoak eta ordaindu beharrekoa.

**Bi logelako etxeak**
Zozketa lau kupotan banatu zuten: elbarriak, familia ugariak, bi logelakoak eta kupo orokorra. Mugikortasun arazoak dituztenendako bi etxe zeuden, eta eskatzaile bakarra; familia ugariendako bi etxe, eta bi eskatzaile; bi logelako etxea gura zuten 29 eskatzaileren artean sei etxe banatu zituzten; eta kupo orokorrean 29. Bi logelako etxeen zozketan etxe barik geratu zirenak kupo orokorrean sartu zituzten.

Eguaztenean egin zuten zozketan berezitasun bat izan zen: lehen aldiz, bi logelako etxeen eskatzaileekin kupo bat egin zuten. 29k eskatu zuten bi logelako etxea.

**Babes ofizialeko azkenak**
San Martinen egiten diharduten babes ofizialeko etxeak herrian dauden izaera horretako azkenak dira. Azken urteetan promozio handiak egin dituzte Ugarkalden, San Martinen eta Kasablankan. Apurka-apurka guztiak banatu dituzte, eta oraingoz, behintzat, ez da dago zozketatzeko etxe gehiagorik. Krisiaren eraginez asko moteldu da eraikuntza alorra.


Elkartrukean parte hartuko duten ikasleetako batzuk. | LOREA GOMEZ

# Musika eskolakoen elkartruke kontzertua

Jose de Azpiazuko neska–mutikoek Gernikako ikasleen bisita jasoko dute domekan

M.B. | OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek Gernikako musika eskolakoen bisita izango dute domekan. Elkartruke kontzertua egingo dute bi eskolek, domekan, 12:45ean, Santa Ana antzokian. Emanaldian parte hartuko dute bi eskoletako akordeoi eta gitarra taldeek. Mailaka banatuta, askotariko piezak eskainiko dituzte, hala nola *Piratas del Caribe*, *Yesterday*, *The pink panther*, *Ojos azules*, *La cucaracha*, *The lion sleeps tonight*, *Titanic* eta *Guk euskaraz*.

Bestalde, udaberriko kontzertuak bukatzeko, maiatzaren 3an azken emanaldia egingo dute. Musika eskolako abesbatzako 1. eta 2. taldeetako umeak, biolin taldekoak, akordeoi taldekoak eta lengoaia musikalekoak elkartuko dira. Santa Ana antzokian egingo duten zuzenekora joateko gonbidapenak jaso behar dira. Interesatuek musika eskolan jaso ditzakete.

**Txalaparta ikastaroa**
Musika eskolak txalaparta ikastaroa antolatu du, eta izena emateko epea zabalik dago hilaren 30era arte. Interesatuek 943 78 31 74 telefonora dei dezakete, edo mezua bidali *idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com* helbidera. Ikastaroa Xabier Arakama *Trikizio*-k emango du, aurreko urteen antzera. Izena ematen duten pertsonen arabera taldeak egin, eta egunak eta orduak zehaztuko dituzte.

Txalapartaren oinarrizko ezagupenetatik hasita, ikastaro praktikoa egingo du *Trikizio*-k. Norberak duen mailaren arabera sakondu ahal izango du txalapartarekin.

## Plater tiroketa saioa egingo dute domekan, Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria

M.B. | OÑATI

Pago-uso elkarteak antolatuta plater tiroketa saioa egingo dute domekan, hilaren 29an, 10:30ean. Foso modalitateko proba da, eta Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria izango da. Bi saio egingo dituzte: 10:30etik 13:30era arte eta 15:30etik 17:30era arte.

Parte-hartzaileek egunean bertan eman behar dute izena: bazkideek 30 euro, bazkide ez direnek 35, beteranoek 23 eta juniorrek, emakumeek eta hasiberriek 5 euro. Guztiek ere 25 plater erabiliko dituzte.

Hain zuzen, 1.470 euro, urdaiazpikoak eta kartutxoak banatuko dituzte saritan.

## Zirkulazio mozketak eta autobus zerbitzua Udanako igoeran

Bihar jokatuko dute Udanako igoera, eta horrek eragina izango du zirkulazioan. Olabarrietatik Legazpirako errepidea moztu egingo dute 12:30etik 20:30era. Bestalde, auto igoera ikustera joan gura dutenendako autobus zerbitzua egongo da: 10:00etatik 14:00etara arte bi autobus txiki ibiliko dira Olakuatik irtenda.

## Oñati Abesbatza eta Bergarako Orfeoia elkarrekin

Aitor Biainek zuzentzen duen Bergarako Orfeoiak *Musika erromantiko alemaniarra* delako kontzertua egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Santa Anan. Ondoren, Oñati Abesbatzak saioa egingo du, eta, kontzertua bukatzeko, bi taldeek elkarrekin egingo dute emanaldia, eta bien arteko elkartrukeari bukaera eman.

# NAZIOARTEKO VIII. MAGIA MOSTRA

## 2012, MAIATZAK 4 - 5 eta 6

## ELGETAKO ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN

### 4 - BARIKUA 22:30 MAGIA SAIOA

Prezioa: 15 €

**MagoMigue**

'AluCine' ikuskizun berriarekin



**Munduko Magia saria**

. Kartomagiako munduko txapelduna
. Publikoaren saria Elgetako 2006ko Magia Mostran

### 5 - ZAPATUA 22:30 MAGIA GALA

Prezioa: 18 €

**P-Cubique**

'Cubic Act'
- Ilusio handiak -

**Lehen saria Europako magia txapelketan**

. Lehen saria Frantziako magia txapelketan



**Enric Magoo**

'Frankie J.B.' ikuskizuna
- Magia komikoa -

**Mandrakes d'Or saria**

. Zilarrezko barita Montecarlon
. Magia komikoaren saria Lausanne hiriko jaialdian



**Charlie Mag**

'Gala ikuskizuna'
- Magia usoekin -

**Lehen saria mundu mailako mago gazteen txapelketan**

. Lehen saria Suitzan



**Silvana**

- Antzerki magia -

**Lehen saria Alemaniako Street Magic Festival jaialdian**

. Originaltasunaren saria Blackpool-eko jaialdian.



### 6 - DOMEKA

13:00 MAGIA KALEAN - Doan

. Brando eta Silvana. 'Circus'.
. Enric Magoo.



Sarrerak dagoeneko salgai. Bazkideendako bi ikuskizunetarako sarrerak: 23 € - www.espaloia.com - Tel.: 943 78 90 85

ANTOLATZAILEAK: Elgetako Espaloia Kafe Antzokia; Magialdia Vitoria-Gasteiz
BABESLEAK: Elgetako Udala; goiena Komunikazio Taldea
LAGUNTZAILEAK: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa; GEO Grupo Elcoro Decoletaje, S.L.; gizarte kutxa

# Ekainean zabaldu gura dute Ibarra kiroldegia

## LKS, Athlon eta Ondoan-ek osatutako hiruko enpresak kudeatuko du

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Aretxabaletako udalbatzak martitzenean egindako ezohiko osoko bilkuran onartu zuen kiroldegi berria kudeatuko duen enpresa: LKS, Athlon eta Ondoan enpresek osatutako hirukoa. Datozen hamar urteotan arduratuko da enpresa hori Ibarra izena izango duen kiroldegiaz.

Bi enpresa aurkeztu ziren Udalak egindako lehiaketa deira: batetik, azken urteotan kirol jarduerak ematen dituen Goiena Sport eta bestetik, hiru enpresen artean osatu duten hirukoa: LKS, Athlon eta Ondoan. Eta kontratazio mahaia osatu zuten urtarrilean bien proiektuak aztertu eta bat hautatzeko.

Mahai horretako kideek iritzi bateraturik ez zuten lortu eta kirol aholkularitzan aditua den Avento izeneko enpresari balorazio inpartziala eskatu zioten. Behin dokumentu guztiak esku artean kontratazio mahaiak hobetsi du LKS, Athlon eta Ondoan-ek osatutako hirukoa eta proposamen hori eroan zuen martitzeneko osoko bilkurara. Bilduko lau kide –Ana Bolinaga alkatea, Tomas Fernandez kirol zinegotzia, Zigor Quintanilla eta Maider Aizkorbe–, baina, ez ziren bat etorri; Goiena Sport-en alde egin zuten eta bestearen aurka bozkatu. Horren arrazoia izan zen puntu gehiago lortu zituela Goiena Sporten proiektuak.



Hirugarren solairuan dagoen igerileku nagusia, martxoan egindako bisitan. | M.A.

### Bilduko bi zinegotzi alde

Aventok egindako txostenak hiruko enpresa gomendatzen du nahiz eta puntuetan Goiena Sport nagusi izan. Hala, Edorta Mendieta Bilduko zinegotziak bi enpresak "berdinduta daudela esan daitekeela" adierazi zuen eta horren aurrean hiruko elkartearen proposamena dela "egokiena" Aretxabaletarako. Aralarko zinegotziak iritzi berekoak izan ziren "proiektu interesgarriagoa eta borobilagoa" dela hirukoarena esanaz.

Behin bozketa eginda onartu egin zuten proposamena EAko bi zinegotziren –Edorta Mendieta eta Lore Martinez– eta Aralarkoen botoekin. EAJko zinegotzi Mari Carmen Astigarraga, ostera, abstenitu egin zen "gestio txarra egin delako". Hiru zinegotzi falta izan ziren bilkura horretan: Bilduko Jose Luis Martin, EAJko Mikel Uribetxebarria eta PSE-EEko Ainhoa Sagarribai.

> **ESANAK**
>
> **"Berdinketa dago eta hiruko enpresa da egokiena"**
>
> EDORTA MENDIETA | ZINEGOTZIA

> **ESANAK**
>
> **"Puntu gehiago ditu Goiena Sport-ek, eta hari dagokio"**
>
> ANA BOLINAGA | ALKATEA

### Abonatze kanpaina laster

Kiroldegiaren irekiera data maiatza izango zela jakinarazi zuen alkateak orain hilabete inguru, eta horren bueltan ibiliko delakoan dago oraindik, nahiz eta eraikinaren azken ukituak guztiz bukatzea "kosta" Galdiano enpresari: "Maiatzean ukitu guztiak egiten bukatuko dutelakoan gaude eta gero Industria Saileko ikuskaritza pasatuko da oniritzia ematera. Tarte horretan, enpresa kudeatzaileak makinak erosteko denbora izango du eta ondo bidean ekainean zabalik izango da". Kiroldegi inguruko urbanizatze lanak ere oraindik egiteko daude baina hamar bat egunetan eginda egongo direla iragarri zuen, "onartuta daudelako".

Zabaldu aurretik, baina, abonatze kanpaina egingo dute eta Adox diseinu eta komunikazio enpresa arduratuko da. Tarifak dagoeneko zehaztuta ditu hirukoak, eta horien berri ematen hasiko dira laster. Hala ere, tarifa horiek behin-behinekoak direla jakinarazi dute eta aldaketatxo batzuk izan ditzaketela.

**TARIFAK***
HILABETEKOAK EUROTAN

| | ARETXABALETAN ERROLDATUAK | KANPO. |
|---|---|---|
| Umea (3-13) | 14,04 | 15,12 |
| Gaztea (14-17) | 21,60 | 23,76 |
| Heldua (18-65) | 25,92 | 29,16 |
| Nagusia (65 urtetik gora) | 17,28 | 18,36 |
| Heldua + umea | 34,56 | 37,80 |
| Heldua + 2 ume | 43,20 | 48,60 |
| Heldu 2 + ume 1 | 51,84 | 58,32 |
| Heldu 2 + 2 ume | 51,84 | 58,32 |
| Heldu 1 + haur 1 + gazte 1 | 47,52 | 52,92 |
| Heldu 1 + gazte 1 | 38,88 | 43,20 |
| Heldu 1 + 2 gazte | 51,84 | 57,24 |
| Heldu 2 + haur 1 + gazte 1 | 58,32 | 66,96 |
| Heldu 2 + gazte 2 | 64,80 | 75,60 |
| Nagusi 1 + heldu 1 | 43,20 | 47,52 |
| Heldu 1 + 3 ume | 25,92 | 58,32 |
| Heldu 2 + 3 ume | 25,92 | 58,32 |
| Heldu 2 + ume 2 + gazte 1 | 29,16 | 66,96 |
| Heldu 2 + ume 1 + gazte 2 | 32,40 | 75,60 |
| Elbarriak | 6,48 | 7,56 |
| Jarduerak | 10,80 | 10,80 |

* Matrikula gehitu behar zaie; behin-behinekoak dira. Horrez gainera, posible da beste aldaketa batzuk ere izatea.

---

### Uztaileko udaleku irekietarako izen-ematea zabalik

Uztailaren 2tik 20ra bitartean egingo diren udaleku irekietan izena emateko epea zabalduko du Udalak maiatzaren 2an, eguaztena. 2000-2008 urte bitarteko neska-mutikoek parte hartu ahal izango dute (2008an jaiotakoek bakarrik goizez). Hona ordutegia: 10:00 -12:30 eta 15:00-17:00.

Izena emateko Gazteria Zerbitzura jo (udaletxeko bigarren solairua) astelehen eta eguaztenetan (09:00-13:00 eta 15:00-17:00); eta Arkupera martitzen eta eguenetan. Azken eguna maiatzaren 14a da, eta antolatzaileek jakinarazi dute ez dutela epez kanpoko izen-ematerik onartuko.

### Liburu eta disko truke azokaren azken eguna gaur

Literatura Astea antolatu dute lehenengoz Udalak, ikastetxeek, Loramendik eta euskaltegiak elkarrekin, eta hainbat ekitaldi egin; tartean, parte-hartze handia izan zuen Irakurketa Maratoia astelehenean. Liburu eta diskoen truke azoka, ostera, aste osoan egon da zabalik eta gazte eta heldu asko pasatu dira handik.



M.A.



Bihar kontzertua eskainiko duten Bartzelonako Orfeó Laudate abesbatzako kideak. | M.A.

# Bartzelonako Laudate orfeoiaren kontzertua bihar

Aretxabaleta Abesbatzarekin egindako elkartrukeari esker datoz; parrokian abestuko dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Bihar, zapatua, Bartzelonako Orfeó Laudate abesbatzak kantatuko du Andre Mariaren Zeruratzearen parrokian (20:00). Udalaren babesarekin eta Aretxabaleta Abesbatzarekin egindako elkartruke programa bati esker dator talde katalana gurera, eta aste bukaera osoa pasatuko du Euskal Herrian; tartean Loiolako santuegian meza kantatuko du domekan (12:00). Aurrerago aretxabaletarrak joango dira Bartzelonara bisita itzultzera.

**70 urteko ibilbidea**

Bartzelonako Orfeó Laudate abesbatza 1942ko ekainean sortu zuten musika erlijiosoa lantzeko asmoarekin, baina berehala hasi zen beste musika alor batzuk lantzen, batez ere Kataluniako musika herrikoia. Hala, tradizio katalanaren edertasuna aldarrikatzen egin dute lan eta Kataluniako historian esanguratsuak izan diren hainbat ospakizunetan hartu dute parte. Europako hainbat herrialdetan abestu du Orfeó Laudatek, tartean, Alemanian, Austrian, Frantzian eta Galesen. Kataluniako Generalitat-ek Ohorezko Saria eman zion 1992an, abesbatzaren 50. urteurrenean, kultura zabalkundean egindako lanagatik.

**Kataluniako kantu popularrak**

David Malet zuzendariaren gidaritzapean bi eratako abestiak kantatuko dituzte bihar: batetik, John Dowland (Ingalaterra, 1563-1626) konposatzailearen lanak, eta bestetik, Kataluniako musika popularrari dagozkion kantuak, horien artean: *Muntanyes de Canigó* (Nadal Puig) eta *El testament d'Amèlia* (Enric Morera).

**Domekan Iruñera**

Bestalde, domekan, Iruñera joango da Aretxabaleta Abesbatza Nafarroako Unibertsitate Klinikaren 50. urteurren ospakizuneko meza kantatzen (12:00). Espainiako 4.000tik gora lagunek parte hartzea espero da, eta aretxabaletarrek gregorianoko eta polifonia sakratuko lanak interpretatuko dituzte, besteak beste, Mozartenak, Haendelenak eta Otañorenak.

# Isasmendi abizenaren nondik norakoak azalduko ditu Benavente katalanak bihar

Goroeta auzoan jatorria duen abizenaren gaineko ikerketa egin berri du

M.A. | ARETXABALETA

Ramon Benavente Freixas kataluniarrak Isasmendi abizenaren gaineko ikerketa egin du eta liburuan jaso dute orain: *Goroetako Isasmendi baserria. Isasi Isasmenditarren jaiotetxea*. Horren berri ematera dator bihar, Arkupera (12:00).

Benavente genealogista kataluniarrak bi urteko ikerketa sakona egin du, eta horren ondorioa da abizen horrekin lotuta jaso dituen 308 orrialde eta 48 zuhaitz genealogikoak. Guzti hori lortzeko, Euskal Autonomi Erkidegoko 18 artxibo, Espainiako beste zazpi eta Argentinako bat kontsultatu ditu.

Hala, jakin du egun Isasmendi deitura bakarrik dutenak ere Isasi Isasmendi zirela jatorrian: "Isasmendik adar bakarra dauka: Goroeta elizatetik datorrena. Ez dago besterik, eta hori ez da batere normala; bakarra dela esango nuke. Isasi abizenak, ostera, hainbat adar ditu Euskal Herri osoan sakabanatuta". Eta jakinarazi du Isasmendi abizenaren sei aldaera sortu direla azken bost mendeetan: Isasmendi; Ysasmendi; Isasi-Isasmendi; Isasi Isasmendi; Ysasi-Ysasmendi; eta Ysasi Ysasmendi. Horren guztiaren gainean jardungo du bihar Arkupeko Zaraia aretoan.

# Kurtzebarriko ikasleak oso gustura Holandan

Europako zazpi herrialdetako ikasleak elkartu dira eta ekintza mordoa egin dituzte

M.A. | ARETXABALETA

Kurtzebarri institutuko laugarren mailako ikasleak Holandan izan ziren martxoan. Dagoeneko seigarren urtez egin dute elkartrukea Cuijk hiriko Merlet college ikastetxearekin.

**Esperientzia aberasgarria**

Urrian Holandako ikasleak izan ziren gure artean eta orain bisita itzuli die aretxabaletarrek: "Esperientzia benetan aberasgarria izan da bertako familietan egotea, bai ingelesez komunikatzeko, bai bertako kultura eta ohiturak ezagutzeko", jakinarazi dute Kurtzebarrikoek.

Elkartrukeko aste horretan Europako zazpi herrialdetako ikasleak elkartu ziren Merlet college-n: Italia, Frantzia, Estonia, Lituania, Kroazia, Herbehereak eta Euskal Herria. Eta hainbat ekintza egin zituzten: herrialdeen arteko kirol lehiaketak; hemengo kulturaren berri eman; Amsterdam eta Nijmegen hiriak bisitatu… Hori horrela, oso pozik itzuli dira ikasleak.



Kurtzebarriko eta Holandako ikasleak elkarrekin. | KURTZEBARRI INSTITUTUA

## ATXABALTA LEHIAKETA

**Hartu parte eta irabazi hainbat sari** Loramendi

**19.** Isurietan, Bolinagan, Azatzan garai baten karobixak izan ziren. Zertarako erabiltzen zen bertatik ateratako karea? Esan 3 erabilpen gutxienez:

**20.** Zein ez da sinonimoa?
a) melokotoia b) atala c) matrakia d) atxurra

**Erantzunak eta zure datuak** (moztu azpialdea) Loramendi Elkartera ekarri (16:00-20:00) edo bidali hona: Aretxabaletako 96 posta-kutxa edo *lehiaketatxabalta@gmail.com*.

19:__________ 20:____
Izen-abizenak:__________ Tel.: ______
**Azken eguna: maiatzaren 4a.**

**Aurreko galderen erantzunak:**
**17:** Zor dan bidea, hau da, pasatzeko eskubidea duzun bidea.
**18: c)** Lantzian behin.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
25 urteurrena
• **Juridikoa:**
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.
• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.
**Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12**
***www.zenbaki.es***


Osoko bilkuren aretoan elkartu ziren martitzen arratsaldean umeak eta udal ordezkariak. | MIRIAN BITERI

# Hilean behin baserritarren azoka egitea eskatu diote umeek Udalari

Eskola Agenda XXI programaren harira elikadura iraunkorra aztertu dute

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Ikasturtean elikadura iraunkor edo jasangarria aztertu ostean, martitzenean lan horien zehetasunak azaldu, eta hainbat proposamen egin zizkioten ikastetxeetako umeek udalbatzari. Lehen ziklokoek gosari osasuntsuak landu dituzte, eta, horretarako, herriko okindegi eta fruta-dendetara joan dira, eta ondorioztatu dute saltzen dituzten produktu asko "urrutitik" datozela, eta bidean, ingurumena kutsatzen dutela. Hori dela eta, eskatu zuten dendariek inguruan egiten diren produktuak sal dezatela eta etiketa bako elikagaien jatorria adieraz dezatela.

3. eta 4. mailetakoek munduan jaten dena, jakietan gastatzen dena eta janariaren inguruan sortzen den zaborra aztertu dutela azaldu zuten. Hau proposatu zioten Udalari: hondakin gutxiago sortzen dituzten produktuak erostea bultzatzea, etxeetara ontzi eta poltsa berrerabilgarriak bidaltzea, lurralde txiroetara janaria bidaltzeko kanpaina egitea eta horiendako diru partida sortzea. Bestalde, 5. eta 6. mailetakoek, jaten duguna sasoikoa den aztertzeko hainbat ortu bisitatu ostean, udalbatzari honakoa eskatu zioten: sasoiko produktuak erostea bultzatzea, baserritarrei dirulaguntzak ematea eta hilean behin azoka egitea.

**Nekazaritzarako lur gehiago**

DBHko 1. mailakoek elikadura burujabetza kontzeptua landu dute. Lurren erabilpena aztertu dute, horretarako 1954ko eta 1983ko urteetako ortofotoak alderatuta. Egungo egoeraren berri jasotzeko ibilbidea ere egin dute, eta ondorioztatu dute eraikuntzari lehentasuna ematen zaiola. Horren aurrean, nekazaritzarako lur eremu gehiago sortzea proposatu zuten. 3. mailakoek, ostera, elikadura burujabetzarekin batera, segurtasuna jorratu dute. Baserria bisitatu eta naturarekin bat doan nekazaritza zertan datzan ikusi ostean, Eskoriatzan kontsumo taldeak bultzatzea eskatu zuten.

Beñat Herce alkateak jakinarazi zien iaz zarataren harira egindako proposamen gehienak izango dituztela kontuan. Besteak beste, autoen abiadura murrizte aldera, zebra-bide altxatuak jarriko dituztela azaldu zien. Dorletatik pasatzen den bidegorrian dauden babes gardenetan txoriak ipiniko dituztela ere esan zuen.

## NIRE USTEZ


MARIJO PAGALDAI

### Eginaz egiten dut

Behin lagun batekin hizketan honakoa galdetu zidan: "¿Sabes cuál es el presente indicativo del verbo *querer?*". Eta erantzuna eman zidan: "Yo hago". Ze ona! Ezta? Beraz, nik zerbait benetan nahi dudanean, ez da gogo hutsean gelditzen, nire borondatea ere tartean sartzen da eta ekintza bihurtzen da.

Hau beste filosofo eta pentsalari batzuek ere sumatu zuten edo bizitzak erakutsi zien eta ondoren, belaunaldiz belaunaldi transmititu diren esaldiak sortu zituzten, horietako batzuk gure esaera zaharretan ere gordetzen direnak: "Nahi izatea, ahal izatea", "Nahi bada, egin ezinik ez da", "Ezina ekinez egina", "Ibilian-ibilian bidea urratu", "Zelan erein hala bildu", "Nahi duenak ahal du, nahi ez duenak guztia galdu".

Orain nirekin esaldi horien gainean hausnartzea/gogoeta egitea proposatzen dizuet eta gure eguneroko bizitzarako zer dakarten edo zer esan nahi duten pentsatzeko tarte bat hartzea.

Zer nahi dugu? Zer egiten dugu? Benetan nahi duguna ez dadila gelditu ideal, gogo eta hitz hutsetan. Bihurtu ditzagun jarduera eta ekintza.Erabili dezagun egiteko dugun borondatea. Beharbada, lur berri bat eta gizadi berri bat eraiki ahal izango dugu denon artean. Eskerrik asko.

**"Benetan nahi duguna ez dadila gelditu ideal, gogo eta hitz hutsetan"**

## OHARRAK

**HORMA-IRUDIA**
Gaur horma-irudia egingo dute ludotekan, 18:00etan.

**SEXUALITATE TAILERRA**
Hitzordu hirukoitza dago gaztelekuan: gaur, mutilendako sexualitate tailerra; bihar, hiruko saskibaloi txapelketa; eta etzi, zirku tailerra. 18:00etan hasiko dira hirurak.

**KIROL HITZORDUAK**
Bihar, 10:30ean, kadeteetan, Arizmendi-Eskoriatza eta Goierri arteko saskibaloi partidua dago; eta 17:00etan, areto futbolean, Euskal Ligan, Lagun Onak Galdakao taldearen kontra lehiatuko dira etxekoak.

## 'Euskararen espektakulue' gaur Oihan Vegarekin

Antzerki emanaldia dago gaur, egubakoitza, 22:30ean, unibertsitatean: *Euskararen espektakulue. Zergatik praktikatzen dugu sexua erderaz?* Umorea eta sarkasmoa erabiliz, euskararen erabileraren gaineko hausnarketa egitera gonbidatuko ditu ikusleak Oihan Vega bergararrak eta Aretxabaletako beste hainbat artistak; tartean, Kepa Errasti dago.

Bakarrizketa, film labur eta pasarte dibertigarriak eskainiko dituzte, musikaz, kantuez eta zinemaz lagunduta. *Euskararen espektakulue* ikuskizunak ez du inor axolagabe utziko.

## Jolas tradizionalen jaialdia egingo dute gaur Santa Mariñe plazan

*Kataia eten barik* egitarauaren harira, jolas tradizionalen jaialdia egingo dute gaur, bigarrenez, Santa Mariñe plazan. Sei joko izango dituzte 6 urtetik gorako neska-mutikoek: kanikak, txapak, koadroa, tirabikea eta arrautza eta koilararen eta sagarren jokoak. Bada, parte hartzen duten umeek txartela jasoko dute, eta, zirkuitu guztietatik pasa ostean, poltsa batean sartuko dute hori. Hain justu, zehaztasun handiko tirabikea zozketatuko dute amaitzen dutenen artean. Udaletik jakinarazi dute 18:00etatik 20:00etara izango dela jaialdia; eguraldi txarra eginez gero, bertan behera geratuko da ekintza.

## Eguenean zabalduko dute udaleku irekietan izena emateko epea

Uztailaren 3tik 20ra egingo diren udaleku irekietan izena emateko epea zabalduko dute eguenean, maiatzak 2. Izena emateko bi toki jarri dituzte: Kultura etxean dagoen Gazteria Zerbitzuan astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara; eta Tortolis ludotekan astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara.

Interesatuek maiatzaren 14ra arte dute izena emateko aukera. Horren harira, Udaletik ohartarazi dute ez dela epez kanpoko izen-ematerik onartuko. 2000. eta 2008. urte bitartean jaiotako haurrei zuzenduta dago hori.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 40 10 • Faxa: 943 71 31 45

# Entrenamendu pertsonalizatuen eskaintza, lehenengoz

Patinaje eta erditze osteko ikastaroetan izena emateko aukera dago

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Hiruhileko berria abiatu du Antzuolako Udal Gimnasioak. Ohiko eskaintzaz gain, patinaje ikastaroa eta gimnasia abdominal hipopresiboa ikasteko aukera dago oraingoan. Asteon hasi diren arren ikastaroak, oraindik ateak zabalik dituztela azaldu digu Xabier Azkarate irakasleak. "Patinaje ikastaroa uztailera arte zabaldu dugu; Udal Gimnasioan 2011-2012ko hirugarren hiruhilekoari ekin diogu. Fitness gela, pilates, eguerdiko ordutegi pack eta ohiko aukera guztiez gain, patinajea eta gimnasia abdominal hipopresiboa ikasteko aukera izango da. Uztailera arteko ikastaroak izango dira", azaldu digu Azkaratek.

Abdominal hipopresiboa eskaintza aberasgarria dela kontatu digu: "Abdominalak gogortzeko jarduera da. Hipopresioek azpiko zuntzak gogortzen dituzte eta abdominal tradizionalek uzten duten gabezia horren osagarri dira". Herritar guztiei bideratuta dagoen eskaintza da. "Gimnasia abdominal hipopresiboa erditze osteko emakumeei bideratuta dagoen gimnasia izan arren, abdominal hipopresibo ikastaroa gizonezko nahiz emakumezkoendako ere bada, eskaintza herritar guztiei zabalik dago", gaineratu du. Hiru hilabeteko eskaintza da, eta astean 50-60 minutuko bi saio izango ditu.

Patinaje ikastaroa, aldiz, astean bitan izango da eta uztailaren 12ra arte eskolako patioan egingo dute.



Xabier Azkarate irakaslea, spinningeko gelan. | MAIDER ARREGI

**Saio pertsonalizatuak**

Goi mailako errendimenduan masterra egin duen irakasle batek eskainiko ditu entrenamendu pertsonalizatuak Udal Gimnasioan. Lehenengoz eta modu profesionalean: "Helburu ezberdinak betetzeko entrenamendu pertsonalizatuen eskaintza da: argaldu edo prestaketa bereziren bat egin nahi dutenendako aukera izan daiteke. Baita oposizioren bat prestatu nahi duen edonorendako; suhiltzaile oposizioak prestatu nahi duenarendako, adibidez". Hala, gimnasioan testak eta probak egingo zaizkie interesatuei eta horren araberako entrenamendua jarriko zaie. Helburuen arabera entrenamendu bat egingo zaiela azaldu digu Azkaratek: "Helburua izan daiteke errendimendura, osasunera edo entrenamendu fisiko batera bideratzea. Aspaldian *boom* antzeko bat dago. Jende asko hasi da triatloietan, mendi lasterketetan eta antzeko probetan. Kontrol falta dagoela ikusi dugu, jendeak Interneten begiratzen ditu-eta entrenamenduak, eta horregatik erabaki dugu zerbitzu hau eskaintzea".

ESANAK

**"Entrenamendu askotan kontrol falta dagoela ikusi dugu"**

XABIER AZKARATE | IRAKASLEA

**Izena emateko**

Informazio gehiago Udal Gimnasioan eskuratuko duzue, hara deitura (943 76 66 61) edo *antzuolakogimnasioa@gmail.com* helbidera idatzita.

## Emma Ocamica: "Memoria egunero landu behar da"

Maiatzaren 2an hasiko da memoria tailerra

M.A | ANTZUOLA

Emma Ocamica terapeutak eskainiko du datorren hastean hasiko den memoria lantzeko tailerra. Azaldu digunez, buruko area kognitibo guztiak estimulatzeko ikastaroak dira. "Kurtso osoan, garuneko gune kognitibo guztiak estimulatuko ditugu saio ezberdinei esker. Ariketa bakoitzak burmuineko area konkretu bat estimulatzen du, hori da helburua, garun osoa lantzea".

Pertsona nagusiendako bideratutako ikastaroa da: "Ondo dauden pertsona nagusiendako da; aktibo sentitu eta mantendu gura dutenendako da". Izaera prebentiboko tailerra dela eta giharrendako gimnasiora joatea bezala dela azaldu digu: "Egunero area kognitibo bat landu beharra dago. Garuna zenbat eta gehiago estimulatu, orduan eta hobeto zahartzen dela frogatuta dago; Burmuina muskulua bezalakoa da, ez badiozu lana eginarazten, zahartu egiten da, erdoildu; zenbat eta gehiago landu, orduan eta aktiboagoa da". Zahartzaro aurreko dementzia saihesten laguntzen dute tailer hauek. Izaera prebentiboko kurtsoa dela eta memoria tailerren eragingkortasuna frogatuta dagoela gaineratu digu. "Buruko zenbait gaixotasun ez garatzeko lagungarriak dira", dio. Zerebroa egunero erabiltzen dugula, baina egunerokotasunaren errutinan soilik, dio Ocamica terapeutak.

**Bederatzi saio**

Maiatzeko eta ekaineko eguaztenetan izango dira saioak Torresoroko eguneko zentroan, 15:30etik 17:00etara. Izena emateko epea zabaldik dago hilaren 30era arte.

## Batzarkide berriak aukeratu dituzte urteko batzar orokorrean erretiratuek

M.A. | ANTZUOLA

Genaro Laskurain presidente aukeratu dute, Fernando Agirre presidenteorde eta Mari Carmen de Juan bokal. Elkarteak balorazio ona egin du. "Jendeak oso ondo erantzuten du antolatzen diren ekintzetan: antzerkietan, hitzaldietan, meriendetan... Egunero 20 bat lagun izaten da elkartean; domeketan gehiago, kina egiten dugu-eta", azaldu digu Anastasi Gabilondo elkarteko idazkariak. 2012rako aurrekontua eta ekintzak ere onartu zituzten. Diru kontuei dagokienez, tabernakoa nabarmendu zuten. "Tabernan, boluntarioei esker, ez dago gasturik", gaineratu digu.

## OHARRAK

**JAIAK**

Antzuolako jaietako egubakoitzean, uztailaren 13an, kale bazkaria izango da. Mahaiak eskuratzeko izen-ematea ekainean zabalduko dute. Udalak abisatuko du zein egunetan.

**UDALEKUAK**

Uztaileko udalekuetan izena emateko epea gaur, egubakoitza, amaitzen da. Uztailaren 2tik 12ra bitartean izango dira udalekuak, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

**ARGAZKI LEHIAKETA**

*Antzuola eta antzuolarrak* argazki lehiaketan parte hartzeko epea maiatzaren 4ra arte zabalik dago. Lanak koloretan edo zuri-beltzean aurkez daitezke; gehienez, hiru argazki. Lanak udaletxera eroan behar dira.

### Kukumarro lehiaketan izena eman daiteke maiatzaren 16ra arte

Aurten hamahirugarrenez deitu dute kukumarro lehiaketa. Hiru maila izango dira: 12 urtetik beherakoendako, 12 urtetik gorakoendako eta erretiratuendako. Talde bakoitza, gehienez, lau lagunekoa izango da. Erakusketa maiatzaren 19an egingo da, San Isidro egunean, 11:00etan, botika inguruan, iturriaren bueltan.

### Iparraldera irteera antolatu du Arrola mendi taldeak

Maiatzaren 12an eta 13an izango da irteera. Lehenengo egunean Izpegitik Bidarrairaino egingo dute ibilaldia, eta han lo egin. Domekan Baigorritik Donibane Garaziraino. Izena emateko azkeneko eguna maiatzaren 7a izango da, Olaranen, 19:30etik 20:15era. Ordua eta ordaindu beharrekoa aurrerago zehaztuko da.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Oxel Erostarbe** | Elgetako alkatea

# "Mankomunitateak ze asmo daukan jakin gura dugu"

## Zaborren kudeaketaren gainean Mankomunitatean hausnarketa sakona egin behar dela dio Erostarbek



Oxel Erostarbe, martitzenean, Goiena telebistako *Harira* saioan. | ENEKO AZKARATE

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Oxel Erostarbe martitzenean izan zen Goiena telebistako *Harira* saioan. Aralar alderdian jarraitzea espero duela adierazi zuen, baita Elgetako Udalak herritarrekin batera hartuko duela hiri hondakinen inguruko erabakia. Bestetik, gogor salatu zituen Elgetaren bonbardaketaren 75. urteurreneko egunean militarrek herrian egindako maniobra militarrak.

**Zeresana eman dute militarrek Elgetan egindako maniobrek.**

Bai. Hasieran, sinetsi ere ez genuen egiten. Iraina, probokazioa izan da, eta azalpenak eskatu ditugu.

**Zure egoera pertsonalera etorrita, Aralartik kanpo ikusten duzu zure burua?**

Aralarren nago eta uste dut Aralarren jarraituko dugula Aintzanek, Mikelek eta hirurok. Ez nuke ulertuko beste erabakirik. Kontzientziaz eman genuen boto hori, eta sinesten dut ondo egin genuela.

**Elgetako udalbatzan zelakoak dira harremanak?**

Uste dut Aralar-Independenteak taldean erakutsi dugula —aurreko agintalditik, gainera— gura dugula eraiki behar den etorkizuneko ezker abertzale hori, egunez egun, desberdinen arteko lanean eraiki. Bilduk bi batzorde-burutza laga ditu. Errespetatzen dut erabakia, baina ez dut ulertzen.

**EAJrekin sintonia hobea da, ezta?**

Harremanak berdinak dira. Gauza da batzuek jarraitzen dugula herria arduratik eraiki guran eta beste batzuek erabaki dutela oposizioan egotea.

**Bigarren agintaldia duzu alkatetzan. Zelakoa izaten ari da honakoa?**

Desberdina. Orain esperientzia handiagoa dugu, eta hainbat proiektu ditugu mahai-gainean, baina egoera ekonomikoa oso zaila da. Dena den, segitzen dugu proiektu ezberdinekin, eta uste dut bideratzen ari garela.

**Proiektu horietako bat Asentziokoa da. Aurreko agintaldian Angiozarkoak haserretu ziren, oraingoan Bildu. Ze asmo duzue?**

Lursail bat erosiko dugu, biodibertsitatea berreskuratuko dugu putzuan, pagadia birlandatuko dugu… badira gauza batzuk egin nahi ditugunak, eta Angiozarkoekin adosten ari garenak. Inbertsioa 230.000 eurokoa da, baina finantzatuta dago portzentaje handian. 168.000 euro kanpotik etorriko dira; hala, Udalak 60.000 euro ipini beharko ditu. Egia da inbertsio handia dela Elgetarako, baina dirulaguntza ere bai. Horrek eragin dezakeela aurtengo aurrekontuko diru-lerro batzuk ez exekutatzea? Izan daiteke, baina lehentasunak ipiniko ditugu.

**Murrizketa horiek non aurreikusten dituzue?**

Ba, aztertzen ari gara. Gure irizpidea da bizi dugun egoera ekonomikoan ezin dugula mailegurik eskatu. Orduan, inbertsioak egin behar ditugu lortzen ditugun dirulaguntzekin. Hortik eraman nahi dugu gure politika ekonomikoa.

Aurrekontua gurea moduko herri batera egokitu behar dugu, eta egoera ekonomiko honetan erabakiak hartu beharko dira. Ez dira errazak izango, eta, esan bezala, lehentasunak finkatu beharko ditugu. Akaso, ezin izango dugu irisgarritasun planean aurrera egin, ez eta aurreikusita geneukan udal eraikinen ikuskaritza ekonomikorik egin.

**Domingo Iturbe patronatuaren ingurua txukuntzea da agintaldiko beste inbertsio potoloa.**

Bai, eta uste dut lanak irailerako -edo bukatuko direla, eta eskolak edukiko duela jolastoki estalia. Proiektu honek adar asko zituen. Eraikina Artzapezpikutzarena zen, finantzazioa egin behar zen, bideragarritasuna zalantzan zegoen… Poliki-poliki lanak fruituak ematen ditu. Uste dut edozein proiektutan sartzen garenean zorrotz begiratu behar dugula bideragarritasuna, eta horrela jarraituko dugu.

**Gainontzekoan, zelakoa da egoera ekonomikoa Elgetan? %10eko langabezia maila duzue.**

Maila handia da bizi izan dugun egoerarekin alderatuta, baina

### OPOSIZIOKO ALDERDIEN BALORAZIOA ETA ALKATEARI GALDERAK

**Janire Lazkano** | Bilduko bozeramailea

#### "Tentsio une asko eman dizkigu"

"Alkatetza honek tentsio une asko eman dizkigu, eta pentsatzen dugu ezjakintasunean ere laga izan nahi gaituela. Otsailean iritsi zen tentsio une garrantzitsuenetariko bat. Proposaturiko murrizketak ez zitzaizkigun logikoak iruditzen, eta koherenteena gure aldetik bi batzorde-burutzak lagatzea iruditu zitzaigun. Foru Funtsak sortu duen desfasea Asentzioko proiektua gelditzearekin bakarrik konpentsa daiteke zerbitzu murrizketarik egin gabe".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Uste dut ez dela egon tentsio unerik, eta egon bada edo Bilduk gauza batzuk ez baditu logikoak ikusten, normalena da alkatearekin edo bere taldearekin berba egitea, ez bi batzorde-burutzak azalpenik eman gabe eta erabakiak hartu aurretik lagatzea. UEMAtik irtetea, edo dena delakoa, denon artean erabaki beharko dugu".

**Hiri hondakinen inguruan ze asmo duzue epe ertainera?**

"Debagoieneko Mankomunitateari eskatu diogu duela bi urte hartutako konpromisoak zertan diren eta ze asmo duen garbi azaltzeko. Elgetan erabakia herritarrekin batera hartuko dugu. Mundu guztia trankil egon dadila, horixe egingo dugu–eta!".

**Bi kargu publikoak bateragarriak direla pentsatzen duzu?**

"Bai. Ez dut uste Elgetako Udalak ematen duenik alkate bat liberatuta egoteko ez dakit zelako soldatarekin. Eta ni legebiltzarkide izateak ahalbidetu du alkatearen soldata herriko beste gauza batzuetarako erabiltzea".

**Patxi Basauri** | EAJko bozeramailea

#### "Prest gaude lanean jarraitzeko"

"Goiz da balorazioa behar den moduan egiteko, baina prest gaude lanean jarraitzeko, eta zentzu horretan egiten dugun balorazioa positiboa da. Bi batzorde-burutza ditugu, Turismoa eta Baserritarrak, eta pentsatzen dut hartutako konpromisoak betetzen ari garela. Bilduk utzi egin ditu hartu zituen batzorde-burutzak… euren arrazoiak izango dituzte. Guk herriaren alde lan egiten jarraituko dugu".

▶ **ALKATEAREN ERANTZUNA**

"Bai, balorazio honen aurrean ez dut ezer gaineratzeko. Gauza da batzuek jarraitzen dugula herria arduratik eraiki guran, herriaren alde arduratik lan eginez, eta beste batzuek erabaki dutela oposizioan egotea. Uste dut egoera tentsio handikoa dela errealitate ekonomikoa bera tentsio handikoa delako eta horrek erabakiak hartu beharra eskatzen duelako; erabaki zailak, gainera".

**Udalak babestuko luke lau t'erdiko pilota txapelketa?**

"Dirulaguntzak %100 mantentzea erabaki dugu aurten, eta horrela jakinarazi genien Ozkarbi pilota elkartekoei ere. Egongo gara Ozkarbi elkartekoekin; dena den, uste dut ez dagokiola Udalari elkarteen funtzioak betetzea".

**Elgeta 21 moduko dinamikarik jarriko duzue martxan?**

"Egia da baliabideak edukitzeak laguntzen duela, baina egoera honetan Elgetako Udalak ezin du horrelako dinamika bat bere gain hartu. Akaso beste bide batzuk jorratu beharko genituzkeela? Ahalegina egingo dugu".



## HERRITARRAK ALKATEARI GALDEZKA

**Ziurta dezakezu datorren uztailetik aurrera Elgetako eguneko zentroak zabalik jarraituko duela?**

"Ziurtatu esatea asko esatea da. Gainera, Diputazioa erakunde bakoitzaren eskumenak zeintzuk diren finkatzen ari da, eta badirudi hark hartuko duela eguneko zentroena. Beste kontu bat da zerbitzua zeinek emango duen. Gurean zerbitzu sozialak aurrera eramateko Bideberri mankomunitatea sortu dugu, eta logika baten barruan sartzen da esleipen bateratua egitea".

**Txakur-kaka gero eta gehiago dago herriko berdegune eta espaloietan. Zer egingo du Udalak?**

"Egia da egoera jasanezina bihurtu dela, eta Udaletik hainbat neurri hartzea lantzen ari gara. Hartu izan ditugu neurriak, baina gehiago hartu beharko ditugu; izan ere, egoera ez da batere hobetzen. Txakur-jabeei euren arduren berri ematen jarraitu beharko dugu, sentsibilizazio lana egiten. Dena den, gaur egun oraindik ere esaten egon beharra... Baina horretan jarraitu beharko dugu, edo neurri zorrotzagoak hartu".

**Pinu landaketak direla-eta, aspaldi honetan Intxortako beleta ez da herritik ikusten; zer egin dezake Udalak?**

"Duela zortzi urte Udalera aurkeztu ginenean guk jaso genuen gai hori gure programan. Egia da herritar batzuen aspaldiko eskaera dela beleta berriz ere herritik ikustea. Gestioetan aritu gara, eta, pinuak landatuta dauden lursail horiek erostera joan garenean, balio dutenaren bikoitza edo hirukoitza eskatu digute. Udaletik prest gaude lursail horiek erosteko, baina dagokion prezioan, ez garestiago".

eskualdeko beste hainbat herritan baino hobea da. Egia da gero eta gehiago direla lan barik gelditzen ari diren lagunak, baina ez da erraza Udaletik eskaintza askorik egitea.

**Ostalaritza-merkataritzan, ordea, zerbitzu berriak zabaldu dira.**

Elgeta herri bizia da, eta gabezia batzuk zeuden. Zorionez, gabezia horiek betetzen ari dira poliki-poliki. Udaletik elkarlanerako borondatea eta ditugun baliabideak eskaintzen jarraituko dugu. Elgetarrei, berriz, esango diet herrian dendak, tabernak, harategia edo arrandegia nahi baditugu, erabili egin behar ditugula. Egongo dira erabiltzen baditugu; bestela, poliki-poliki itxi egingo dituzte.

**Egia da Espaloia dela herrira jende gehien erakartzen duen eskaintza?**

Nire ustez, Espaloia da Elgetako komertzioari eta herriari bizia ematen dio motorra. Ez bakarrik eskaintzen duen kultura eskaintza zabalagatik. Jendea erakartzen du herrira, eta horrek beste tabernetan dinamika bat sortzen du, herriko komertzioetan ere eragina du... Beti sinetsi dut proiektu horretan, eta uste dut Elgeta ezagutzera emateko tresna garrantzitsuenetako bat dela.

**Zer gertatuko da Elgetan hiri hondakinen kudeaketarekin?**

Sinesten dugu sailkatutako ahal den zabor gehien batu behar dela. Hortik aurrera, Debagoieneko Mankomunitatearen asmoa zen den jakin gura dugu. Zer eman du Antzuolakoak? Ze bideragarritasun eta ze kostu dauka? Kostuetan ze alderaketa dago lehen izaten zenarekin, eta bilketa portzentajeetan zein da aldea? Jakin nahi dugu Debagoieneko Mankomunitateak ze asmo daukan,

> **"Esperientzia handiagoa dugu; egoera ekonomikoa oso zaila da, baina"**

> **"Domingo Iturbeko lanak irailerako-edo bukatuko direla prentsatzen dut"**

> **"Espaloia da komertzioari eta herriari bizia ematen dion motorra"**

baina ez soilik bilketaren gainean, baizik eta biltzen denarekin zer egin gura duen, zaborra nora eramango den, bukaera faserako zer planteatzen duen. Debagoienean zabortegi bat sortzea konpostatu edo birziklatu ezin diren hondakinendako?

Mankomunitatean onartu genuen prozesuaren hasieratik amaierara arteko hausnarketa bat egitea, eta egingo dugula espero dut.

Informazio hori dugunean aztertu egingo dugu, eta hausnarketa abiaraziko dugu.

**Baina imajinatzen duzu atez atekoa Elgetan ere?**

Zaila da hausnarketa honi une honetan behar den moduan ekitea. Zaila da zelan batu nahi dugun erabakitzea, ez badakigu gainerako guztia. Kontuan hartuta zenbat diru den, herritarrei zelako aldaketa dakarkien... uste dut hausnarketa hori egin behar dugula Mankomunitatean, eta espero dut egingo dugula.

Eta berriro diot, Elgetan herritarrekin batera hartuko dugu zaborren gaineko erabakia. Eta mundu guztia trankil egon dadila, horixe egingo dugu-eta!

**Garraio zerbitzua. Taxi-bus zerbitzua duzue orain Eibarrera?**

Aurreko agintaldian bi urte egon ginen herritarrekin batera garraio kontuetan zer behar genuen adosten. Agintaldi honetan lan horri heldu, Diputazioko arduradun berriei helarazi, negoziatu, eta herritarrekin berriz azken ordutegiak adostu ditugu. Zerbitzua martxan dago. Espero dugu Bergarakoa ere laster martxan ipintzea. Foru Aldundiaren eskumena da, eta eurekin berbetan ari garen kontu bat da.

**Teilatupeetan eta lokal komertzialetan etxebizitzak egin ahal izateko ordenantza ere onartu duzue.**

Eraikin askotako jabeekin egon ginen harremanetan ordenantza berri hori adosteko.

**Aixolako zentroak, berriz, bi urte bete ditu. Hasierako beldurrak uxatu dira?**

Udalok zentroaren gorabeheren gainean informatuta gaude. Gorabeherak izaten dira, baina uste dut asmatzen ari garela horiek alarma moduan ez zabaltzen.

**Zenbat gazte daude une honetan zentroan?**

Udal arduradunak du horren berri. Nik ez dakit, eta jakingo banu ere ez nizuke esango. Gai hauek tentu handiz tratatu behar ditugula uste dut.

# Interrailean egindako bidaia argazkitan ikusgai

Janire Lazkanok Europan zehar eginiko bidaia kontatuko du gaur, 21:00etan, gaztetxean

L.Z. | ELGETA

Aurreko udan abuztu osoa hartu zuen Janire Lazkano elgetarrak Europa interrailean ezagutzeko. Hendaiatik irten zen, eta Paris, Amsterdam, Berlin, Varsovia, Praga, Viena, Budapest, Belgrad, Sofia, Istanbul, Salonika, Atenas, Patras, Ancona, Napoli, Ponpeia, Erroma eta Milan bisitatu zituen.

Gaur, barikua, bidaian ateratako argazkiak erakutsiko ditu gaztetxean, eta interrailaren inguruko informazioa ere emango du, jendeak zertan datzan jakin dezan.

**Antzezlana Espaloian**

Kafe antzokitik, berriz, familia osoarendako ikuskizuna proposatzen dute, Panta Rhei taldeak *Auzokideak* izeneko ikuskizuna eskainiko baitu, 18:30ean hasita. Eginaren Eginez Arabako ezindu fisikoen elkartearekin batera sortutako ekimena da. Hain zuzen ere, dibertsitate funtzionala izango da oinarrizko gaia.



Lazkano, Budapesteko parlamentuaren eraikinaren aurrean. | JANIRE LAZKANO

# Maiatzaren 12an jokatuko dituzte frontenis txapelketetako finalak

L.Z. | ELGETA

Aurreko aste bukaeran jokatu ziren finalerdiak, eta, horrenbestez, erabakita daude aurtengo bikote finalistak.

Txapelketa mistoan Idoia Elkoro-Enrike Elkoro eta Idoia Serna-Asier Osoro bikoteek jokatuko dute finala. Gizonezkoen txapelketan, berriz, Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro eta Iban Retolaza-Xabier Ubera bikoteek.

Aurtengo frontenis txapelketan bikote onenak izan dira, eta aurrez aurre izango dira maiatzaren 12an jokatuko diren bi finaletan.

**Finalerdietako emaitzak**

Aurreko aste bukaeran jokatutako txapelketa mistoko finalerdietan Idoia Elkoro-Enrike Elkoro bikoteak 25-05 irabazi zion Iune Dosuna-Xanti Dosuna bikoteari; eta Idoia Serna-Asier Osoro bikoteak 25-22 irabazi zion Rebeka Ubera-Mikel Arkara bikoteari.

Gizonezkoen txapelketan, berriz, Haritz Gallastegi-Enrike Elkoro bikoteak 25-11 hartu zuen mendean Mikel Beretxinaga-Odei Zenitagoia bikotea; Iban Retolaza-Xabier Ubera bikoteak 25-21 irabazi zion Andoni Elortza-Eneko Maguregi bikoteari.

## OHARRAK

**AZKEN BARIKUA**

Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea gaur, apirilak 27, Herriko Plazan, 20:00etan.

**BISITA GIDATUA LUBAKIETARA**

Domekan, apirilak 29, Intxortako frontea ezagutzeko bisita gidatua, 10:00etan abiatuta. Izen-emateak: 943 71 89 11 eta *turismo@elgeta.net*.

**HERRIXA DANTZAN**

Domekan, hilak 29, dantza saio irekia Espaloian. 18:00etan haur eta gurasoak elkarrekin dantzan eta 19:00etan ohiko saioa. Sarrera doan eta parte-hartze librea.

**SASKIBALOI SAIOA**

Gaztetxoendako saskibaloi saio irekia gaur, barikua, 18:30etik 19:30era, kiroldegiko kantxan. Parte-hartze irekia.

ARAMAIO

# Irakurriz gozatzeko eta gozarazteko egitasmoa

Txirritolak asteon jarri du martxan 'Irakurri, gozatu eta oparitu' ekimena

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Txirritolak astelehenean, Liburuaren Nazioarteko Egunean, jarri zuen martxan Topagunea euskara elkarteen federazioak antolatzen duen *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa. Iaz antolatu zuten Aramaion lehenengoz, eta, Txirritola euskara elkarteko zuzendaritza taldeko Judith Arriolabengoak adierazi duenez, "jende askok" hartu zuen parte: "Iazkoa esperientzia ona ikusita aurten errepikatzea erabaki dugu. Ea aurten iaz baino jende gehiago animatzen den..."

Ekimenaren helburuak honakoak dira, antolatzaileek jakinarazi dutenez: irakurzaletasuna sustatzea, euskararen erabilera gozagarria bultzatzea, irakurketak dakarren gozamenaren aldarrikapena egitea, herritarra liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtzea eta, bide batez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta areagotzea.

> ESANAK
>
> **"Iazko esperientzia ikusita, aurten errepikatzea erabaki dugu; ea jende gehiago animatzen den"**
>
> JUDITH ARRIOLABENGOA | TXIRRITOLA

### Parte hartzeko gonbidapena

Txirritola euskara elkarteak aramaioar guztiak parte hartzera gonbidatu ditu. Nola parte hartu? Hasteko eta behin, erabiltzaileak euskarazko liburu bat hartu behar du Udal Bibliotekatik, etxera eraman eta irakurraldiaz gozatzeko. Liburua irakurtzerakoan Udal Bibliotekara itzuli, hiru galdera orokorrez osatutako irakurle fitxa bete eta erosketa txartela hartu behar da liburutegian bertan.

Behin erosketa txartela hartu eta Elkar liburu-dendan erakutsi ostean, beste edozein liburu %25 merkeago erosi ahal izango da. Eta ez hori bakarrik, erosketa txartela duten Txirritolako bazkideek %50eko deskontua izango dute; liburua erdi prezioan erosteko aukera, hain justu.

Ekimenak bi hilabete iraungo du, apirilaren 23tik ekainaren 30era. Bestalde, maiatzean eta ekainean 30 euroko erosketa txartel bat zozketatuko da bibliotekan, ekimenarekin bat egiten duten parte-hartzaile guztien artean.



Arrasate eta Aramaioko kidez osatutako Dirty Brothers taldea. | DIRTY BROTHERS

# Punk-rock doinuek hartuko dute bihar eskola

Aramaioko eta inguruko zortzi taldek kontzertua eskainiko dute bihar eskola azpian (19:00)

**J.B.** | ARAMAIO

Punk-rock uholdea espero da bihar Aramaion, herriko eta inguruetako zortzi talderen eskutik kontzertua antolatu dute-eta eskola azpian. Aspaldi ez zen Aramaion halako rock maratoi bat bizi izaten. Antolatzaile lanetan diharduen Edurne Kortabarria aramaioarrak azaldu digu zergatik antolatu duten kontzertua: "Duela hiru urte sortutako *Lidergo ekintzaile eta berritzailea* deritzon karrera egiten gabiltza eta ikasturteko helburu nagusia da enpresa bat zerotik hastea. Gure enpresak Glow du izena, eta harendako finantzazio iturri moduan antolatu dugu kontzertuak".

### Txosna, finantzazio iturri

Sarrerarik ez dute kobratuko, baina agertokitik gertu jarriko duten txosnatik aterako dute Glow enpresarendako dirua. Kortabarria eta haren eskolakide Andoni Ariño arrasatearra egongo dira lanean. 19:00etan hasiko dira kontzertuak eta gaua ondo sartu arte zuzeneko musikak ez du etenik izango.

> TALDEAK
>
> **El Trio Calavera**
> Oñati.
> **Alerta Gorria:**
> Arbizu (Nafarroa).
> **The Boobys:**
> Orereta.
> **Desorden:**
> Aramaio eta Arrasate.
> **El Exterminio de la Raza del Mono:**
> Aramaio.
> **Krisis:**
> Aretxabaleta.
> **No Hope:**
> Arrasate eta Aretxabaleta.
> **Dirty Brothers:**
> Arrasate eta Aramaio.



Iaz Txan magoa izan zen sari banaketan. Aurten, antzezlana: *Amona Joxeparen istorioak*. | JOSETXO ARANTZABAL

## Ipuin lehiaketaren sari banaketa gaur, antzezlan eta guzti

Txirritola euskara elkarteak urtero antolatzen duen ipuin lehiaketaren sari banaketa egingo dute gaur, Kultur etxean, 18:00etan hasita. Antolatzaileak pozik daude ipuin lehiaketak aurten ere izan duen erantzunarekin. Izan ere, San Martin eskolarekin gauzatutako elkarlanari esker, Lehen Hezkuntzako ikasle gehienek hartu dute parte. Horiendako antzezlan ederra prestatu dute Txirritolakoek gaurko: *Amona Joxeparen istorioak*. Merlin aztia eta amona Joxepa dira protagonistak, eta magia, antzerkia eta txotxongiloak batzen dituen ikuskizuna da.

Era berean, aurten helduengana heltzeko ahalegin berezia egin dute eta ahalegin horri esker, bi lan jaso dituzte. Lanok oso maila altukoak izan dira, epaimahaiaren arabera.

## Odol ematea izango da maiatzaren 2an osasun etxean, 16:30etik 20:00etara bitartean

Maiatzaren 2rako odola emateko dei egin du Arabako Odol Emaileen Elkarteak, 16:30etik 20:00etara. Jakinarazi dute odola oso beharrezkoa dela; izan ere, giza pertsonak bakarrik salba dezake gizakia. Odola eman ahal izateko 18 urtetik gorakoa eta 66 urtetik beherakoa izatea eta gutxienez 50 kilo pisatu behar dela gogoratu dute. Gainera, ez dago baraurik joan beharrik; bazkari handia hartu eta bi ordu baino lehen ez ematea aholkatzen dute. Argibide gehiagorako deitu 900 30 34 04 telefono zenbakira.

LEINTZ GATZAGA

# Dorleta pilota txapelketako hurrengo kanporaketa domekan

**MIRARI ALTUBE** | LEINTZ GATZAGA

Dorleta pilota txapelketako final-laurdenak dagoeneko jokatu dituzte eta domekan hurrengo kanporaketak izango dira. Poliki-poliki hasi dira faborito izango direnak antzematen eta horien artean dago zortzi urte dituen Etxaniz bergararra, Jokin Etxanizen semea. Arrasateko pilotariak ere bikain dabiltza eta maila guztietan dago bikoteren bat finalerdietarako sailkatuta.

Domekako kanporaketak beteranoek hasiko dituzte: 09:00etan, Villar eta Gorosarri (Eskoriatza), Abasolo anaien aurka (Gatzaga); 09:30ean, Eraña anaiak (Aretxabaleta), Arana eta Erañaren aurka (Aretxabaleta); 10:30ean, Aranburu eta Romanate (Oñati), Azagirre eta Gomezen (Bergara) aurka; 11:30ean, Usuriaga anaiak (Mallabia), Agirrezabal eta Salegiren aurka (Bergara); eta 12:00etan, Lasagabaster eta Altube (Aretxabaleta), Kintana eta Blancoren aurka (Legutiano).

Kadeteen artean, ostera, Gasteizko bikoteak Amurrio B-ren aurka jokatuko du eta Aramaiokoak Elorriokoaren aurka. Eta bukatzeko benjamin-aurrekoen arteko hiru partidu izango dira 13:00etan hasita.

## Loreen Eguna maiatzaren 5era atzeratu dute

Gurel guraso elkarteak Loreen Eguna ospatzeko asmoa zuen bihar, zapatua, baina astebete atzeratzea erabaki du eguraldi txarra iragarrita dagoelako. Izan ere, landareak landatu eta herriko bazterrak txukuntzeko ateri egotea komeni dela iritzi diote. Hori horrela, maiatzaren 5ean egingo dutela jakinarazi dute.

## Domekan esango dute denboraldiko azken meza parrokian

Domekan, apirilak 29, esango dute negu parteko azken meza San Milixan parrokian. Behin maiatzean sartuta Dorletako santutegian izango dira domeketako mezak, ohiko ordutegian (12:30). Hileta elizkizunak ostera, parrokian egingo dituzte. Orain arte legez Martin Mendizabal fraide frantziskotarra etorriko da mezak esatera.

# GARAIA JATETXEA



## Eguneko Menua
## Taldeen Bazkariak



Garaia Jatetxea.
Goiru Kalea 1 ARRASATE 943 71 02 28
*garaia.ostalaritza@ext.grupogureak.com*
*www.grupogureak.com*



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.

Larrinetxe
JATETXEA

## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**
- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

**Martitzenetan itxita.**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

AUTOMOBILISMOA

# Udanako kurbek estreinatuko dute igoeren denboraldia, zapatuan

## 15:00etan hasiko duten lasterketan 74 pilotu izango dira

**XABIER URTZELAI** | OÑATI

Iazko istripuen ostean zapore txar guztiak uxatzeko asmoz dator aurtengo Udanako auto igoera. Martxoan egin dituzten rally eta rallysprintak alde batera utzita, Oñatikoa izango da igoeren denboraldia estreinatuko duen hitzordua, eta jendea ikuskizun gogoz dago. Zapaturako ez dute eguraldi iragarpen ona eman, baina pilotuendako baino okerragoa da hori ikusleendako: "Euria egiten duenean nik ez dut arazorik izaten, hobeto moldatzen naiz", diosku lasterketako antolatzaile den eta zapatuan proba bere auto barrutik jarraituko duen David Ardionsek: "Pena handiagoa hartuko dut ikusleengatik, euripean egotea ez delako erosoa, eta halakoetan jende gutxiago animatzen delako. Ea ateri eusten dion".

Urtero moduan Oñatiko hitzorduak denboraldian zehar beste lasterketa batzuetan parte hartzera animatzen ez diren herriko pilotuak batuko ditu. Herrian korritzea beti delako berezia. Hala, Oñatiko saria irabazteko lehian izango dira Ruben Nogueiras (Silver Car S2), Juan Zelaia (Silver Car S2), David Ardions (Mitsubishi Evo VII), Asier Mugarza (Clio Sport), Aitor Arnaiz (R5 GT Turbo), Asier Samaniego (BMW 325i), Monica Muñoz (Citroen ZX 16v) eta Iñigo Errasti (Clio Sport). Oñatikoekin batera, besteak beste, ibarreko pilotu hauek egongo dira irteera puntuan: Ander Corcuera (VW Golf GTI), Gorka Idigoras (Opel Astra GSI), Joseba Frutos (Citroen AX Sport) eta iazko txapeldun Aitor Zabaleta (Lola BMW).

Iazko istripuaren ondoren, antolatzaileek lasterketan jarriko dituzten segurtasun neurriak [zehaztasunak behean] errespetatzeko eskaria egin dute: "Iazko istripua gertatuta ere lasterketarekin aurrera jarraitzeko asmoa hartu genuen, nahiz eta gertaera hark lur jota utzi gintuen, gainera, zauritu batzuk Oñatikoak izanda". Besteak beste, zorrotz zainduko dute ibilbidean aparkatutako autorik ez egotea.

**Nogueirasek, aurkezpena**

Biharko Oñatiko hitzordua aprobetxatuta, Ruben Nogueiras oñatiarra atzo arratsaldean zen bere taldearen eta denboraldiaren aurkezpena egitekoa, Soraluze hotelean komunikabideekin egindako topaketan. Edizio hau itxita zegoela zen hitzordua, baina *www.goiena.net* atarian izango duzue aurkezpenaren berri.



Mikel Otxoa aretxabaletarra eta haren BMWa, iazko edizioan. | JULIO CALLEJA

### Segurtasun neurriak zorroztuko dituzte

Iazko istripu larriaren ondoren Oñatiko Motor Taldeko lagunek goitik behera zorroztuko dituzte segurtasun neurriak. Neurri horiek batez ere kurbatan igarriko dira, kurba itxietan hormigoizko hormak jarriko dituztelako, eta atzean hesiak, jendea egon ez dadin: "Federazioak gertuagotik jarraitzen dute segurtasuna, baina neurri hauek guk hartu ditugu. Horrek guztiak proba garestitu egingo du, baina jendearen segurtasuna bermatzeko baldin bada, aurrera".

Hori bai, jendearen esku egongo da hesi horiek errespetatzea: "Esperientziadun komisarioak jarriko ditugu, eta zorrotz jokatuko dute".



Iaz, istripuaren unea. | ASIER ZUBILLAGA

**ESANAK**

**"Kurba itxietan hormigoizko hormak jarriko ditugu"**

**"Komisarioak zorrotz ibiliko dira, dena ondo joan dadin"**

DAVID ARDIONS | ANTOLATZAILEA

ESKUBALOIA

## Ford Mugarrik Gijonen jokatuko du igoera fasea

**X.U.** | ARRASATE

Euskadiko txapelketa irabazi ostean, Ford Mugarri Arrasatek Maiatzaren 4tik 6ra bitartean jokatuko du igoera fasea. Fase erabakigarri hori jokatu aurretik Arrasatekoek dagoeneko jaso dute lehen albiste txarra, kanporaketa horretan ligan lehenengo geratu direnak saritu beharrean –kanporaketa partidua beste liga bateko bigarren sailkatuaren kontra jarrita– multzoak arrazoi demografikoak kontutan hartuta egin dituztelako.

Hala, Ane Herreroren mutilekin batera Gijonen lehiatuko dira egunotan Covadonga, Academia Octavio eta BM Huesca. Partiduok Braulio Garcia kantxan jokatuko dituzte.

BORROKA LIBREA

## Maiden Unda Txinara, Jokoetarako txartel bila

**X.U.** | ARRASATE

Joan den astean Bulgarian zilarrezko domina irabazi arren Maider Undak ez zuen lortu Londresen egingo dituzten Olinpiar Jokoetarako sailkatzea; Sofian egindako aurreolinpikoan bi borrokalari onenek lortu zuten txartela, eta aurreratu moduan, Aramaiokoa hirugarren sailkatu zen.

Hala, Olinpiar Jokoetara sailkatzeko hurrengo ahalegina egunotan egingo du, Txinan, Taiyuanen egingo duten mundu mailako aurreolinpikoan. Domekan izango du borrokaldia, eta Txinatik helburua bete barik itzultzen bada datorren maiatzaren 6an izango du azken aukera, Vantaan-en (Finlandia) egingo duten txapelketan.

FUTBOLA

## Mondrak garaipena behar du, derrigorrez

**X.U.** | ARETXABALETA

Ligako bost jardunaldi geratzen direnean azken asteotan Mondrarendako egoera ez da askorik aldatu. Talde zuri-moreak (24) bost puntura du Hondarribia (29), jaitsiera postuetan ez dagoen lehenengo taldea. Hala, kategoriari eusteko aukerekin jarraitzeko beharrezko dute Berio mendean hartzea (zapatua, 16:30). Lasaitasun postuetan daudenen artean, Bergarak etxean jokatuko du domekan, Pasaiaren kontra (Agorrosin) eta Aretxabaletak Tolosa izango du aurrean zapatuan (16:30). Azkenik, Hondarribian jokatuko du Aloñak.

Bestalde, maiatzaren 2an Euskal Ligako gazteek Amorebietaren kontra jokatuko dute Ibarran kopako partidua 19:30ean.

MENDI BIZIKLETA

## Maiatzaren 6an egingo dute Musakolako bizikleta irteera

**X.U.** | ARRASATE

Musakolako Jai Komisioak antolatuta datorren maiatzaren 6an egingo dute Zigorrolan mendi bizikleta irteera (35 km). Izenematea aurrez egin daiteke *www.musakola.com* webgunean (10 euro), eta egunean bertan 5 euro gehiago ordaindu beharko dira. Txirrindulariak Zior-Ola elkarte ondotik irtengo dira, 09:00etan (izenematea lehenago).



Iazko edizioko argazkia. | MUSAKOLA.COM

SASKIBALOIA

## MUk Durangon, eta Soraluce BKEk Zumarragan

**X.U.** | ARRASATE

Lehen nazional mailan, eta Gipuzkoako seniorretan, Mondragon Unibertsitateak eta Soraluce BKEk partidu garrantzitsuak jokatuko dituzte. MUrena ez da hil ala bizikoa. Joan den astean etxean irabazita, hirugarren postuan jarraitzeko pauso garrantzitsua emango lukete asteburuan Durangon irabazita (zapatua 17:00).

Partidu garrantzitsuagoa jokatuko du Soraluce BKE domekan 17:00etan Zumarragan. Aluminios Francisco Alberdi eta Soraluce BKE jaitsiera postuetatik ihes egiteko borrokan dabiltza, eta azken jardunaldiaren aurrean daude. Hala, partidua irabazten duenak kategoriari eutsi ko diogu. Hil ala bizikoa.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO**
**(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea
620 12 48 43 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FARMAZIA

**AMAIA IGARTUA SAGASTIZABAL**
Oñati / Kale zaharra,1 / 943 78 01 22
amaiaigartua1@gmail.com

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA**
**(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# KULTURA


Charlie Mag gaztea. | CHARLIE MAG


Parenthese Cubique mago frantziarra. | CUBIQUE


Brando eta Silvana bikotea. | SILVANA


EnricMagoo, txisteraz. | ENRICMAGOO

# Asteburu magikoa Elgetan

▶ Maiatzaren 4tik 6ra momentuko magorik entzutetsuenek erakustaldia egingo dute

▶ Aurten lehen aldiz magia kalera aterako dute zapatu arratsaldean ere

**MAIDER ARREGI** | ELGETA

Gipuzkoan erreferente bilakatu da Elgetako Magia Mostra. Aurten zortzigarrenez antolatu dute, maiatzeko lehen aste bukaerarako. Mila eta ehun biztanleko herri batek beste hainbeste ikusle erakartzen dituela azpimarratu gura izan dute Magia Mostrako antolatzaileek: "Erantzuna benetan oso-oso ona da; mila laguneko herria da eta beste horrenbeste ekartzen ditu magia jaialdiak gurera". "Munduko mago onenak izan dira jaialdian; kalitatea zaindu gura izan dugu beti, eta, aurten ere, lehen mailako magoak eta ikuskizunak ekarriko ditugu", gaineratu digute.

Patxi Basaurik, Elgetako Turismo zinegotziak, Udala eta herriko kultura taldea batera lanean aritzea azpimarratu du: "Lortu dugu, magia gure bailarara ekarri dugu eta fruitua eman du herrian 250 bazkide dituen elkarte baten eta Udalaren arteko elkarlanaren ondorioz. Horren eredua da zortzigarrenez egingo den magia mostra hau. Gipuzkoa osoa dago gonbidatuta; nahiz eta Bizkaia, Araba eta Santandertik ere etortzen den jendea". Hala, hemen Basaurik egindako gonbidapena: "Etortzen bazarete, errepikatuko duzue. Aho zabalik eta gustura utziko zaituzte magoek Elgetan; etorri gurekin asteburu magikoa bizi izatera!".

**Mago onenak**

Elgetako Udalak eta Espaloia antzokiak antolatuta, goi mailako magoak eta magia ikuskizunak izango ditugu aurten ere. Jose Angel Suarez antolatzaileak zer ikusiko dugun aurreratu digu: "Zortzi urteren ostean, aurtengo kartela oso maila handikoa da. Aniztasun handiko egitaraua da, diziplina asko batzea lortu dugu". Areto barruko ikuskizunetan ariko dira MagoMigue (Granada), P-Cubique (Frantzia), Enric Magoo (Katalunia), Charlie Mag (Katalunia), eta Silvana magoa (Argentina) Ondoren, domeka arratsaldean, Silvanak magia kalera aterako du Brandon magoaren laguntzarekin.

Eta kaleko magia ikuskizunei dagokienez, berriz, aurten egun bat gehiago izango dugu: domeka eguerdian ez ezik, zapatu arratsaldean ere Elgetako kaleetan barrena ariko dira magoak, denen gozamenerako.

**Gau magikoak**

Lehena magia erakustaldia egiten, barikuan, munduko magia saria duen magoa izango da: MagoMigue *AluCine* ikuskizun berriarekin. MagoMiguek asko bidaiatzen du eta herrialde askotan egondakoa da. Oso ikuskizun zaila, konplexutasun handikoa dakar; agertoki asko dituen ikuskizun duina da. Georges Melies handiari Miguek egiten dion omenaldia da. Lumieres anaiak zientzialariak ziren eta zinema asmatu zuten; Georges Melies, ordea, magoa zen, eta zinemarekin ilusioa eta harridura eragin zituen. Zinema lehen aldiz ikusi zuten XIX. mende bukaerako gizon-emakume haien tokian ipiniko gaitu munduko magia saria jaso duen ikuskizun horrek. MagoMigue munduko kartomagia txapelduna da eta hirugarren aldiz izango dugu Elgetan. Publikoaren saria jaso zuen 2006an Magia Mostran. Ikuslea aho bete hortz uztera etorriko da, duda barik.

Zapatu gaueko magia gala Miguek berak gidatuko du. Parenthese Cubique frantziarraren magia modernoaz eta ospetsuaz gozatuko dugu lehenengo. Ilusio handiak gustuko dituenendako lana ekarriko digu: *Cubic Act*. Ondoren etorriko da Enric Magooren ikuskizun umoretsua. Nazioarteko sariak lortu ditu, eta atzerrian ezagutzera eman duen ikuskizuna ekarriko du Elgetara: *Frankie J.B.* Duda barik, mago emankorrena da. Urte asko daramatza ikuskizun berbera egiten eta oraindik ez du gaurkotasunik galdu; ikuslea oraindik ere txundituta geratzen da. Domekan kalera irtengo da, *Carro de ilusiones* izeneko emanaldiarekin.

Antzerki obra txikia eta umoretsua dugu *Frankie J.B*; betiere, magia trikimailuak ardatz dituela. Frankenstein munstroaren alderdi komikoa ezagutuko dugu. Mandrakes d'Or saria jaso duen antzerki ikuskizuna da.

Eta, nola ez, magia tradizionalaren maisua, Charlie Mag, izango dugu bere usoekin. 20 urteko gaztea da eta sekulako ibilbidea dauka dagoeneko. Numero klasikoaren barruan, magia egiteko erabiltzen dituen elementuak klasikoak dira, *magia* hitza esan eta burura etortzen zaizkigunak. Hala, usoak desagertzen dituen saioa ikusteko aukera izango da. Mugimendu biziko ikuskizuna da eta musikaren erritmora magoak usoak agertu eta desagerraraziko ditu leku harrigarrietan. Indar bisual handiko ikuskizuna; nazioarteko zazpi sari eskuratu ditu, baita lehen saria mundu mailako mago gazteen txapelketan.

Eta emakumezko bat tartean: Silvana. Jostun baten istorioa kontatzen du eta oihartzun handia izan du nazioartean, oso originala delako ikuskizuna.

Magia trikimailuak, antzerkia eta musika oinarri dituen ikuskizuna da Silvana argentinarrarena. Originaltasunaren saria jaso zuen iazko Blackpool-eko, magia jaialdi entzutetsuan (Erresuma Batua).


MagoMigue magoak aurkeztuko du gala zapatuan. | MAGOMIGUE

## EGITARAUA

**MAIATZAK 4, BARIKUA**

**22:30** Magia saioa; 15 euro.

▶ MagoMigue. *AluCine* ikuskizun berria.

**MAIATZAK 5, ZAPATUA**

**22:30** Magia gala; 18 euro.

▶ P-Cubique: *Cubic Act*, ilusio handiko ikuskizuna

▶ Enric Magoo: *Frankie J.B.*, magia komikoa.

▶ Charlie Mag: gala ikuskizuna, magia usoekin.

▶ Silvana: antzerki magia.

**18:00** Magia kalean; doan

**MAIATZAK 6, DOMEKA**

**13:00** Magia kalean; doan.

▶ Brando eta Silvana: *Circus* ikuskizuna.

▶ Enric Magoo.

## Magia kalera aterako dute

Kalean herritarren aurrean magia erakustaldia doan egitea klasiko bilakatu da. Aurten, ordea, beste ikuskizun bat ere egingo dute. Hala, domeka eguerdian ez ezik, zapatu arratsaldean ere familia osoarendako ikuskizuna eskainiko du Cuesta Gasteizko magoak, 18:00etan. Domekan, Silvana eta Brandok *Circus* kaleratuko dute, lehen saria jaso berri duena Alemaniako Street Magic Festival jaialdian.

"Helburua magia ikuskizuna bultzatzea da. Magia kalean, doan, bi egunez, herritarren eskura eta herritarrei gerturatzeko asmoz", azpimarratu dute antolakuntzako kideek.

# Familiendako espektakulua gaur Elgetako Espaloian

U.A. | ARRASATE

Panta Rhei taldeak *Auzokideak* izeneko lana aurkeztuko du gaur, barikua, Elgetako Espaloia kafe antzokian.

Antzerki taldeak Eginaren Eginez izeneko elkartearekin batera sortutako ekimena da Elgetan aurkeztuko duten lana. Eginaren Eginez Arabako ezindu fisikoen elkartea da, eta, nolabait, taula gainean irudikatuko dituzte elkarte horretako protagonistak. Pedagogia lan bat da eta publiko familiarra sentsibilizatzeko ahalegina egin nahi dute. Hala, dibertsitate funtzionala izango da antzerki-lanaren oinarrizko gaia, baikortasuna zabaltzeko hizkuntza eta estetika garaikidearen bidez. Izan ere, Panta Rhei taldearen helburuetako bat da umeen funtsezko beharrak artatzea antzerki-jolasaren bidez, portaera eta balio osasuntsuak sortzen laguntzeko, osasun integralaren alde.

Gaur, barikua, 18:30ean izango da ikuskizuna Elgetako Espaloian. Sarrera 7 euro da; bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte.

# Euspot lehiaketako lan onena aukera dezakezue

U.A. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak, Aretxabaletako Udalak eta Arteman Komunikazioa enpresak antolatutako Euspot euskarazko spot lehiaketara aurkeztutako lan guztiak Interneten ikus daitezke dagoeneko. Bederatzi spot jaso dituzte, eta, lanak ikusteaz gain, publikoaren sarirako botoa eman daiteke *www.euspot.eu* webgunean; maiatzaren 6a izango da botoa emateko azken eguna.

Maiatzaren 8an, martitzena, egingo da sari banaketa ekitaldia Aretxabaletako Arkupe kultura etxean, eta hiru sari banatuko dituzte: lan onenarentzat 1.800 euro; Mondragon Unibertsitateko ikasleek egindako lan onenarentzat 800 euro; eta publikoaren gogokoenak 500 euro jasoko ditu. Epaimahaiak horrela erabakiz gero, sariak eman barik geratuko dira. Arloko profesionalek, MUko irakasleek, Aretxabaletako udal ordezkariek eta hedabideetako profesionalek osatuko dute epaimahaia.



*Ismalia.* | HUHEZINEMA



*Zeinek gehiago iraun.* | HUHEZINEMA



*Superzebraman.* | HUHEZINEMA



*Istmo.* | HUHEZINEMA



*Dicen.* | HUHEZINEMA



*No sé qué hacer contigo.* | HUHEZINEMA



*She's lost control.* | HUHEZINEMA



*Por los camareros.* | HUHEZINEMA

# Aukeratu dituzte Huhezinema film laburren lehiaketako finalistak

## Maiatzaren 8tik 10era erakutsiko dituzte Aretxabaletan eta Eskoriatzan

USOA AGIRRE | ARRASATE

Aurtengo Huhezinema lehiaketan 130 film labur jaso dituzte, sekula baino gehiago, antolatzaileen arabera. Horietatik hamar finalista aukeratu ditu dagoeneko epaimahaiak eta filmok maiatzaren 8an, 9an eta 10ean erakutsi eta sarituko dituzte Huhezinemaren jaialdian, Aretxabaletan eta Eskoriatzan.

Hauek dira epaimahaiak finalerako aukeratu dituen hamar lanak (zortziren kartelak bakarrik daude): *Ekaitza*, Alberto Gastesirena; *Ismalia*, Xabier Cereceda-Hozena; *Zeinek gehiago iraun*, Gregorio Murorena; *Superzebraman*, Javier Urtatsunena; *Istmo*, Alberto Gastesirena; *Dicen*, Alauda Ruiz de Azuarena; *Garaipena*, Esteban Ramosena; *No se qué hacer contigo*, Miguel Campionena; *She's lost control*, Haritz Zubillagarena; eta *Por los camareros*, Javier Etxaniz eta Gregorio Murorena.

**Hiru sari**

Epaimahaiak aukeratutako finalisten lan horiek guztiak Huhezineman erakutsiko dira, eta bertan hiru sari emango dituzte. Epaimahaiak emandakoak izango dira bi: euskarazko film labur onenari 1.000 eurokoa, eta film labur onenari beste 600 eurokoa. Hirugarren saria, berriz, 400 eurokoa, film laburrak ikustera hurbildutako publikoak erabakiko du.

**Kartel lehiaketa**

Bestalde, kartel lehiaketa antolatu dute aurten bigarren aldiz. 32 kartel jaso dituzte eta Beñat Floresek irabazi du.


Matxura taldeko kideak. | MATXURA

# Rock astunaren gaua bihar Oñatin, Matxura eta Herstura taldeen kontzertuarekin

U.A. | ARRASATE

Bihar, zapatua, 22:00etan hasita, rock astuna entzuteko aukera izango da Oñatiko gaztelekuan. Oñatiko Herstura arituko da lehenengo, eta taldearen izen bereko lehenengo diskoa aurkeztuko du.

Oñatikoen ostean arituko dira Matxura taldekoak, urteak musika munduan daramatzaten musikari ezberdinek osatutako egitasmo berria: Mikel Kazalis (Negu Gorriak, Anestesia, Estigia, Kuraia, 2kate...), Fer Apoa (Estricalla, Kuraia, Corazon de Sapo), Aitor Abio (PiLT) eta Txarly (Anestesia, Why Not?).

Joan den urtean argitaratu zuten taldearen izen bereko diskoa Bonberenea Ekintzak zigilupean. Rock industrial gordin eta astunez eta erritmo bortitzez betetako diskoa da, eta mutureko kontzertua eskainiko dute.

# Haur literatura helduena ere badela ikasi dute Huhezin

## Literatura topaketa egin zuten 'Haur Literatura: Helduentzako Literatura' izenburuarekin

U.A. | ARRASATE

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean 13. Literatura Topaketa egin zuten joan den martitzenean, *Haur Literatura: Helduentzako Literatura* izenburupean. Egun osoko jardunaldian parte hartu zuten Juan Kruz Igerabide idazle eta irakasleak, Eider Eibar ilustratzaileak, Yolanda Arrieta idazle eta irakasleak eta Pello Añorga idazle eta ipuin kontalariak.

**Bizi osorako literatura**

Jardunaldien antolatzaileen arabera, haurtzaroko ipuin, poesia, kantu, irudi-ilustrazioak... gure haurtzaroko elikadura ez ezik, nerabezarorako zubi dira, eta are gehiago, gure helduaroan ere hor daude oihartzun horiek. Hala, Juan Kruz Igerabidek *Bizirik irauteko literatura* izenburupean egin zuen hitzaldia lehenengo. Igerabideren arabera, haurrak poesiaren beharra aldarrikatzen du jaiotzen denean, eta eskolan hastean ere hor egoten da poesia egarri hori. Bizitzako momentu batean ez bada, beste batean agertzen da egarri hori; nerabezaroan, adibidez.

Eider Eibar ilustratzaileak "marraztea erabakiak hartzea" dela esan zuen, eta, bere lanak erakutsita, bakoitzean hartu dituen erabakien berri eman zuen. Goizeko ekitaldia amaitzeko, tailerrak egin zituzten Yolanda Arrietarekin.

Arratsaldeko saioan, Pello Añorgarekin baieztatu ahal izan zuten haurrentzako ipuinak helduendako ere badirela.




Eguraldiarekin lotutako fenomenoak jarraitzen ditu Uribetxebarriak.

**Iñaki Uribetxebarria** | Meteorologia-zalea eta mendi lasterkaria

MIRIAN BITERI

# "Betidanik erakarri izan naute elurteek, ekaitzek eta horrelako fenomenoek, eta irakurriz zaletu naiz"

**MIRIAN BITERI** | ESKORIATZA

Sistemen informatikako ingeniaria da Iñaki Uribetxebarria (Eskoriatza, 1987). Mendiko lasterketak prestatzen buru-belarri harrapatu dugu, eta kirolaz gain dituen bestelako zaletasunez egin digu berba.

**Mendian ordu asko sartzen dituzu. Nondik datorkizu zaletasun hori?**

Astean bost egunez mendira joaten naiz; lanean egun osoa jarrita egiten dut, eta haize freskoa hartzeko beharra izaten dut, askatasuna eta lasaitasuna.

**Nolatan korrika egiten eta ez ibiltzen?**

Lehen, noizean behin, asfaltoan egiten nuen korrika, baina aspergarria iruditzen zitzaidan; orduan, mendira irteten hasi nintzen. Lasterketa batean parte hartu, eta zeharo harrapatu ninduen.

**Eskoriatza ona da entrenatzeko?**

Eskoriatza eta inguru guztiak oso onak dira mendiko lasterketetarako entrenatzeko; izan ere, edozein lekutara joanda ere, desnibel handia dugu; baditut kostaldeko lagunak inguru hauek asko gustatzen zaizkienak horregatik. Normalean, Atxorrotz inguruan ibiltzen naiz, eta, entrenamendu luzea egin nahi badut, handik Kurtzebarri aldera egiten dut.

**Pozik domekan Aloñako igoeran lortutako 8. postuarekin?**

Bai; ez nuen inondik inora espero. Azkenaldian, orkatila inguruko lesio dela-eta entrenatu ezinda ibili naiz. Aloñara proba moduan aurkeztu nintzen, eta, lehenengo kilometroetan pixka bat estutu eta ongi nindoala ikusita, aurrera egin nuen. Sekula parte hartu gabekoa nintzen, eta itzuliko naizela uste dut, asko gustatu zait-eta. Zortzigarren postua baino garrantzitsuagoa min barik amaitu izana da. Lehenago ere mendian lasterka ibili arren, iaz hasi nintzen lasterketetan parte hartzen: Anboto eta Peñalarako (Segovia) kilometro bertikalak, Eskoriatzako Gabez Takarraran, Lakuntza-Aralar, Goierri Garaia, Valentzian K25 Trail la Calerona...

**Neguan zeharkaldiko eskia ere praktikatzen duzu, ezta?**

Bai; Eskoriatzako lagunekin hainbat lasterketatara joateko ohitura dut. Bereziki, Ezkaraiko San Lorentzora joaten naiz, gertutasunagatik, hara joan, hainbatetan tontorra igo-jaitsi eta arratsalderako etxera itzultzeko aukera ematen duelako. Aurten ere hainbat lasterketatan izan naiz, Port Ainen, Aretten eta Alto Campoon kronoigoerak, eta gero, Altitoy, Andres Regil eta Tajahierro lasterketa luzeagoetan.

**Musikazalea ere bazara...**

Gustatu bai, baina ez naiz fanatikoa, inondik inora. Egunaren arabera musika bat edo beste bat entzuten dut, eta, talde bat aukeratzekotan, Hertzainak aukeratuko nuke. Bestalde, musika asko erabiltzen dut entrenatzeko gogorik ez dudanean kirola egiteko.

**Bestalde, Facebooken 400 lagunetik gora dituzu...**

Beste batzuek telebista aurrean ematen dute denbora; nik, ordea, ez dut ikusten. Telebista beharrean, Facebooken sartu eta nire lagunek jarritakoak ikusten pasatzen dut denbora; eta nik ere hainbat gauza jartzen ditut.

**Argazki politak dauzkagu han...**

Argazkilaritza oso gustuko dut, baina utzita daukat, entrenamenduak eta lasterketak direla-eta denbora faltagatik-edo. Garai baten, edozein lekutara joaten nintzela, kamera aldean eroaten nuen; ea giro hobea dagoenean udaberriko koloreekin berriz ere hartzen dudan.

***Eguraldia* aipatu duzu. Meteorologiak ere harrapatu zaitu...**

Betidanik erakarri izan naute elurteek, ekaitzek eta horrelako fenomenoek, eta liburuak irakurriz zaletu naiz. Askotan begiratzen ditut modelo meteorologikoak, zein eguraldi egingo duen iragarri nahian eta neguan eskiatzeko zein baldintza egongo den jakitearren. Nire ustez, Euskal Herri osoan beste inon baino gehiago interesatzen zaio jendeari eguraldia, ez dakit daukagun klimagatik edo zergatik izango den, baina oso kuriosoa iruditzen zait.

### PERTSONALA

**Mendi lasterketa gustukoena:** Zegama-Aizkorri, (oraindik egin barik badaukat ere). Egindakoen artean, ostera, Anbotoko kilometro bertikala.

**Lasterkari gustukoena:** Kilian Jornet.

**Bidaiatzeko leku bat:** Nepalera joango nintzakete gustura.

**Herriko txoko gustukoena:** Atxorrotz.

**Musika talde bat:** Hertzainak.

**Film bat:** *Gran Torino.*

**Jaki gustukoena:** Amak prestatutako edozer.

**Amets bat:** Orain arte moduan segitzea.

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**1. ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan eman
104. Errentan hartu
105. Etxeak osatu
106. Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
201. Saldu
202. Erosi
203. Errentan eman
204. Errentan hartu
205. Bestelakoak

**3. LOKALAK**
301. Saldu
302. Erosi
303. Errentan eman
304. Errentan hartu
305. Bestelakoak

**4. LANA**
401. Eskaintzak
402. Eskaerak
403. Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
501. Jaso
502. Eman
503. Bestelakoak

**6. MOTORRA**
601. Saldu
602. Erosi
603. Alokatu
603. Konpondu
604.Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
701. Saldu
702. Erosi
703. Eman
704. Bestelakoak

**8. DENETARIK**
801. Saldu
802. Erosi
803. Eman
804. Hartu
805.Trukatu
806.Galdu
807.Aurkitu
808. Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
901. Agurrak
902. Harremanak
903. Deiak
904. Bestelakoak

**10. RELAX**

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Mobil homea Iratxen.** Nafarroako kanpinik onenean. 45 metro koadro ingurukoa. 6-8 pertsonarendako. Bikotearendako logela bat eta bi oheko bi logela. Jangela-egongela eta sukalde hornitua. Portxea eta lorategia. Interesatuok deitu telefono honetara 686 77 04 97 edo idatzi mezu bat jm.urrataxi@hotmail.com helbidera.

**Oñati.** Etxebizitza salgai Errekalden 31n. Hiru logela, komuna, sukalde hornitua, egongela, balkoia garbiketa gunearekin. 80 metro koadro eta 7,20 metroko ganbararekin. Oso argitsua da. 184.100 eurotan tasatua dago eta prezioa adosteko. Interesatuok deitu telefono honetara: 653 73 08 03

**Saint Lary.** Estudioa salgai, Frantziako Pirinioetan. Pistetan bertan. Guztiz jantzia. Prezio negoziagarria. Interesatuok deitu telefono honetara: 664 12 22 11

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Dena kanpoaldera begira. Igogailua, lau logela, bi komun, sarrera, egongela eta sukaldea. Hornitua eta jantzia. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 607 32 74 32

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. 82 metro koadrokoa. Hiru logela. Interesatuok deitu telefono honetara: 657 79 45 61

**Oñati.** Errekalde auzoan. Hiru logela. Argitsua. Hornitua eta jantzia. Igogailua. Garajea ere alokatzeko aukera. Deitu zenbaki honetara 19:00etatik aurrera. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 679 87 87 48

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan San Juan jaietan zein udarako. 2, 4 edo 5 pertsonarendako egokitua. Guztik jantzia. Ondartzatik 100 metrora. Igerilekua, aparkalekua eta igogailua. 670 66 64 13 edo 943 79 71 59

### 104. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Antzuolan etxea behar dugu errentan. Baserria ere hartuko genuke. Deitu 626 73 40 19 edo 699 24 86 99 telefono zenbakietara.

**Arrasate.** Etxebizitza behar dut errentan. Hiru logelakoa eta aukeran igogailuarekin, edo lehen edo bigarren solairuan. Partikularren artekoa. Iñaki. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 689 45 06 98

**Malaga.** Kostaldean etxebizitza hartuko genuke errentan abuzturako. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 618 90 23 66

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Logela ematen da errentan Araba ibilbidean. Mutil batentzat. Kontratuarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 678 73 66 54

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat alokagai dugu unibertsitate ondoan. Deitu telefono honetara: 630 71 35 83

